

GAZTEAK ETA PANDEMIA

ADITUEN BEGIRADAK



ALBOAN



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD



GAZTEAK ETA PANDEMIA ADITUEN BEGIRADAK

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2021

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia:

1.a, 2021eko iraila

Ale-kopurua:

600 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako saila

Internet:

www.euskadi.eus

Koordinazioa:

Gazteen Euskal Behatokia

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:

Kabinetearen Zuzendaritza.
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako saila

Itzulpena:

IZO. IVAPeko Itzulpen Zerbitzu Ofiziala

Inprimaketa:

Gráficas Irudi, S.L.

L.G.:

LG G 585-2021

ISBN:

978-84-457-3602-9



Dokumentuaren edizio honetan jasotako edukiak lizentzia honekin argitaratu dira: Aitorpe-
na – Ez-komertziala – Obra eratorririk gabea 4.0 Unported de Creative Commons (informazio
gehiago: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es_ES)

INDIZEA

05	AURKEZPENA
07	HITZAURREA
09	ARTIKULUEN ZERREDA
10	Alboan: <i>Gazteak eta Pandemia: Alboan Gazte Sareko begirale taldeak hainbat ekarpen/iruzkin</i>
16	Alonso Alberca, Natalia: <i>Ekipaje arinak</i>
22	Alonso Arana, Maite: <i>Pandemiaren ondorioak gazteengan. Euskadiko eskola kontseiluaren hausnarketa</i>
28	Álvarez Llorente, Nagore; Ordoñez Gómez, Blanca; San Cristóbal Garamendi, Ruth; Sánchez Garigorta, Itziar: <i>COVID-19aren krisiak dibertsitate funtzionala duten gazteengan izandako inpaktua eta etorkizuneko erronkak: gazte horiek eta beren familiek izandako bizipenen bidezko hurbilketa bat</i>
34	Angulo Zaldua, Joseba: <i>Pandemian, batetik bestera. Pandemia batetik bestera</i>
40	Ansotegi Guruziaga, Estibaliz: <i>Euskal gazteen kontsumoak pandemian</i>
44	Basaras Ibarzabal, Miren: <i>Pandemia eta gazteak</i>
48	Bayón Martin, Fernando: <i>Ez da hain ziurra...</i>
52	Etxeberria Agirresarobe, Mikel: <i>Gaztea eta kultura pandemian</i>
56	Etxeberria Otadui, Ion: <i>STEM lanbideen zuhaitza eta pandemia</i>
60	Fernández Rivas, Arantza y González Torres, Miguel Angel: <i>Nerabeen adimen-osasunari buruzko txostena, Basurtuko Unibertsitate Ospitalea (BUO) - Bilbo-Basurtuko ESiko psikiatria-zerbitzuaren ikuspegitik egina</i>

- 66** Garcinuño Zabala, Javier: *Pandemia. Krisia. Langabezia. Aukera*
-
- 70** Goirigolzarri Garaizar, Jone: *Gazteak eta euskara pandemia garaian*
-
- 76** Grandibal Maguregi, Josu: *Parte-hartzea, gazteria, pandemia, etab.*
-
- 78** Landaida Larizgoitia, Izaskun: *Pandemia eta pandemiak gazteengan eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarengan dituen eraginak*
-
- 82** Mendizabal Usabiaga, Larraitx: *Gazteak pandemian: ganorabako, axolagabe, errudun?*
-
- 86** Morán Cuadrado, Charo: *Pandemia garaiko kontsumoa*
-
- 92** Moreno Márquez, Gorka: *Unibertsitatea COVID garaietan*
-
- 96** Olabe Aguirre, Maialen: *Pandemia eta emantzipazioa*
-
- 100** Oleaga Páramo, José Antonio: *Euskadiko gazteak eta COVID 19a*
-
- 104** Perez de Villarreal Amilburu, Naiara: *Gazteak, post-konfinamendua eta sare sozialak: pantailen gehiegizko erabilerari buruzko eztabaida itzuli da?*
-
- 108** Ramírez de Ocariz Sorolla, Ana: *Sexuak, gorteatzea eta maitasunak pandemia-garaian*
-
- 112** Sáez Martínez, Jorge: *Pandemiak nazioarteko mugikortasunean eta Euskadiko gazteek Europako proiektuetan izan duten parte-hartzean izandako eragina*
-
- 116** San Salvador del Valle Doistua, Roberto: *Zenbat eta gazteago, orduan eta talentu gehiago*
-
- 120** Sanzo González, Luis: *Garai bateko gazteriatik beste garai bateko gazteriarra*
-
- 126** Sarasola Irizar, Nora: *Aukerak, gazteek beren bizi-erronkak bete ditzaten*
-
- 132** Shershneva Zastavnaia, Julia: *COVID-19aren eragina Euskadin bizi diren eta jatorriz atzerritarrak diren gazteengan*
-
- 136** Silvestre Cabrera, María: *Gazteria, pandemia eta ziurgabetasuna*
-
- 140** Zalakain Hernández, Joseba: *COVID-19a eta belaunaldien arteko justizia*
-

AURKEZPENA

Covid-19aren pandemiak goitik behera aldatu du gure egunerokotasuna azken urte eta erdian, baina eragin txikiagoa izan du gazteengan gainerako biztanleengan baino, heriotzei edo ospitaleratzeei dagokienez. Osasunaren gaineko ondorioak ez dira hain larriak gazteen kolektiboan, baina horrek ez du esan nahi eragin handirik izan ez duenik gazteen bizitzan, ikasketetan, lanean, aisialdian, harremanetan, bizi-proiektuetan eta abarretan.

Gazteek eguneroko ohitura eta errutina asko aldatu zituzten: online eskolak jaso zituzten, telelana egin zuten, elkartasun-lanetan inplikatu ziren, sare sozialen erabilera areagotu zuten, gehiago garbitu zuten eta janari gehiago prestatu zuten, gutxiago atera ziren, kirola egiteko modu berriak bilatu zituzten, etxean edo bakarka, harremanak izateko eta/edo ligatzeko modu berriak garatu zituzten, ospakizunak eta emantzipatzeko proiektuak atzeratu zituzten; azken batean, beren bizitzak aldatu behar izan zituzten.

Nahiz eta komunikabideetako lehen orrialdeetan gazteen jaiak eta kale-edanak askotan agertu, eta gizarteak askotan esan gazteak berekoiak eta arduragabeak direla, egia da gazte gehienek ezarritako prebentzio-neurriak bete dituztela. Are gehiago, Gazteen Euskal Behatokiak gaiari buruz egin dituen ikerketen arabera, gazteak ados zeuden alarma-egoerarekin eta pandemia geldiarazten saiatzeko ezarritako neurriekin; horrela, konpromiso argia agertu zuten gaixotasunaren aurkako borrokan. Aldi berean, horietako askok beren burua boluntario gisa eskaini zuten, adinagatik edo gizarte-egoeragatik egoera berriari bakarrik aurre egiteko zailtasunak zituzten pertsonen laguntzeko.

Hala ere, ezin diot garrantzirik kendu gazteen eta helduen gutxiengo baten arduragabekeriari. Nire familia-inguruari begiratuta badakit gazte gehien-gehienek jarrera horiek arbuiaitu dituztela, eta gazteria orokortzeko jarrera bidegabeen aurka daudela; izan ere, gazte gehienak erantzukizunaren adibide izan dira.

Argitalpen honen bidez, alde batetik, gazteriaren ikuspegi sinplista horretatik harago joan nahi da, hau da, kolektibo horrek bere ekintzek gizartean dituzten ondorioak kontuan hartu gabe dibertitu besterik egin nahi ez duelako ikuspegi horretatik ihes egin nahi da; bestetik, pandemiak gazteen bizitzan izan dituen ondorioen pertzepzioa osatu nahi da. Gazteek eman digute beren iritzia, baina orain, hainbat gizarte-eremutako adituek (hezkuntza, enplegua, osasuna, aisia, kultura, etab.) emango digute beren ikuspegia.

Egungo egoera honetan, ezinbestekoa da diziplina anitzeko ikuspegia izatea, errealitatea hobeto ezagutzen saiatzeko eta EAEko gazteei beren bizitzarekin eta proiektuekin aurrera egiten laguntzeko. Gure eginbeharra etorkizuna zaintzea da, hau da, gure gazteria zaintzea.

Beatriz Artolazabal Albeniz
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua

HITZAURREA


Covid-19aren pandemiak aldaketa sakonak ekarri dizkio gure gizarteari, besteak beste, lan egiteko, ikasteko, harremanak izateko, gure aisialdiaz gozatzeko moduari dagokionez. Aldaketa horiek egiteko moduei ez ezik, pentsatzeko eta sentitzeko moduei ere eragin diete.

Gazteen Euskal Behatokiak hainbat ikerketa egin ditu bizitzen ari garen une berezi honetan pandemiak eta horrek ekarri dituen aldaketek eta murrizketek gazteei nola eragin dieten aztertzeko, baita zein izan diren haien kezka nagusiak, ohitura- eta errutina-aldaketak, sentimenduak, iritziak eta abar aztertzeko ere. Halaber, gazteei galdetu diegu epe laburrera zein itxaropen dituzten. Ikerketa horiei guztiei esker dakigu gazteek nola bizi izan dituzten eta bizitzen ari diren pandemiak ekarri dituen uneak, eta bereziki, etxeko konfinamendua, konfinamendu perimetrala eta ordutegi-murrizketak.

Baina Gazteen Euskal Behatokitik gazteek beraiek esaten zigutenetik harago joan nahi genuen, eta beste proiektu desberdin bati heldu diegu, baina antzeko helburuarekin: pandemiak gazteen bizitzan nola eragin duen ezagutzea. Horretarako, hainbat arlotako espezialistek osatutako talde bati eskatu diegu iritzia emateko honako hauei buruz: pandemiak beren jakintza-esparruan izan duen eragina EAEko gazteengan, eta etorkizunean aurreikusten diren ondorioak, arazoak, erronkak edo aukerak.

Pertsona horiek beren iritziak eta gogoetak eman dizkigute, guztiak oso interesgarriak eta, aldi berean, elkarren osagarriak, ikuspegi orokorra emateko. Doako eta interesik gabeko lankidetzat izan da, kasu askotan erloju kontra egindakoa, horietako askok lan-karga handia izan baitute data horietan. Horregatik, izugarri eskertzen diegu haien laguntza.

Argitalpen honetan biltzen dira, bada, pandemiaren eraginaz eta euskal gazteen egoeraz (2021ean) apur bat gehiago hausnartzen lagun diezaguketela uste dugun testu guztiak. Eskerrik asko Gazteen Euskal Behatokiarekin iritziak partekatu dituzten guztiei.



The background features a complex geometric pattern of thin teal lines. It includes several overlapping rectangles and large, stylized circular or semi-circular shapes that create a layered, architectural effect. The text is centered within one of the larger circular shapes.

ARTIKULUEN ZERRENDATA


GAZTEAK ETA PANDEMIA: ALBOAN GAZTE SAREKO BEGIRALE TALDETIK HAINBAT EKARPEN/ IRUZKIN

ALBOAN

Jesusen Lagundiak Euskadin eta Nafarroan duen
nazioarteko garapenerako lankidetzako GKEa



ALBOAN



Mundua eraldatzeko apustua hartu duten gazte talde desberdinez osatutako sare bat da Alboan Gazte Sarea. Talde horiek Alboan GGKEren kanpainen edukiekin trebatzen dira betiere gure gizartea Hegoalde-Globaleko prozesuekin lotuz. Gazte Sareak begirale talde bat du, 18 eta 25 urte bitarteko Euskadiko txoko desberdinetako 17 gaztez osatuta. Testu honetan Covid-19 pandemiak Alboan Gazte Sarearen begiraleen bizitzetan izan dituen eragin batzuk aipatzen dira, eta baita aldaketa horien ondorioek begiraleek etorkizunaz duten irudian duten eragina ere.

Argi dago begiraleek komunean ezaugarri asko dituztela: adinaz gain, munduan eta gizartean modu positiboan eragiteko nahia eta ekina nagusiki. Bestalde, Gazte Sarearen begirale taldea anitza da jatorri, kultura, erlijio eta beste hainbat ezaugarrien aldetik, eta errealtate desberdinak bizi dituzten neska-mutilek osatzen dute: batzuk unibertsitatean daude eta beste batzuk lanbide heziketan; batzuk Euskadin jaio

dira eta hemen dute familia, eta beste batzuk bide luzea egin dute hemen bizi aurretik familiarekin ala euren kabuz; kristau, musulman, agnostiko eta ateoak daude; enplegua dutenak, buru belarri ikasketa akademikoetan murgiltzeko aukera dutenak, eta baita enplegu formala izateko zailtasun administratibo itzelak dituztenak ere.

Baina, Gazte Sareko begiraleak “gazte” izateak zer esan nahi du? Adin kontua baino (18-25 tarte horretan kokatzen dira denak), adin tarte horrek berarekin dakartzan hainbat erronka dira etapa hau bereizten dutenak. Erronka horiek gure gizartearen ezaugarrien eskutik doaz eta bizitza proiektuak modu independentean garatu ahal izateko gakoak diren hainbat elementurekin dute harremana: ikasketak, enplegua, etxebizitza eta gizartean parte hartzeko aukerak nagusiki. Argi dago pandemiak modu zuzenean kolpatu dituela aurreko guztiak, begirale honen bizipenak erakusten duen bezala:

"Pandemiak niretzat eta nire etorkizunerako zer ondorio izan dituen galdetzen badidate, 180º-ko bira suposatu duela esango nuke. Ni pandemia aurretik independizaturat nengoen, etxetik kanpo ikasten. Unibertsitateak itxi zituztenez, kanpoko etxebizitza mantentzeak zentzua galdu zuen eta gurasoen etxera itzuli behar izan nuen. Horretaz gain, lehen ikasketetan nengoen murgilduta batez ere, lanen bat edo beste egiten banuen ere. Pandemia eta gero atera zaidan edozein lan hartu behar izan dut etxean lagundu ahal izateko, gurasoek ostalaritzan lan egiten dutenez diru sarrerak behera egin duelako. Nire buruari esan nion "gerorako utzi beharko dut nire ikasketekin zerikusia duen lana bilatzea, oraintxe bertan ateratzen zaidan guztia hartu behar dut". Orain independizatzeko aukera askoz urrutiago ikusten dut, eta dirua ateratzeko bideak bilatzen ari naiz batez ere. Alde positibo batzuk ere izan ditu: itxialdiak gorabehera jende ugari bajaran egon denez, ikasle zerrendetan jende gehiagoren beharra egon da eta hezitzaile bezala aritzeko aukera eskaini didaten lehen aldia izan da, nire arloan lan egin ahal izan dut lehen aldiz. Bestalde, heltzen eta nire burua gehiago ezagutzen lagundu dit."

Osasun mentalean ere nabaritu dira Covid 19aren ondorioak, baita gazteengan ere:

"(..) pandemiak, gainerako belaunaldiak bezala, osasun mentalean eragin du. Gauzak nola joango diren ez jakitearen ziurgabetasun etengabea bizi gara. Nire kasuan, ez dakit nolakoa izango den azterketa, ez dakit azkenean Erasmusetik joango naizen,

ez dakit Hawaiiirako bidaia egin ahal izango dudan, hirugarren aldiz atzeratu baitidate... asteburuan zer plan egin ahal izango ditugun ia ez dakigu, murrizketak egun batetik bestera aldatzen direlako. "Ez dakit" eta "egokitu eta dagoenarekin konformatu behar dut" egunerokotasunean bihurtu dira."

Pandemia gizarte osoak pairatu (eta pairatzen) duela badakigu ere, gazteei modu espezifikoan eragin diela ukazina da. Pandemiak gazteekin harreman zuzena duten hainbat prozesu eten edota hankaz gora jarri ditu, hala nola hasi berriak ziren independizatzeko prozesuak, edota ikasketak. Begirale gehienek jasan dituzte zailtasunak ikasketen arloan, unibertsitatean zein lanbide heziketan:

- Ikasketa hasiberriak edo erdibidean zituztenek, modu birtualean egindako klaseetan topatu dituzte euren buruak. Honi, arrakala digitalaz gain (gure taldean badira ordenagailuak ez dituzten gazteak, eta edozein konexio mugikorrez egin behar dutena, datuak erabiliz wifirik ez dutelako, horrek dakartzan muga guztiekin), hainbat ikasketa birtualki egiteak duen zailtasuna batzen zaio: adibidez, nola burutu sukaldaritza ikastaro egoki bat lehengai eta behar bezalako sukalde batera gerturatzeko aukerarik ez badago? Irakasle eta beste ikasleekiko harremanek jasandako kalteak ere aipamena merezi du.
- Amaitzear zeuden ikasle askok, unibertsitate zein lanbide heziketan, ikasketak burutzeko epea luzatzen ikusi dute, praktikak egiteko ezintasuna zela eta. Ikasketa

prozesu luzatzeaz gain, lana eskuratzeko prozesua bera luzatu du horrek. Praktikak egiteko aukera egon denean, askotan iraganbide baino ez dira izan, eta kalitate gutxiko edota oso mugatuak ziren esperientziekin konformatu behar izan dute askok.

- Begiraleen artean zorionez gertatu ez bada ere, badakigu ordaintzeko zailtasunak zirela eta, ikasketak bertan behera uztera behartuta egon diren gazteak daudela.

Adin tarte honetan oraindik independizatu ez diren gazte asko (gehiengoa halaber) familiarekin bizi dira. Lehen testigantzan ikusi bezala, horietako batzuk familiek izan dituzten zailtasunei aurre egin beharrean ikusi dute euren buruak. Hainbat komunikabideetan gazteak arduragabe bezala erakutsi badituzte ere (hasieran ume txikiei “gaixotasun-bektore” izatea egotzi zitzaien bezala), begiraleen kontaketek familiekiko solidaritate eta ardura erakusten dute:

“Eta kezkatuta halaber, zure senideak ondo egongo ote diren, kutsatuko ote diren, gauzak nola egin behar diren... (..) Estresa, ziurgabetasuna, senideak kutsatuko direlako beldurra sentitu dut... Eta amorrua ere bai, gazteoi beti egozten zaigulako gauzak gaizki egiten ari garela. Ehuneko txiki batek legeak eta betebeharrak betetzen ez dituelako orokortu egiten da, horrek gazte guztiak inplikutzen ez dituenean “

Badira ere familiaren babesa gertu ez duten gazteak gure gizartean, eta gure taldean. Gazte Sareko bi begirale pandemia garaian Bilboko hainbat gazte atzeritarrei bizitegi irtenbide

bat emateko antolatu zen Goazen proiektuan parte hartu dute, eta Bilboko Jesuitak-Indautxu ikastetxean bizitoki izateko moldatu duten hockey pistan bizi izan dira. Euskal gizartean integratzeko ibilbideak prestatu badira ere, COVID-19aren ondorioz ezarritako mugek gazte horien integrazio aukeren murriztea ekarri du: beste gazte batzuekin egoteko eta euskaraz edota gaztelania ikasi eta aritzeko aukerak oso urriak izan dira adibidez. Inklusiorako ibilbideak ere moteldu, atzeratu edota eten dira beraz pandemia dela eta.

“Gazte izatea zer den” horretaz ari garela, bada ere beste dimentsio bat, independentzia lortzeko bide materialekin hain lotuta ez dagoena: gaztetasuna bizi-une berezia bezala, bizitza intentsidadez eta helduek izan ohi dituzten ardurak eskuratu baino lehen gozatzeko aukera. Ideia hau ere azaldu da gure begiraleen artean:

“Gaia aipatu diet lagunei, eta, oro har, denok ados gaude pandemiak gure bizitzan urte oso baliotsuak “lapurtu” dizkigula esatean. Alde batetik, oso ohituta gaude gure gurasoen aldetik entzutera bizitzako urterik onenak unibertsitatekoak direla, eta gu bizi gabe geratu gara edo murrizketekin biziko ditugu. Oso azalekoa dirudi, baina denok uste dugu garai hau zela zoritxarrez biziko ez ditugun esperientziak bizitzeko garaia. Unibertsitateko egoitzen garaia zen, jende berria ezagutzekoa, festetan ibiltzekoa, leku berrietara bidaiatzekoa, Erasmus bat baldintza egokietan egitekoa... Unibertsitateko bizitza indibidualki ikastera mugatuta bizitzeak kolpe handia suposatu du. Egia da esperientzia horiek guztiak


etorkizunean bizi ditzakegula, baina une egokia orain zen."

Gazteek etorkizunaz duten eredia ziurgabetasunaz jantzi da. Etenak, atzeratuak edota mugatuak ikusi dituzten beraien bizitzako prozesuei gertatzen ari den krisi ekonomikoaren ondorioak batzen zaizkio. Etxetik irtetea pentsatzen ari zirenek aukera hori mugatuagoa ikusten dute, lan duina eskuratzea zailago ikusten duten heinean:

"gure lan-etorkizuna da gure kezkarik handienetako bat. Aspalditik genekien zaila genuela lan egonkor bat aurkitzea. Orain lan egonkor batean pentsatzea ia utopia bat da. Beraz, errazena ez pentsatzea da, eta uste dut asko azkenean ez pentsatzeko dinamika

horretan erori garela, errazena delako ez estutzeko."

Zalantzarik ez dago: Covid-19ak pobrezia eta desberdinkeria gorakada eragin du, bidegabekeria oinarritutako esturaturak dituen gure gizarte eta munduan aurretik ere zegoen arrakala areagotuz. Estruktura bidegabe horiek gazteak ere modu berezian kolpatzen ditu, euren gazte izaera beste ezaugarri batzuekin korapilatuz (generoa, klase soziala, hiritartasuna, arraza etb.). Testuinguru gogor honetan ere, beraientzako eta guztientzako Euskadi eta mundu justuago bat eraikitzen diharduten gazteak dira Alboan Gazte Sarearen Begiraleak. Gazte izatea ekintzaile izatea ere bada gure taldean.



EKIPAJE ARINAK

NATALIA ALONSO ALBERCA

Psikologia irakaslea EHUn



Gure gizartea, Historian lehen aldiz, inoiz baino maila globalagoan egokitu behar izan da aldaketa erradikal eta konplexuetara, eta hain denbora gutxian egin behar izan du, ezen hausnartzeko eta garai berrira ohitzeko astirik ere ez baitu izan. Lehen aldiz, zer ukitzen dugun, ez tula non egiten dugun eta espazio berean zenbat denbora egoten garen kontrolatu behar izan dugu. Lehen aldiz, ezin izan gara gure lagunekin elkartu, ezin izan diogu amonari bisitarik egin, eta jakina, ezin izan dugu elkar besarkatu. Lehen aldiz, aurpegia maskara batekin estali behar izan dugu, eta aldi berean, besteen aurpegi erdia galdu dugu.

Egoera horren aurrean, zer-nolako emozioak sentitu dituzu? Zer emozio sentitzen duzu egun hauetan, noiz eta pandemiaren erroak pixkanaka-pixkana urruntzen ikusi eta iraganean geratzen ari diren? Zer emozio sentitu zenuen lehen une haietan, pandemiaren erroek oraina eta etorkizuna zapaltzen zutenean, itxialdiko garai arrotz hartan?

Planeta osoko gizakiei galdera horiek egin zaizkienean, eta haien izaera soziala, adina eta generoa alde batera

utzita, larritasuna, ziurgabetasuna, kezka, antsietatea, gogaitasuna, apatia, frustrazioa, tristezia, amorrua eta beldurra sentitu dutela adierazi dute, baita zer esan jakin eza, harridura eta nahasmendua ere. Era berean, aurkako alderdi afektiboan, badira miresmena, samurtasuna, errukitasuna, harrotasuna, esker ona, patxada, maitasuna, itxaropena, etab. sentitu dutenak ere.

Horien artean zein emozio gailendu diren eta zer-nolako intentsitatearekin bizi izan ditugun, horrek baldintzatuko du gure bizitzako garai hau gogoratzeko modua. Izan ere, sentitzen ditugun emozioak iragazki bat dira, eta horien bidez, gertakariak esanahi zehatz bat hartzen dute.

Pandemian izan dugun esperientzia emozionala sakonago aztertuz gero, zera esan dezakegu, emozioek garai (bat-bateko, luze, bortitz) honen ondorioak baldintzatuko dituztela, eta ez hori bakarrik, emozio horiekin jarduteko dugun gaitasunak ere emozio horiek sortzen duten eragina baldintzatuko duela. Hau da, kontuan

izan behar da ea gaitasun hauek abian jarri ditugun: emozioei arreta eman; emozioei azaleratzen utzi eta emozioak onartu, ukatu gabe; gure emozioak beste pertsona batzuekin partekatu, nahiz eta formatu ez oso ohikoetan egin eta murriztapenak eman dizkiguten aukeren arabera; sentitu dugunaren gainean hausnartu; eta jakina, barrua hartzen ziguten eta aurrera egiten uzten ez ziguten emozioak kudeatzeko ekintza kontzienteak martxan jarri, bai eta adarrez eta arantzez jositako bide honetan arinago mugitzen lagundu diguten beste emozio horiek indartzeko ekimenak ere abian jarri. Hau da, kontuan izan behar da ea gure adimen emozionala abian jarri dugun, alegia: emozioen bidez jasotzen dugun informazioa prozesatzeko gaitasun-multzoa abian jarri dugun, eta informazio hori gure ongizatea sustatzeko moduan erabili dugun. Adimen-mota hori pandemiaren ondore emozional negatiboak mugatzeko aliatua da, eta hura erabiltzen dutenek garai honetako egoera bortitzei aurre egiteko laguntza izango dute.

Emozioak hautemateko, emozio horien eta horien arrazoen eta ondorioen gainean hausnartzeko gaitasunak zein haiek kudeatzeko gaitasunak ere bizi osoan zehar garatzen dira, eta gaitasun horiek, zorionez, edozer alditan hobetu daitezke. Nerabezaroa eta gaztaroa une berezia izaten da nerabeen eta gazteen adimen emozionala garatzeko eta sendotzeko.

Izan ere, haurtzaroan, emozioak hautemateko, ulertzeko eta erregulatzeko gaitasunak hobetu egiten dira pixkanaka eta etengabe, etorkizuneko garapenaren oinarriak ezarri; nerabezaroan, aldiz, gaitasun

horien alderdi batzuk hondatu egiten dira. Hain zuzen ere, eta bitxia bada ere, nerabezaroan, emozioak ezagutzeko gaitasunak okerrera egiten du, ulermen emozionala asaldatu egiten da eta nerabeek zailtasun gehiago izaten dituzte emozioak erregulatzeko. Badirudi nerabeak ahaztu egiten dituela iraganean bere edo beste pertsona batzuen emozioak kudeatzeko erabiltzen zituen estrategiak. Azterketa baten aurrean antsietatea izatean, lagun batekin haserretzean edo atsekabe-egoera batean tristezia izatean aurre egiten laguntzen zieten ekintzak eta pentsamenduak abian jartzeko gai ziren neska eta mutilen gaitasun emozionalen zati bat gal dezakete nerabezaroan. Baina egoera hori iragankorra da, eta aurreko urteetan oinarri sendoak ezartzen badira, gaitasun emozionala berreskuratzea izaten da ohikoena. Aurrez eskuratutako beste gaitasun batzuekin gertatzen den moduan, nerabezaroan, gaitasun horiek guztiak proban jartzen dira, eta nerabeek, ikasitako gidalerro horien aurrean erratu eta aldendu ondoren, azkenean, gidalerro horiek berezko moduan berretsi eta berriz ere aplikatzen dituzte. Prozesu horretan, profesionalen eta erreferentziazko beste pertsona heldu batzuen laguntza eta begirunea izatea funtsezkoa izaten da.

Gaztaroan, adimen emozionaleko gaitasunak berrezarri egiten dira hein handi batean, eta gaitasun horiek hobetu egiten dira, bizi-esperientzia zabal, aberats eta askotariko berriei eta independentzia emozionala etengabe eskuratzeari esker. Helduaroko lehen urteetan, gaitasun emozionala finkatu egiten da, hau da, egoerak eta pertsonak gero eta gehiago hautatzen dira, haiekin lotutako esperientzia emozionalaren

arabera. Era berean, erabiltzen diren estrategia-motak eta -kopurua ere handitu egiten dira; izan ere, estrategia horien efizientzia ebaluatu ondoren, emozioak erregulatzeko estrategien katalogo pertsonalean sartzen dira.

Nerabeak, gazteak, pandemia honen subjektu jasaileak... Kolektibo horiekin eta horientzat lan egiten dugunok galdera hauek egin ditzakegu: zer emozio sentitu dute?, norekin eta nola adierazi dituzte?, zer emozio hauteman dute harremanak izan dituzten pertsonengan?, nola kudeatu dituzte emozio horiek?, kasu partikularrak ezagutzen ditugu?, ba al dakigu benetan zer neurritan aplikatu dituzten emozioak kudeatzeko eskuragarri zituzten gaitasunak?


Gazte eta nerabe gehienek adimen emozionala erabiltzen jarraitu dute konfinamendu-garaian, bai eta murrizketen ondorengo hilabeteetan ere. Emozioak sentitzen jarraitu dute, bai eta emozioen adierazpenak esperimentatzen eta adierazpen horiei aurre egiten ere. Baina, era berean, harreman sozialak eta afektiboak aldatu egin zaizkie, bai eta mugikortasuna, independentzia, lana, ikasketak eta oraina bizitzeko eta etorkizuna proiektatzeko askatasunaz baliatzeko aukera ere. Horrek haien emozioei eragin die, gogo-aldarteari eta, aldi berean, baita haien gaitasunak abian jartzeko aukerei ere. Horren aurrean, batzuek, modu inkontzientean, hibernazio afektiboa aukeratu dute, emozioen beroa garai hobeagoetan sentitzeko zain –eta, zain ere, modu inkontzientean egon dira–. Beste batzuek, oreka berrezartzeko eta absentziak presentzia berriekin ordeztuko bideak bilatu dituzte,

esaterako: beren burua hobeto ezagutzen saiatu dira, familiartekoekin denbora (atsegingarri) gehiago eman dute, edo mundu osoko gazteekin ziberaurkitu dira, agerian utziz partekatze soziala emozioak kudeatzeko estrategia izarra dela. Gazte batek hibernatzea edo aukerak zabaltzea aukeratu duen lehenbailehen argitu behar da. Denek jasan dute gaitasun emozionala gauzatzeko eragina. Hala ere, beren gaitasun emozionalaren sistema gelditzea aukeratu dutenek, sistema hori garatzeko aukerak ere gehiago mugatu dituzte, eta gaitasun emozional horiek berrezartzeko zailtasun gehiago izango dituzte; izan ere, gaitasun horiek erabiltzen ez direnean, gelditu egiten dira edo atzera egiten dute.

Gazteekin eta nerabeekin gure lana egiten jarraitzeko modu berriak asmatu behar izan ditugunok, hau da, espazio berriak, une berriak eta modu berriak bilatu behar izan ditugunok, haien adimen emozionala aktibo mantentzen lagundu behar dugu, gaitasun hori beharko duten uneetarako prest izan dadin. Emozioei hitzak jartzen lagundu behar diegu, hau da, emozioak partekatzen eta hainbat bideren bidez adierazten lagundu behar diegu. Egiten dituzten ahaleginak egokiak direla ebaluatzen lagundu behar diegu, bai eta egoerei aurre egiteko erabiltzen dituzten moduek hobeto sentitzen laguntzen ote dieten balioesten ere. Era berean, hainbat estrategia aberastu eta entrenatu ditzakegu, haien emozioen errepertorioa zabal dadin eta emozioak kudeatzeko orduan aukera gehiago izan dezaten. Are gehiago, adibide aktibo bat izan gaitezke: esperientzia emozionalari jartzen diogun arretra indartu dezakegu, esperientzia horri

ikuspegi orekatu baten bidez aurre egiteko; esperientzia horren arrazoiak, ondorioak eta pertsonen arteko aldeak gainean hausnartu dezakegu, etab. Eta azkenik, gure errealitatearekin, gainerako pertsonekin eta, ikusi dugun moduan, bizitzea gerta dakigukeen egoera konplexu askorekin topo egitea sustatuko duten ekintzak jar ditzakegu abian.

Horrela, gazteei eta nerabeei beren bizitzako hurrengo etapara igarotzen lagunduko diegu; eta, horrela, konfiantza izango dute oreka lortzeko eskura dituzten aukeren gainean, gaitasun emozionalak ematen dien kontrol erlatiboari esker. Ekipaje arinak.




PANDEMIAREN ONDORIOAK GAZTEENGAN. EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUAREN HAUSNARKETA

MAITE ALONSO ARANA

Euskadiko Eskola Kontseiluko lehendakaria





1. Kontseiluaren jarduerak pandemiari dagokionez

Euskadiko Eskola Kontseiluak hiru komunikatu zabaldu ditu, eta lehenengoan nabarmendu du hezkuntza-komunitate osoak ahalegina egin duela ustekabeko egoera ezezagun bati nahi eta nahiez egokitzeko. Halaber, aitortu du ikasleak gai izan direla etxean egoteko, ikastetxearekin konektatuta jarraitzeko eta irakasleek agindutako zereginei eta orientazioei erantzuteko, ahal duten neurrian.

Bigarren komunikatuan, kontseiluak ohartarazi du beharrezkoa dela banakako diagnostikoa egitea ikasturte berrian irakasleen esku-hartzea antolatzeko, batez ere errefortzuak behar direnean. Era berean, arreta berezia jarri du presentziala ez den aldiaren osteko harreran, bai eta egoera emozionala zaintzean ere. Ingurune jakin batzuetan euskararekiko harremana mugatu delakoan dago kezkatuta, eta nabarmendu du hutsuneak egon direla baliabide digitalei eta euren

erabilerari dagokienez. Curriculumak oinarrizkoetara eta ezinbestekoetara egokitzea proposatzen du, eta ebaluazio-irizpideak argi eta garbi definitzea ekitatearen berme gisa.

Hirugarrenean, kezka azaldu du ikasteko ohitura faltaren ondorioz gaitasunak lortzeko desberdintasunetan izan dezakeen eraginagatik, eta ohartarazi du pandemiatik harago hezkuntza hobetzen laguntzen duten alderdiak berrikusteaz eta hobetzeaz (ekitatea, euskara, besteak beste).

2. Irakasleek ikasleei buruz duten iritzia

Kontseilua sare publikoko irakasleen ordezkaritza batekin harremanetan jarri zen ikasturte amaieran, pandemiak ikasleengan izan duen eraginari buruz zer iritzi duten jakiteko.

Aipatutako gabeziak familia batzuen egoera sozioekonomikoekin eta egiturazkoekin lotuta daude, eta, beraz, ahulenak izan dira ikasle kaltetuenak.

Baliabide faltak (azpiegitura egokia, gailuak, Wifi konexioa), familia eta lana uztartzeak, eskolako lanetan laguntzeko zailtasunek eta hizkuntza-hesiak, besteak beste, eragina izan dute egoera horretan.

Bigarren Hezkuntzan, zenbait kasutan zailtasunak antzematen dira ikasketak eta lanak egituratzeko, eta, beraz, ikaskuntza azalekoagoa izan daiteke. Teknologia berriak kritikoki erabiltzeko gaitasun falta ere badago. Interakzio sozialik ezak eragina izan ahal izan du euren egoera emozionalean, eta, kasu batzuetan, ikasketarekiko pasibotasuna eta motibaziorik eza eragin ditu.

Indargune gisa nabarmentzen dira erresilientzia, teknologiaz jakitea eta egokitze gaitasun handia. Oro har, ondo erantzun diote irakasleekiko hezkuntza-harremanari, eta autonomia-maila handiagoa erakutsi da. Gainera, bullying-ak behera egin du.

Bizitako esperientziak gaitasunak ikasteko eta garatzeko iturri aberatsa izan dira, gatazkak konpontzeko, autorregulatzeko, malgua izateko, arduratsua izateko eta abarrerako gaitasuna sustatze aldera.

3. Ikasleen iritzia

Kontseiluak jarduera bat antolatu du DBHko 4. mailako, Batxilergoko 1. eta 2. mailako ikasleen iritzia ezagutzeko. Egiaztatu da ikastetxe desberdinetatik datozen arren, kezka eta bizipenak oso antzekoak izan direla. Hona hemen beren iritzien laburpena:

- Pandemiak aldaketa handia ekarri du euren bizitzetan, batez ere gizarte-harremanenetan: ikastetxean ezin egoteak, eskolaz

kanpoko jarduerak edo kirola ezin egiteak, distantzia sozialak, maskara erabiltzeak, talde mugatueta batzeak, askatasunik ezak eragin emozional eta psikologiko desberdina izan dezake pertsona bakoitzarengan, tristura, estresa eta atsekabea sentitzeko moduan. Senitartekoeekin, aitona-amonekin eta beste lagun batzuekin harremanetan egon ez izana igarri dute, eta sare sozialek bizitzetan duten eraginaz gehiago jabetzen dira.

- Ondorio positiboak izan ditu, dutena baloratzen ikasi baitute: “Galduta arte ez dugu estimatzen” diote. Gainera, dibertitzeko beste modu batzuk asmatu dituzte, alegia, gehiago irakurtzea, sukaldaritza... eta harremanak izateko beste modu batzuk aurkitu, adibidez, bideo deien bidez, etab.
- Hezkuntzaren arloan, gehienek uste dute ez duela eragin negatiborik izan emaitza akademikoetan, baina adierazi dute zenbait ikaskuntzatan ez dela sakondu, ez dela jarduera praktikorik egin (laborategikoak adibidez), eta ezagutzak ahuldu ahal izan direla. Hori dela eta, ikasturtean zailtasun-gehigarri bat izan dute egunean jartzeko, batez ere Batxilergoko 1. edo 2. mailara igaro diren ikasleek.
- Klase telematikoetan arreta eta kontzentrazioa mantentzea zaila dela adierazten dute, eta, kasu batzuetan, etxean baliabiderik ez daukatela (wifia, etxeko guztientzako ordenagailuak, etab.). Aipatu den beste alderdi bat da orientazio txikiagoa jaso dutela,

adibidez, Batxilergoko modalitateak hautatzeko.

- Onartzen dute egokitzeko gai izan direla. Autonomoagoak eta arduratsuagoak izaten ikasi dute, lana irakasleen etengabeko laguntzarik gabe antolatu behar izan dutelako.
- Familien babesa sentitu dute, nahiz eta aipatu duten osasun-arloan lan egiten duten gurasoak dituztenek egunak igaro dituztela gurasook ikusi gabe. Beti izan dute lagunen babesa, eta, oro har, irakasleena, baina irakasleen artean aldeak daudela adierazi dute, batzuek teknologia berriak erabiltzeko gaitasunik ez dutelako.
- Krisi honetan, euren burua hobeto zaintzen eta higiene pertsonala baloratzen edo familiekin denbora gehiago igarotzen ikasi dute, nahiz eta zaurgarriago sentiarazi; bakartiago sentitu dira eta bizitzaren mugez eta mehatxuez pentsatu dute.
- Uste dute ikasi dutela arazoak erlatibizatzen eta presioari aurre egiten, enpatikoagoak izaten, pentsamendu kritikoa sustatzen eta ingurumenarekiko kontzientziario handiagoa izaten.

Bestalde, kexu dira errua gazteei egotzi dietelako, eta uste dute beharrezkoa dela ikasle guztiei beharrezko baliabideak bermatzea inor atzean gera ez dadin.

Bertan dauden ikasle guztiek nahiago dute aurrez aurreko hezkuntza.

Azkenik, arazoei aurre egiteko erantzukizun kolektiborako deia egin dute: “Denok batera egiten badugu bakarrik geldituko dugu”.

4. Zenbait datu Irakaskuntza presentziala. Gela itxiak

Ikasturte hau amaitzear dagoela, irakaskuntza presentziala bermatu da, eta segurtasun-protokoloak bete dira. Ia ez da ikastetxerik itxi, eta ikasgelen ehuneko oso txikia dago unean-unean itxita.

Emaitza akademikoak

Aurreko ikasturtean, mailaz igotzeko ehunekoak hobetu ziren DBHn, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan.

Ikasturte honetan borondatez egindako ebaluazio diagnostikoak pandemiak ebaluatzen diren gaitasunen emaitzetan duen eraginari buruzko datuak emango ditu.


Eskola barruko jazarpena

Jaitsi egin da 2019/20 ikasturtean, eta txikiena izan da 2008/09 ikasturteaz geroztik. Kasu guztien % 25 ziberjazarpen-kasuak dira.

5. Etorkizuneko erronkak

1. GJHen (Garapen Iraunkorraren Helburuak) esparruak hainbat erronka sustatzen ditu, hala nola iraunkortasuna eta herritartasun globala. Erronka horiek baliozkoak dira ikasleen autonomiaren garapena indartzeko, bizikidetzarako erantzukizunera bideratuta. Funtsezkoa da sormena sustatzea, emozioak

- ulertzen laguntzea, pentsamendu kritikoa erabiltzen laguntzea, gainerakoekin eraikitzen laguntzea, etab. Bizi izan dugun egoeraren aurrean, ziurgabetasunean eta ziurgabetasunerako hezi behar dugu, ikasleei lagunduz euren burua ezagutu dezaten eta jakin dezaten arriskuren aurrean erreakzionatu behar dugula modu solidarioan eta parte-hartzailean.
2. Ekitatea eta bikaintasuna sustatzea kolektibo ahulenetan, bereziki euskarazko hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren eta gaitasun digitalaren garapenean, mendekotasuna eta ziberjazarpena saihesteko autoerregulazioa barne; baliabideak hornitu eta erabiltzeko garaian, beste erakunde eta entitate batzuk kontuan hartzea, ikastetxeen esparruan edo horietatik kanpo.
3. Adin eta jatorri desberdinetako ikasleen arteko topaketak areagotuko dituen antolaketa malguagoa sustatzea, elkarrekintza handiagoa sustatuz eta ikaskuntza kooperatibo eta solidarioarako baterako proiektuak garatzeko aukera sustatuz.




COVID-19AREN KRISIAK DIBERTSITATE FUNTZIONALA DUTEN GAZTEENGAN IZANDAKO INPAKTUA ETA ETORKIZUNeko ERRONKAK: GAZTE HORIEK ETA BEREN FAMILIEK IZANDAKO BIZIPENEN BIDEZKO HURBILKETA BAT

ÁLVAREZ LLORENTE, NAGORE; ORDOÑEZ GÓMEZ, BLANCA; SAN CRISTÓBAL GARAMENDI, RUTH; SÁNCHEZ GARIGORTA, ITZIAR

AMESTEN, Bizkaian aniztasun funtzionala duten pertsonak
gizarteratzearen alde lan egiten duen elkarte





Hitzaurrea

Gaurko osasun-krisia erronka handi bat izan da gizarte osoarentzat. Denok egin dugu ahalegin oso handia egoerara egokitzeko, eta horrek ondorio psikologikoak eta bizipen eta ikaskuntza askotarikoak ekarri dizkigu. Egoera horrek errealitate ezberdinei nola eragin dien ezagutu behar da, eta bereziki, kalteberatasun handieneko egoeretan egon daitezkeenei, esaterako, dibertsitate funtzionala duten gazteei. Artikulu honen helburua hausnarketa bat eta hurbilketa bat egitea da, Covid-19aren pandemiak dibertsitate funtzionala duten 18 eta 25 urte bitarteko gazteei zer-nolako eragina sortu dien ezagutzeko; eta batez ere, egoera honek pertsona horien gizarte-inklusiari nola eragin dion aztertzeke, aisia- eta komunitate-jardueretan parte hartzeari dagokionez. Horretarako, metodologia kualitatibo bat erabili da, eta desgaitasunen bat duten gazteei eta beren familiei elkarrizketak egin zaizkie. Elkarrizketa hauen helburua hainbat alderdiren gainean

izan dituzten esperientziak eta iritziak ezagutzea izan da, esaterako, Covid-19a zer den, lagunarteko harremanak, zer-nolako emozioak izan dituzten edo etorkizuneko erronkak. Gainera, hainbat ondorio ere atera ditugu, eta hori egiteko, elkarrizketa hauek jasotako ekarpenak, eta dibertsitate funtzionala duten gazte hauei laguntzeko eta horiek gizarteratzeko izan dugun esperientzia ere hartu ditugu oinarri. Elkarrizketak mugatuak izan dira; beraz, iritzi hauek ez dagokie, orokorrean, dibertsitate funtzionala duten gazte guztiei eta haien familiei.

Pandemiaren ulermen maila

Artikulu idazteko, dibertsitate funtzionala duten gazteek honako neurri hauek zenbateraino ulertzen dituzten neurtzea garrantzitsua iruditu zaigu: zer da pandemia, zergatik ezarri dira murriztapenak eta zergatik hartu behar izan dira beste hainbat neurri, esaterako, udalerritik ez ateratzea edo maskara eramatea.

Orokorrean, dibertsitate funtzionala duten gazteen artean, imitazio-jarrerak edo ikasitako esaldiak ikusi dira; baina sakontzea edo beren hitzekin azaltzea eskatu zaienean, den-dena ez dutela ulertzen hauteman ahal izan da. Esan behar da, aurreko hori neurri handiagoan edo txikiagoan gertatzen dela desgaitasun-motaren arabera. Hauek dira jaso diren erantzunen arteko batzuk, bai gazteen zein beren familien artean ere:

Dibertsitate funtzionala duten gazteen erantzunak

“Covid-a dela eta. Covid-a dela eta eraman behar da maskara. Zomorro bat da.”

“Birus oso kutsakor bat dabil, eta duela urte eta erditik maskara eraman behar dugu elkarren artean ez kutsatzeko.”

“Birus honek maskara eramatera behartzen gaitu. Birusarengandik babesteko eramaten dugu maskara.”

“Ez dakit, ez dakit. Maskara eraman behar da koronabirusa dagoelako, baina ez dakit zer den. Gogaikarria da.”

“Itxialdian egotea; gaixorik geratzen zara. Koronabirusa koronabirus bat da. Maskara eraman behar da, ez dut ondo ulertzen zergatik.”

Familiartekoen erantzunak

“Uste dut ez duela benetan ulertzen zer den.”

“Ulertzen du zer den, ahal duen heinean.”

“Gaixotasun kutsakor bat dagoela

ulertzen du, eta neurriak, batez ere, imitazioz jarraitzen ditu, eta ez neurrien zertarakoaz jabetzen delako. Agian, gehien barneratu duena maskara izan da. Bestela, ez dio inolako arretarik jartzen ukitzen duenari eta ondoren eskuak garbitu behar izanari. Beste batzuetan, gela ematen du beharrezkoa ez izan arren... Bere anai-arrebak konfinatuta izan direnean, badaki ezin izan direla logelatik atera; baina ez da egon modurik bainugela bera ez erabiltzeko, esaterako.”

“Gaixotu egiten zarela ulertzen du, baina ez du ulertzen gaixotasuna zenbaterainoko larria den.”

“Uste dut baietz, badakiela arduraz jokatu behar dela, eta bestela, gaixotu egin daitekeela.”

Aldaketak pertsonen arteko harremanetan

Dibertsitate funtzionala edo desgaitasuna duten gazteen erantzunak:

“Pandemia garaian, ezin izan nuen beste lagun batzuekin Gaztelekuan parte hartu, eta ezin izan nuen ez antzerki-eskolara joan, ez komiki-eskolara joan, ez eta kideekin eskolara aurrez aurre joan ere.”

“Lehen kanpinera joaten nintzen eta oso ondo ibiltzen nintzen; baina orain ez naiz joaten. Oso gaizki iruditzen zait, nire hango lagunak asko botatzen baititut faltan.”

Hala ere, aldeak nabarmendu dira dibertsitate funtzionalik gabeko gazteen aldean. Hona hemen familia batzuen iritzia:

Nire semea bere familiaren menpe dago, bai eta erakundeek bere jarduerak egiten uztearen menpe ere. Beste gazteek, arauak bete (ala ez), koadrilararekin batu eta jarduerak egin ahal izan dituzte.”

“Desgaitasunik ez duen anaiak murrizketen ondorioak jasan behar izan ditu baita ere, gainerakoek moduan; baina nire ustez, desgaitasuna dutenentzat zailagoa izan da, lagunekin geratu, bakarrik paseatu, eta abarri dagokionez.”

Beste familia batzuk, aldiz, iritzi hauek dituzte:

“Bada, esango nuke nire beste seme nerabearentzat zailago izaten ari dela, agian gehiago jabetzen delako egoeraz. Lagunekin egon ezin izana, eskolak online eman behar izana, konfinamenduak egin behar izana, eta batez ere, entrenatu ezin izana, horrek guztiak lur jota utzi du; oraintxe hasi zaio buelta ematen. Agian, bere kasuan, epe luzeagoan iraungo du, ziurrenez oraindik ere adierazi gabeko gauzak izango baititu. Bai, erabateko ulertezintasun uneak izan dira, eta gainera, ez dugu jakin izan erantzuten, ziurgabetasun hau guztia eta egun batetik besterako aldaketak kontuan hartuz.”

“Desgaitasuna dutenek aisialdi gutxiago izan ohi dute, batez ere gaueko aisialdia. Nire ilobek bere adina dute, eta aisialdi-mota hori bota dute faltan, bai eta elkarretaratze handiak ere.”

Covid-19aren krisiaren ondoren, agerian geratu da zer-nolako garrantzia duen

gazteek beren udalerrian bertan lagun-sareak izateak. Dibertsitate funtzionalik gabeko gazteek, gehienetan, babes- eta lagun-sare bat izaten dute udalerrian bertan; baina, aitzitik, dibertsitate funtzionala duten gazteen lagunak gutxi izateaz gain, udalerrian bertan izan daitezke, edo ez. Hori hala izatearen arrazoa, neurri handi batean, zera da, dibertsitate funtzionala duten pertsonen harremanak eta adiskideak, gehienetan, desgaitasuna duten pertsonentzako erakundeetan garatzen direla, eta kideekin aisialdiko jarduerak partekatzeak, jarduera horiek erakunde horietan egiten direla eta bertan parte hartzen dutela. Erakunde horietako askok aisialdi-zerbitzuak murriztu edo eten egin behar izan dituzte pandemia dela-eta; ondorioz, dibertsitate funtzionala duten pertsonen parte hartzeak eta harremanak izateko aukerak zaildu egin dira.

Hori ulertzea oso garrantzitsua da. Izan ere, horrek agerian uzten du pertsona horiek ez dutela gizarte-inklusiorik udalerrian eskaintzen diren aisialdi-jardueretan edo udalerriko bizitza komunitarioan. Udalerrri gehienek ez dute laguntza nahikorik ematen eskaintzen diren jardueretan berdintasun-baldintzetan parte hartu ahal izateko. Horregatik, itxitura perimetralen ondorioz, dibertsitate funtzionala duten gazteei gehiago murriztu zaizkie pertsona arteko harreman-aukerak.

“Anaiak, adibidez, harremanak izaten jarraitu du lagunekin; baina itxitura perimetralak direla eta, berak ezin izan ditu bere lagunak ikusi, beste herri batzuetan bizi direlako.” (Familiarteko baten erantzuna)

Inpaktu psikologikoa

Orokorrean, haxe da elkarrizketatu diren pertsonen erantzun dutena galdera hauen aurrean: Nola sentitzen zara? Sentimendu hori bizitzen ari garen egoerarekin lotzen duzu? Erantzunak ikusirik ondoriozta daitekeenaren arabera, hauek izan daitezke pandemiaren ondoriozko eragin psikologiko batzuk: urduritasuna, frustrazioa, amorrua, beldurra edo tristezia.

Dibertsitate funtzionala edo desgaitasuna duten gazteen erantzunak:

“Urduriago nago; egoerak hala jarraitzen badu, agerraldi asko izango dira, baita beste alarma-egoera bat ere. Gauzak ez dira lehen ziren bezala, eta faltan botatzen ditut.”

“Urduriago eta tristeago nago; gauzak ez dira lehen ziren bezala eta faltan botatzen ditut.”

“Larritu egin nintzen nire eskolako kideak eta nire zaintzailea kutsatu egin zirela jakin nuenean, ni kutsatu nintekeelakoan.”

“Amorrua sentitzen nuen ezin bainuen ezer egin. Gaztelekua itxi egin zen eta jarduerak bertan behera utzi behar izan ziren.”

Familiartekoen erantzunak:

“Hasieran oso pozik zegoen, elkarrekin geundelako etxean; baina denbora igaro ahala, oso astuna egin zaio.”

“Iaz, konfinamendu-garaian, nahiko aztoratuta egon zen. Eskola zegoen

bitartean ondo zegoen, entretenituta zegoelako; baina gero, atera egin nahi zen, eta atera egin ahal zenean eta ateratzeko baldintzak zein ziren ikusi zuenean, orduan, ez zuen atera nahi izan.”

“Ez du nahi etxetik atera, beldur da.”

“Badira beste mutil batzuk, nire semearen lagunak direnak, zailtasun gehiago izan dituztela, esaterako, antsietatea, depresioa edo berriz ere konfinatuta izateko beldur pixka bat obsesiboa. Egoera honetan, denok sentitu gara pixka bat isolatuago; baina tresna edo gaitasun sozial edo komunikatzeko gaitasun gutxiago dituztenek, emozionalki okerrago egoten dira eta ez dute beti egokiro komunikatzen jakiten.”

Erronkak pandemiaren aurrean

Osasun-krisi honek agerian utzi du sistemak zer-nolako akatsak dituen pertsona guztien giza eskubideak betetzen direla bermatzeko. Dibertsitate funtzionala duten pertsonen isolamendu gehiago jasan behar izan dute, eta beren premietara egokitzen den informazio-faltaren eta gertakari hauen ondorioz, estres psikologikoko egoerak izan dituzte, egoera honek sortu dituen berezko beste egoerez gain.

Esaterako, konfinamendu-garaian, eten digitalaren ondorioak gehiago hauteman dituzte, eta ez soilik hezkuntza mailan; izan ere, dibertsitate funtzionala duten gazteen gizarte-inklusioa zaildu egin du eten digitalak. Nerabezaroa norbere identitatea eraikitzeko berebiziko unea izaten da; izan ere, harremanek, batez ere parekoekin sortzen direnek, garrantzi handia izaten dute. Interesak eta

motibazioak oinarri harturik, nerabeak bere espazioa, kidego-taldea eta lagunak bilatzen ditu. Gaur egun, sozializatzeko prozesu hori sare sozialen bidez ere egin daiteke.

Berebiziko garrantzia du geure buruari galdetzea zer erronkari aurre egin behar diogun dibertsitate funtzionala duten gazteak egoera honetan ahalik eta ondoen bizi daitezen. Hona hemen familien eskutik jaso diren hainbat erantzun:

“Dibertsitate funtzionala duen gaztearen garapenerako oinarrizkoak diren gizarte-harremanak kontuan hartzea.”

“Harreman horiek kontuan izatea dagozkion jardueretan, gaztearen ahalmenak eta premiak kontuan hartuz.”

“Txertaketa, jakina. Txertaketari esker, bizitza sozial pixka bat gehiago egin ahalko dute, hainbeste arriskurik gabe.”

“Informazio argia eta objektiboa. Informazioa aldez aurretik jakin behar izaten dute aldaketak hobeto toleratzeko.”

Dibertsitate funtzionala duten pertsonek itxialdi soziala eta kulturala jasan dute. Pertsona hauen zaintza kontuan hartzeaz gain, ezinbestekoa da sozializatzeko eta komunikatzeko aukerak sortzea, haien ongizateari eta garapen psikosozialari laguntzeko. Desgaitasuna duten pertsonek maila guztietako gizarte-inklusioa izatea gure gizartearen erronka handietako bat da. Gizarte-inklusioa sustatzeko, helburu hau duen lan-metodologia hartzen dugu oinarri: pertsona guztiek aisialdi-jardueretan eta inguruneko parte-hartze komunitarioko jardueretan aukera-berdintasunean

parte hartu ahal izateko beharrezkoak diren laguntzak ahalbidetzea. Erronka handia, premiazkoa eta nahitaezkoa da, eta pandemia hasi denean are gehiago alboratu da; horrela azaldu dute, baita ere, elkarrizketatu diren pertsonek:

“Babes gehiago behar dugu gizartearen aukera-berdintasunean parte hartu ahal izan dezaten, gainerako gazteek bezala.”

“Denok dugu sozializatzeko premia; bada, desgaitasuna duten pertsonentzat, sozializatzeko beren mugarririk garrantzitsuena da. Beste gazte-talde batzuen aldean, ezin dute modu naturalean edota autonomoan sozializatu.”

“Funtsezkoa iruditzen zait gazteentzako programetan gizarte-inklusiorako aisialdia sartzea.”

Ondorioak


Ondorio gisa, dagoeneko existitzen ziren eta dibertsitate funtzionaleko gazteek dagoeneko esperimendatzen zituzten arazoak ageriago jarri dira eta gehiago ikusarazi dira pandemiaren ondorioz. Hona hemen arazo horietako batzuk: (1) beren premietara egokitutako informaziorik ez izatea; hori oztopo nabarmena da ustekabeko egoerak kudeatzeko orduan, edo aldaketetara egokitzeko orduan, kontuan hartuz egoera horiek zer-nolako inpaktu psikologikoa sortzen duten; (2) berdinen arteko babes-sarerik ez izatea udalerrian bertan; (3) bakartze sozial handiagoa izatea, besteak beste, eten digitalaren ondorioz; eta (4) dibertsitate funtzionala duten gazteek aisialdi-jardueretan eta komunitatean parte hartzeko jardueretan gizarte-inklusiorik ez izatea.

PANDEMIAN, BATETIK BESTERA. PANDEMIA BATETIK BESTERA

JOSEBA ANGULO ZALDUA

Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoa eta Kiroletako teknikaria





2020ko martxoa zen. 14a, oker ez banaiz. Bat-batean denbora gelditu zen. Etxean gera gintezen agindu ziguten, eta ordura arte garrantzirik eman ez, baina hain beharrezkoak genituen mugikortasuna eta elkarren arteko kontaktua ostu zizkiguten, beste zenbait gauzaren artean. Hamabostaldi bat pasa behar omen genuen etxeko zuloan sartuta, eta ahoa asmo onez bete zitzaigun: ganbaran hauts artean geneukan kitarra etxera jaitsi eta aspaldiko doinuak abesteari berrekin; errezeta berriak ikasteari edota, hain trebeak ez ginenon kasuan, pixka bat trebatu; irakurtzeko ere denbora hartuko genuen, baita idazteko eta gure barrenera begiratzeko ere. Gaitz hark pertsona hobe bilakatuko gintuela genion konbentzituta... Uste haietatik zerbait lortu dugun hausnartzeko astia hartzea ez letorkiguke gaizki.

Jarduera fisikoari ere eskaini genion tartetxo bat itxialdian. Batzuek zeukaten sasoi-fisikoa ez galtzeko; besteek galduta zeukaten sasoi-fisikoa berreskuratzeke; mugimendu

ezaren kalteak, fisiko zein mentalak, neurri batean leuntzeko zuk; atejoka geneukan udarako itxuroso egon nedin nik; online bazen ere, entrenamenduaren bidez tarte bat “elkarrekin” pasa genezan guk; eta hari, 24 ordu luzeak hain aspergarri egin ez zekizkion. Denok ginen jarduera fisikoak zekartzan onura anitzen jakitun, eta gogotsu ekin genion gure bizimodu berri hari. Beharbada, mugitzeko aukerarik izan ez genuen hartan mugitu ginen sekula baino gehiago. Eta horren adierazle da interneteko txoko ilunenetan ere kirol materiala agortu zela. Garaiz ibili ez ginenok buruari eragin behar izan genion: botilak pesa bihurtu genituen, jangelako aulkiak “step” eta komuneko paperari hamaika erabilera bilatu genizkion.

Egunean tarte batez, behintzat, hartu genuen zapatilak ondo lotu eta kamiseta izerdiz blaitzeko beta. Batzuek besteek baino gehiago, noski. Horren harira, ez nuke aipatu gabe utzi nahi ondorengo lerroburua: “Itxialdian

zehir jarduera fisikoaren praktika gehiago handitu da emakumeen artean. Pandemiaren aurretik laneko eta etxeko eginkizunek zein zaintza lanek eragindako denbora falta zen zio nagusia". Datuek erakusten dute genero arrakalak badiela espazioa eta denbora erabiltzeko ohituretan, etxeko lanen banaketan eta zaintza lanetan, eta koronabirusaren pandemiak ikusgarriago egin ditu. Sozietate gisa, badaukagu zertan pentsatu, eta baita zer aldatu ere.

Intentzio ona genuen, nahiz eta, akaso, ez behar beste ezagutza. Horregatik, informazio beharra daukagun gehienetan bezala, oraingoan ere sarera jo genuen. 21 egunetan lehiatzeko moduan jarriko gintuen mugikorrerako aplikazioa, 3 ikustaldirekin ipurmasailak gogortuko zizkiguten bideoak eta ez dakit zenbat yoga motetan "adituak" diren irakasleen gidalerroak topatu genituen. Ariketa ezberdinak hain eskuragarri eta doan izateko aukerak askotariko ekintzak egiteko parada eman zigun askori. Eta, orain, gogoeta kritiko bat (beste bat) datorkit burura: utziko genioke gure hortzen zaintza ikasketarik gabeko dentistari? Edo osasunaren ardura letra ulergaitza duen edonori? Ez, ezta? Bada, gure sasoi-fisikoa hobetzeko abdominal markatuak eta "like" ugari zituztenengana jo genuen / jotzen dugu sarri. Internet abantaila galanta da, bai; baina norberaren osasuna jokoan dagoenean, gaian adituak direnei egin beharko genieke kasu. Kontuan izan dezagun pertsona guztiak ez garela berdinak, gorputz, gaitasun eta behar ezberdinak dauzkagula, eta zuri ondo datorkizun entrenamendu berberak niri kalte egin dakidakeela. Halaber, ez dezagun pentsa Youtubeko 3 bideo

antzeratzearekin sasoian jarriko garenik. Ezinbestekoa da geure buruari helburu zehatz batzuk ezartzea (motibagarriak eta, aldi berean, errealistak), eta horien lorpenerako, norberaren ezaugarrien eta baliabideen arabera plangintza bat ezartzea, aurrerapena neurtuz eta entrenamenduari jarraipena emanez. Amaitzeko, beroketak, atsedanak eta teknikak berebiziko garrantzia dutela aipatzea besterik ez.

Egunak joan eta egunak etorri, maiatza ere iritsi zen, eta etxeko iluntasunean argi izpi bat agertu zitzaigun: aire zabalean jarduera fisikoa egitera atera gintezkeen, bai goizean goiz, bai 20:00etatik aurrera ere, osasun-langileek ondo merezitako txalo zaparradak seinalea eman eta gero. Bakarrik egin zitezkeen ekintzak burutu genituen; paseo, bizikleta-irteera eta korrikaldiak, zenbat eta luzeagoak hobe (askatasun berri hura ospatu beharra zegoen). Gure gorputza eta gihar-tonua hainbesterako prest ez zegoenez, lehen irteeren ondoren izan genituen lehendabiziko zuntz-hausturak eta astebete zirauten axubetak ere; hala ere, aire freskoak eta eguzki printzek gorputzean eragiten zizkiguten sentsazioak baretzen zizkigun min guztiak.

Ordu-tarte hori luzatuz joan zen, eta, zorionez, heldu zen normaltasuna. Beno, normaltasun "berria", ulertzen didazue. Pandemiak hamaika arlotan izan du eragina, horien artean, elkarren arteko harremanetan, zeinak jarduera fisikoa burutzeko eran ere izan duen isla. Taldeko ekintzak alde batera utzi eta banakakoak nagusituz joan dira. Aurrez aipatu bezala, maiatzean bizikleta-irteerek gora egin zuten; bada, badiirudi ohitura horri eutsi diogula, eta

horren adierazle, bizikleta-salmentaren % 30 inguruko gorakada.

Asko izan dira itxialdian zehar edota behin itxialdia amaitutakoan bizi-ohitura aktiboak barneratu dituztenak. Dena den, oker geundeke joera orokorra dela ondorioztatuko bagenu. Errealitatea bestelakoa da. Ilunagoa. Kirol klubetako, instalazioen kudeaketa enpresetako eta eskola kiroleko datuak aintzat hartzen badira, pandemia aurretik zegoen pertsona aktibo kopuruak % 20 egin du behera. Agian musukoa erabiltzearen derrigortasunak, entrenamenduak talde txikietan egin beharrak, lehiaketen formatu berriek, egoerak sortzen duen ziurgabetasunak, aldagelak erabiltzeko debekuak, kutsatzeko beldurrak edota inguruko pertsona bat kutsatzeak berekin dakarren itxialdiak. Hamaika izan daitezke arrazoiak, baina hau da egungo errealitatea.

Argi dago ez-ohiko egoerek salbuespeneko neurriak eskatzen dituztela. Ez ote da, ordea, konponbidea arazoa baino okerragoa? Ez naiz ni izango pandemiaren hedatzea gelditzeko hartutako neurriak eraginkorrak diren edo ez zalantzan jarriko duena, nahiz eta hein handi batean neurriek eragin duten jarduera fisikoaren beherakadak, barneratu ditugun mugimendurik gabeko ohiturekin uztartuta, sedentarismorantz garamatzaten itsu-itsuan. Egoeraren larritasunaz jabetzeko, pare bat datu emateko lizentzia hartuko dut. Bultza Kirola Euskadik egindako datu bilketa batek aditzera eman du kirolariek astean jarduera fisikoa egiteari eskaintzen dioten denbora-kopurua 6 orduko batezbesteko batetik 2 ordura pasa dela. Era berean, pertsona aktiboen %

55 astean ordubetez baino gutxiago aritzen da.

Nabaria da denbora gutxiago eskaintzen diogula jarduera fisikoari. Eta, onartzen dut kontaktua dagoen momentutik agian ez dela ingurunerik seguruena kirolarena. Baina kirolari eskaintzen ez diogun denbora zertan pasatzen dugunari ere erreparatu beharko genioke, eta horrek kezkatzen nau gehien. Tarte hori mugimendurik eskatzen ez duten ekintzetan (bideo-jokoetan jolasten, telebista aurrean edota ikasten) eta kalean lagunartean pasatzen dugula frogatu da. Gazteok kuriosoak gara, eta sentipen berriak bizi nahi izaten ditugu. Horregatik, denbora libre gehiago izateak gauza berriak probatzeko aukera handiagoa dakar, alkoholaren, tabakoaren, apustuen eta droga ezberdinen kontsumoa izan litezkeen bezala, denborarekin adikzio bihurtzera irits litezkeenak. Ez dirudi ingurune seguruagoak direnik.


Honekin batera, eskola-kirolaren kasua jarri nahi nuke mahai gainean. EAEn joan den ikasturtean baino 40.000 neska-mutil gutxiagok eman du izena programan. Ziurrenik horietariko asko egoera normaltzearekin batera itzuliko dira kirola egitera, nahiz eta dezente izango diren kirola behin betiko utziko dutenak. Hori da benetan larriena, kirola garapen fisiko, psikologiko, sozial eta emozionalerako, eta aldi berean, bizi ohitura aktiboak sustatzeko berebiziko garrantzia duen erreminta baita.

Pandemia gurera etorri zenetik, etxezaleagoak bihurtu gara. Hau ez litzateke arazo bat izango sedentarismoa eta honek eragindako gaitzak heriotza eta ezgaitasuna eragiten duten kausen artean laugarren

postuan egongo ez balira (Munduko Osasun Erakundea). Sedentarisismoak gaixotasun kardiobaskular, era ezberdinetako minbiziak, diabetesa eta arnas-arazoak ekar litzake. Urtean Estatuan 50.000 pertsonatik gora hiltzen du gaitzak, hau da, orduero 7 pertsona batezbeste. COVID-19aren datuak buruz dakizkigun bezala, hauen

jakitun ere izan beharko ginateke, problemaren larritasunaz jabe gaitzen, eta sedentarisismoaren arazoa azaleratu dadin.

Koronabirusaren pandemiak ez dezala berekin sedentarisismoaren pandemia ekarri. Mugi gaitzen!




EUSKAL GAZTEEN KONTSUMOAK PANDEMIAN

ESTIBALIZ ANSOTEGI GURUZIAGA

Ortzadarren osasun-eta adikzio-arloko prebentzioari buruzko
programaren koordinatzailea





2020ko martxoaren 14tik, gure bizitzak etengabe aldatu dira. Albiste kontrajarriak komunikabideetan; lanean, ikasketetan, mugikortasunean sortu zaizkigun zalantzak; birusaren aurreko beldurrak, balizko kutsatzeak, ondorioak; ziurgabetasuna etorkizunaren inguruan.

Pasa ditugun une desberdinetara egokitzen joan behar izan dugu, batzuk sentrazio hobeekin, beste batzuk beldur handiarekin, bestetzuk zalantzekin, zer zegoen baimenduta eta zer ez jakin gabe. Argi dagoena da, emozioei dagokienez, hilabete hauek errusiar mendi bat izan direla, bai helduentzat, bai gazteentzat eta baita haurrentzat ere.

Adikzioei dagokienez, lerroburu kontraesankor asko ere irakurri ahal izan ditugu: “Edan, jan, jolastu. Pandemiaren adikzioak”, “Murriztu egiten da substantzien kontsumoa, baina handitu egiten da kontsumo teknologikoa alarma-egoeran”, “Handitu egiten da alkoholaren eta beste droga batzuen

erabilera pandemiaren garaian”, “Murriztu egiten da tabakoaren salmenta pandemiaren garaian”, “Teknologia: aliatu handia pandemiaren garaian”... Baina badago egiazkorik honetan guztian?

Irailean, substantzien eta kirol-apustuen eta ausazko jokoen kontsumoari lotutako arriskuak prebenitzeko edo murrizteko gure programak abian jarri ahal izateko ikasgeletara itzuli ginenean, ez genekien oso ondo zerekin egingo genuen topo, zer kontatuko ziguten neska-mutilek, nola sentitu diren eta sentitzen ari diren egoera horretan. Eta, egia esan, askotariko egoerak eta orokortzen zailak direnak aurkitu ditugu. Hala ere, egin dezakegun baieztapen bat badago: **teknologiek denbora asko bete dute azken hilabeteetan, eta kasu batzuetan betetzen jarraitzen dute.**

Ez dakite tutik ere zenbat ordu eman duten sare sozialetan, bideo-jokoetan

jolasten, telesailak ikusten, Interneten nabigatzen eta abarretan, batez ere konfinamenduaren lehen hilabeteetan, eta orain, etxean konfinatuta egotea egokitzen zaienean.

Onartu dute, hainbeste ordu eman dituztenez pantailen aurrean, orain zailtasunak dituztela ordu kopurua murrizteko eta bestelako jarduerak egiteko.

Esku hartu dugun pertsonetako gutxiengo batek adierazi du dirua gastatu duela kirol-apustuetan edo ausazko jokoetan. Baina gehienek onartzen dute ordu asko eman dituztela bideojokoetan eta sare sozialetan jolasten. Sare sozialek lagunengandik gertuago egoteko eta harremanetan jarraitzeko aukera eman diete. Ordu asko eman dituzte bideo-deietan, harreman sozialari eusteko izan duten modu bakarra izan baita. Are gehiago, harremanetan jartzeko garaian, pertsona batzuk erosoago sentitzen dira sare sozialetan benetako bizitzan baino.

Teknologiak erabiltzearen harira, ikusi dugun ondorio handienetako bat zera izan da: pertsona askok ordu gutxiago lo egin dutela pantailen aurrean egoteagatik, eta loaren ohiturak ere aldatu egin dituztela. Oso berandu lokartu eta ohi baino askoz beranduago esnatu dira.

Substantzien kontsumoari dagokionez ere alde handiak daude. Alkoholaren kasuan, adibidez, gehienek adierazi dute lehen hilabeteetan ez dutela kontsumitu, eta pertsona gutxi batzuek baino ez dutela esan alkohola edan dutela etxean zeudela.

Kalera irteten hasi eta gero, pandemiaren aurretik alkohola kontsumitzen zuten

pertsona gehienek berriro kontsumitu dute. Lonjak itxita daudenez eta ostalaritzako lokalei mugak jarri zaizkenez, gehienek kalean edatea erabaki dute. Supermerkatuetan erosten dute eta koadrilekin lotzen dira edateko. Horrek polemika handia sortu du gizartean; izan ere, lehen lonjetan eta pribatuan egin zezaketena orain kalean egiten dute, ikusgarriagoa da, eta kexa eta bizikidetzarazko gehiago sortzen ditu herritarrekin.

Datu positibo bat ikusi dugu: kasu askotan, hasteko adina atzeratu egin da; izan ere, joan den udan jairik ez zegoenez, pertsona askok ez dute aukerarik izan kontsumitzen hasteko.

Tabakoarekin edo zigarro elektronikoeekin, egoera bestelakoa izan da; izan ere, pertsona askok etxean kontsumitu dute hasierako konfinamenduan. Kasu askotan, familiek ezagutzen zituzten kontsumo horiek, eta aurretik gazte horietako askok etxeetan erretzen ez bazuten ere, baimena izan dute eta kontsumitzen jarraitu dute.

Kasu batzuetan, ordea, esan digute etxean ezin izan dutenez erre, erretzeari uzteko aprobetxatu dutela. Gehienek esan dute ez dutela berriz tabakoa kontsumitu.

Kanabisari dagokionez, egoera desberdina da. Ziurrenik, gure lanaren xede den biztanleriari arazo gehien eragin dion substantzia da. Kalamua kontsumitzen duten pertsona gehienek esan digute hilabete hauetan ez diotela kontsumitzeari utzi; are gehiago, pertsonaren batek esan du kontsumoak areagotu egin direla egoera (etxetik ezin irtetea, beldurra) jasan ahal izateko.

Kasu askotan, familiek bazekiten kontsumitzen zutela eta negoziatu behar izan dute etxean kontsumitu ahal izateko. Beste kasu batzuetan, familiei aitortu behar izan diete kalamua kontsumitzen dutela, ulertzen ez ziren jokabideak eta jarrerak baitzeuden. Beste kasu batzuetan, batez ere kontsumo handiegiak ez zirenean, kontsumitzeari uzteko edo kontsumoak murrizteko aprobetxatu dute.

Kalamu-kontsumitzaileek lehen hilabeteetan kalamua lortzeko nola moldatu diren ere kontatu digute. Era guztietako istorioak kontatu dituzte: txakurra paseatzera joan eta erosteko aprobetxatu; lagun batekin kontsumitzeko lotu; supermerkatuara joateko uneak aprobetxatu erosteko edo kontsumitzeko, etab. Irudimena

erabili behar izan dute erosi ahal izateko edo kontsumitzen jarraitzeko.

“Normaltasunari” heldu eta kalera atera ahal izan direnez, gehienek esan dute aurreko kontsumoetara itzuli direla.

Gainerako substantziekin ez da arazorik izan; izan ere, nerabeekin eta gazteekin lan egitean, kontsumo horiek askoz ere noizbehinkakoagoak dira.


Amaitzeko, substantzien kontsumoari dagokionez, pixkanaka-pixkanaka gure bizitzei berriro ekiten badiegu ere, egoera pandemiaren aurrekoaren oso antzekoa dela ikusten dugu. Arazo handiena teknologien erabileran ikusten dugu; horietan ematen diren orduak lo-ordu gutxiago dira, eta pertsona batzuk erosoago sentitzen dira sareetan erlazionatzen bizitza errealean baino.

PANDEMIA ETA GAZTEAK

MIREN BASARAS IBARZABAL

Mikrobiologiako irakaslea eta ikertzailea. UPV/EHU





Koronabirus berriak sorrarazitako pandemiak mundua hankaz gora jarri du. Urtebete luze daramagu osasun krisi honekin. Dударik gabe adin guztietako pertsonak kaltetu egin ditu eta, gaixotasunaren aldetik, adineko pertsonak izan dira bereziki, ondorio gehiago izan dutenak, bai larritasunaren aldetik baita hildako kopuruan ere. Baina gizakion bizitza luzea da eta badago garai bat, nerabezaroa edo gazte garaia, garrantzi handiko trantsizio-etapa moduan kontsideratzen dena eta bertan gertatzen diren hainbat fenomeno bizitza osorako gera daitezkeenak.

Osasunaren Mundu Erakundeak etapa edo garai horri garrantzi handia ematen dio eta haurtzaroaren ondoren eta helduaroaren aurretik, 10 eta 19 urte bitartean, gertatzen den garapen aldia da. Etapa horrek hazkuntza- eta aldaketa-erritmo bizkorra du eta garapen fase horretan zenbait prozesu biologikoak gertatzen dira.

Gaztaroan, heldutasun fisiko eta sexualetik haratago, gertatutako esperientzia guztiek barne hartzen dituzte independentzia sozial eta ekonomikorako trantsizioa, identitatearen garapena, helduen arteko harremanak ezartzeko gaitasunak eskuratzea eta arrazoitze abstrakturako gaitasuna. Nerabezaroa bada ohiz kanpoko hazkundearen eta potentzial handiaren sinonimoa, baina aldi berean arrisku handiko etapa da ere, non gizarteak eta bertako inguruneak eragin erabakigarria izan baitezake ondorengo urteetan.

Gazteak familiaren, komunitatearen, eskolaren, osasun-zerbitzuen eta lantokiaren mende daude, dituzten presioei aurre egiten eta haurtzarotik helduarora behar bezala igarotzen lagun diezaieketen gaitasun garrantzitsu guztiak eskuratu ahal izateko. Gurasoek, komunitateko kideek, zerbitzu-hornitzaileak eta gizarte-erakundeak pertsona gazteen garapena eta egokitzapena sustatzeko eta arazoak

sortzen direnean eraginkortasunez esku hartzeko erantzukizuna dute. Beraz, dikotomia honetan, bai gazteek zein helduek, denok ardura bat bete behar dugu.

Osasun krisi hau hasi zenean konfinamendu gogor batean sartu ginen guztiok, etxe barruan egon beharrian horretan, hezkuntza, aisialdia, eta hainbat esparru aldatu egin ziren bat-batean. Hezkuntza bera, presentziala izatetik on line izatera pasatu zen egun batetik bestera. Gazteak ikastetxeetara ikastera joaten direnean, aldi berean, aisialdi dela ere kontsideratzen dute, azken finean bere lagunekin elkartu eta beraien bizipenak partekatzen baitituzte, horrek izan dezakeen onurarekin.

Pandemia guzti honen zehar gazteei bereziki eskatu zaie birusa kontrolatzeko bete behar diren babes-neurri ezberdinak behar bezala betetzea, eta egia esan ikastetxeetan modu egokiz bete dira, horren adibidea da hezkuntza normaltasun presentzial batean garatu dela ikasturte osoan zehar. Baina handik kanpora zalantzatan jarri da uneoro gazteek ondo bete ote dituzten neurri horiek. Nerabe bat ez da guztiz gai kontzeptu konplexuak ulertzeko, ez jokabide baten eta haren ondorioen arteko erlazioa ulertzeko, ez eta osasunarekin zerikusia duten erabakiak hartzeko duen edo izan dezakeen kontrol-maila hautemateko ere. Neurriak ondo azaltzea eta horiek betearazteko edo gaizki egindakoaren garrantzia zein den, beharbada, landu beharko litzakeen esparru bat da. Oro har, gazteen gehiengo handi batek babes-neurriak ondo bete ditu baina gizarte honetan beti jartzen da fokua eta informazioa gaizki egina dagoen

gauzetan, gehienetan azken horrek ospe gehiago duelako.

Gazteak, oro har, ez dira pasotak edo nartzisistak eta hainbat ikerketak agerian uzten dute gazte askok hainbat ekimen abiarazi dituztela urte luze honetan, esate baterako, entretenimendu-proiektuak, beraiek oso landuta dituzten informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzeko senideei laguntzea, osasun arloarekin zerikusia duten hainbat gobernuz kanpoko erakundeetan parte-hartzea, egoera ahulenean dauden taldeei laguntzea, etab. Zoritxarrez, gehienetan, ekimen hauek guztiak ez dira ikusgarriak izan, eta gazteak benetan badirela langileak, osasunaz arduratsuak eta inguruarekin konprometituak erakusten dituzte argi eta garbi.

COVID-19 gaixotasuna bera kontutan hartuz, osasun arlotik egia da gazteak ez direla talderik kaltetuena, hau da, ez dira izan gaixotasunaren sintoma larrienak pairatu dituztenak edo hildako gehien egon den taldea. Oso gazte gutxi izan dituzte sintoma larriak, baina gaixotasun honen eboluzioa ezaguna den heinean, nahiz eta sintoma larriak ez izan, kutsatutako gazteetan ere epe luzeko ondorioak utzi ditzake birusak, COVID iraunkor moduan ezagutzen dena. Baina, dudarik gabe, nahiz eta gaixotasuna ez pairatu, gazteak edozein adinetan gertatzen den moduan, garraiatu dezakete birusa eta, alde horretatik, beraien familia-kideak arriskuan jarri. Hori dela eta, sarritan ez zaie utzi elkartzeko bere aitona-amonekin edo adindun pertsonekin, horrek ekarri duen trabarekin.

Bestalde, pandemiak sortu duen ezegonkortasunak gazte askoren garapen emozionalaren prozesua aldatu egin du, eta haien bizitasuna, ongizatea eta etorkizuneko itxaropenak baldintzatu egin ditu gazteen belaunaldi gisa ere. Gazte asko kezkatuta dago zein izango den bere etorkizuna, nola aldatuko den ekonomia, lan eskaintza egokia izango den. Azken finean, familiatik ekonomikoki independizatzeko aukera atzeratu egingo delaren susmoa dute eta horrek ardura eta buruhaustea handitzen du.

Gainera, pandemiari buruz dagoen uneoroko informazioak sarritan kalte egin dezake, eta horregatik infodemiari buruz hitz egiten da, hau da gai jakin bati (pandemia) buruzko informazioaren ugaritasuna. Ezaguna da gazteak jasotzen duten informazioa sareetatik izaten dela hein handi batean. Baina sare horietan modu egokiz eta zorroztasunez bilatzea funtsezkoa da, bestela gaizki ulertuak egon daitezkeelako, eta sarritan, irakurtzen duguna irakurri nahi duguna da eta ez zientifikoki frogatuta dagoena. Infodemiak desinformazioa eta zurrumurruak zabaldu dezake eta horrek mesfidantza eragin dezake. Edonori eta, beraz, gazteei ere, erakutsi behar zaie informazioaren baliozkotasuna egiaztatzeko baliabideak.

Hainbat ikerketa egin dira eta egiten ari dira ikusteko pandemiak ondorioak utziko dituen etorkizunean gazteen nortasunean. Badirudi gazteak pozik

daudela bere familiarekin edo lagunekin izandako harremanak konfinamendu garaian eta askok pentsatzen dute denbora gehiago izan dutela norberarentzako edo lasai egoteko. Baina, aldi berean, gehien falta izan dutena da lagunen arteko harreman fisikoa edo bikotekidearekiko harreman pertsonala.

Beste pertsonekin elkartzeko eza horrek erlazionatu egin da pertsona askotan egokitze-arazoekin eta buru-osasuna ere agerian jarri da. Psikologia eta psikiatriako zerbitzuek ohartarazi dute antsietateaz eta depresioz diagnostikatuta dagoen pertsonen kopurua, eta bereziki gazteen kopurua, nabarmen igo egin dela azken urte honetan. Horiei guztiei ahalik eta arinen tratamendua jartzea da osasun sistemak bete beharrezko zeregina. Gainera, zerbitzu hauetan aurrez-aurreko hitzorduek egotea bermatu beharko litzateke, terapia hori ahalik eta hoberen betearazteko. Bestetik, bai familiak eta ikastetxeak ere funtsezkoak dira egoera horietan esku hartzeko eta ahalik eta gehien laguntzeko. Osasun mentalak dituen estigma aldatzen gizarte osoak lagundu eta aurre egiten ikasi beharko du.


Azken finean, gizarte batek bere garapena neurtzen du adindunak zaintzeko moduaren arabera, baina aldi berean, etorkizuna ere zaindu behar du, gazteak ezinbestean kontuan hartuta.

EZ DA HAIN ZIURRA...

FERNANDO BAYÓN MARTIN

Aisiako Ikaskuntzen Institutuko zuzendaria
eta Ikerketa eta Doktoretzako dekanordea
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea
Deustuko Unibertsitatea





Ez da hain ziurra, «gazteez» hitz egitean zeri buruz ari garen ondo dakigunik. «Gazteak» gure elkarrizketetan sartzen dira, batez ere azken hilabete luze hauetan, eta, kanpotik, izendatzeko erraza dirudien talde bat ematen duen «zerbait» da, ikusgarritasun handiko diana bat.

Hala ere, «gazteria» deritzon subjektu horri batzuetan arrapaladan zerbait egozten diogu, jarrera eta portaera jakin batzuk egozten dizkiogu, baina ez da jardunen corpus monolitiko bat. Gazteek portaera «natural» eta sozialki isolagarriak izan ditzaketela aurreuposatzen denean, haiek estigmatizatzeko lehen urratsa ari da ematen.

Seinalatze-prozesu horiek izugarrizko arrakasta dute gaur egungo komunikazioaren ekonomian. Eta agerian jartzen dira, nahiko azkar, arrisku komun batetik babesteko zereginean denok erantzunkide izateko beharra nagusi den uneetan. Gizarteak gehien eskatzen duena «artaldearen»

immunitatea denean, beti dago arrisku bat: geure burua babesteko ituna apurtu dezakeen portaera «naturala» duen komunitate bat egotea, irudikatzen dugun «subjektu kolektibo» hori egotea.

Baina, gainera, irudikapen kolektiboan, «subjektu» hori aisiarekin lotzen da; hau da, gozamen «fribolora» bideratuta dagoen eta lanaren betebeharrak serioenetatik urrun dagoen portaerarekin lotzen da. Beraz, aurreiritzien koktela prest dago zerbitzatua izateko. Gazteak seinalatzeko jarrera hori, ia antzinatasun bereko historia duen beste kasu batekin lotzen da: emankorrek ez diren zereginei lotutako aisialdiarekin, non laneko arauak eta etikak malguak bihurtzen diren.

Orduan, «helduen» iritzia bi muturren artean banatzen da –iritzi-lausotasun berean oinarrituta–: alde batetik, biologikoki gaizkiaren mehatxuarekin ez dauden berezko elkartasun ezaren eta berekoikeriaren aurkako eraso –

jarrera horrek ospitaleko ZIUetan zehar tourrak antolatzen bultzatzen du, itxuraz axola ez zaien «errealitatea ikus dezaten»; eta, bestetik, gurasoen halako adiskidetze-jarrera paternalista, zeinen bidez gazteen gehiegikeriak eta haien askapen beharrak adinaren premien izenean barkatzen baitiren («baina orain egiten ez badute, noiz egingo dute?»).

Baina, koma/labankada/botiloi irudi eskandalagarrietan ikonikoki laburbilduta geratzen diren arren, gazte horiek beste guztiek beste onartu dute hilabete horietako errealitatea, edo beste guztiek baino gehiago: ikasten *jarraitu dute*, argi aldarrikatu bai baina komunikabideetan askorik ikusi ez diren beren hezkuntza-eskubideei erantzuteko beti behar adinako mailan egon ez diren erakundeetan; prestakuntza espezializatuko programak arakatzen *jarraitu dute*, inoiz baino usaimen finagoarekin, gaur egun bizi den desorientazio- eta premia-nahasketa horren ondorioz; ekintzailatza-estrategiak irudikatzen *jarraitu dute* ekosistema ekonomiko berezi batean, hau da, pentsio sendoen aldeko aldarrikapenekin oso zuhurki solidarizatzen den baina «gazteek» epe laburrean emantzipatzeko proiektu sinesgarriak sortzeko soldata hiperprekarioekin asmatzen ez duen ekosistema ekonomikoan.

Ez da hain ziurra gazteen aisialdia jardueren laburpen fribolo eta arduragabea izan denik, ezta gaitzespen estandarra edo ulermen topikoa merezi duten eskapismoak eragin dituenik ere. Besteak beste, gazteei inolako alternatibarik eskaini ez dien adostasun politikoarekin bultzatutako murrizketen neurrietako bat izan delako aisia –jarduera librerako

horizonte zabal eta konplexua, zeinaren mende baitaude edozein subjektuk bizitzan zehar banaka gauzatzeko eta komunitatean proiektatzeko dituen gaitasun intimoenak-. Izan ere, herritar guztiei ezarritako higie-ne-diziplinaren neurri kaotikoez bestelakoa zen aisia hori.

Gazteez ari gara, eta ez hurrez edo nerabeez. Gazteei nahiko estu geratzen zaizkie «pantaila-hurrei» edo nerabeei lotuta emandako diagnostikoak; familien esanetan, hain zuzen, hartz-kume bat Europako Mendietan ikustea baino zailagoa izan da nerabeak logelatik kanpo ikustea, eta nerabe-espezie horrekin bizi izan direla sentitu dute.

Aspaldidanik, gazteen osatze-eremu guztiak (prestakuntza-espazioetatik hasi eta sozializazio eta aisialdiraino), beren bidegurutze eta nahaste kontaezinekin, hibridazio ukaezin batek birdefinitzen ditu, eta hori bai, naturalizatuta dago. Aurrez aurreko aisialdi-jardueren eta espazio birtualen arteko desorekak (nabarmen, azken horren aldekoa izanik) ez du, oro har, sozializazio-gabezia ekarri.

Sozializazioaren kantitatea ez da murriztu baina bai haren kalitatea: *burbuila* taldeetan batu dira unibertsitatearen, kontserbatorioaren edo eskolaren espazio partekatu/ bereizian, baina aisialdiko espazio beti dibergentean burbuilak lehertu egin dira. Trafikoa moderatu behar izan dute beren parekoekin -kirola, kultura, boluntariora, sorkuntza, zainketak, adiskidetasuna edo festalotzeko biribilgune horietan guztietan, eta «ermitau digitalen» kate bitxi eta autogestionatuak sortu dituzte.

Ez da hain ziurra pandemiaren kontakizun eta memoria hegemonikoak benetan sentikorrak izan direnik gaixotasunak gazteen osasunean izan dituen eragin ikusezinekiko. Badaude kutsatzea baino zailago identifikatzen eta ikusten diren ondorioak; horiek zenbatzean agintarien estatistikak zorabiatu egin ziren. Are gehiago, gazteen osasun mentaleko arazoak, lan aurreko estresaren edo krisi pertsonal soilen itxurarekin agertzen diren depresioak, «bizio-kexa» moduan interpretatu diren zailtasunak pandemiaren eremu gris gisa geratzen dira, baztertuta geratu dira gaur egun arlo politikoan eta osasunaren esparruan oraindik kikiltzen gaituzten zuzeneko ondorio ukaezinen aurrean.

Askotan aurpegiratu izan zaie gazteei, gaur egungo gazteei, nerbio politikoa galdu dutela, elkartruke publikorako espazioan jarrera erreprimitua dutela, nolabaiteko konformismoaren susmagarri. Beharbada, errudun dira, kapitalismo aurreratuan gizartearen existentziak dakartzan baldintza negoziatzeko «modu errealistegian» barneratzeagatik. Erantzuteko genea birprogramatu izan balitz bezala, eta orain gizartearen aurrean modu

nahasian eta eroso adieraziko balitz bezala. Aisialdia, berriz ere, ekuazio horrek mediatikoki funtziona dezan sartu beharreko faktorea da.

Baina ez da hain ziurra aisia desinbestidura politikoaren prozesuarekin lotuta dagoenik. Gazteen jardunaren kasuan, behintzat, aisialdia ez da politikaren, seriotasunaren, arduraren, produkzioaren eta heldutasunaren «beste alde»: aisialdiak –badago eta ez badago– ahalmen politikoa du, hau da, ahalmen eraldatzailea du, eta oraindik ez da modu sozialki sortzailean irakurri. Aisialdiaren bidez, subjektu politiko bat indar eta konplexutasun handiz ari da adierazten, eta arreta soziala eskatzen du, eta ez soilik kontsumo-espazio pribatuak eta mantsotasun funtzionaleko espazio publikoak (eta alderantziz).


Jarduera horien dimentsio politikoa berreskuratzen ez bada, bizikidetzarako espazioa kritikatzeko eta berresteko ilusioarekin, gazteen Covid-osteko aisialdiaz hitz egin beharrean, baliteke Covid-gazteriaren osteko aisialdiaz hitz egitera kondenatuta geratzea.

GAZTEA ETA KULTURA PANDEMIAN

MIKEL ETXEBERRIA AGIRRESAROBÉ

Kulturaren Euskal Behatokiko arduraduna





Azkenengo urte eta erdian COVID-19a dela-eta eguneroko bizitza bere luze zabalean eta mundu mailan irauli egin zaigu denoi. Ez dago pandemia honek ukitu ez duen lagunik. Gazteak ere, jakina, pairatu behar izan du egoera garrantz hau, eta auzi honi ikuspegi askotatik heldu badakioke ere, begira diezaiogun hurrengo lerro hauetan kultura praktikaren ikuspuntutik.

Nolakoa izan da pandemiaren eragina gaztearen parte-hartze kulturalari dagokionez? Iaztik astintzen gaituen pandemia honek bereziki gogor jo du kultura-gaztea binomioan. Arrazoiak begi-bistakoa: bi-biak bereziki zaurgarriak dira. Eta berez dira zaurgarriak, pandemia izan ala ez. Kultura beti trantzean, prekarietatean, alarma gorria piztuta, beti eztabaidan murgilduta eta bere burua zuritu beharrean -eta nola ez, askoz gehiago krisi garaietan-. Gazteak, aldiz, bere naturaren baitan darama sozializazio premia, kontaktu nahia, formazio beharra, esperientziazio grina ... eta horretarako guztirako ezer gutxi hain kaltegarria nola

gure hiztegira etorri den distantzia soziala kontzeptua.

Ez da gaztaroaren azpitalde guztietan berdin-berdin gertatzen, luzatu baita aro horren luzera, gehiago zehaztu beharko litzateke eta finago aztertu, baina honakoan zentzu zabalean arituko gara gazte kontzeptua erabiltzen, izan ere, P. Bordieuren esanera “... *gaztetasuna eta zahartzaroa ez daude emanda, sozialki eraikitzen dira gazteen eta zaharren arteko borrokan. Adin sozialaren eta adin biologikoaren arteko harremanak oso konplexuak dira*”. Hortaz, ez gara endrekatuko gazte kategoriaren definizioan; gurean eta gure lan guztiak kontuan hartuta 15-32 urte bitarteko lagunen datuak biltzen ditugu kategoria horren pean, eta horiei buruz eman ahal ditugu zantzu batzuk.

Kulturaren Euskal Behatokiak, darabilen hainbat tresnen bidez, gazteen praktika kulturalen tenperatura har diezaioke, esanguratsuenak izanik hurrengo biak: parte-hartze kulturalaren

inkesta (gauzatze data dela-eta aurre pandemiaren egoera islatzen diguna) eta ohituren panela (joera nagusiak, tendentziak, azaleratzen duena).

Hasteko, eta pandemiak izan dituen ondorioak behar bezala neurtu eta alderatu ahal izateko, aurre pandemiaren garaietara itzuli behar dugu gure begirada. Aurrekoa ezagutu gabe nekez antzemango ditugu joera eta aukera berriak. Zer-nolako praktika kulturala zerabilen gazteak aztertu beharra dago. Ezin zaio, ordea, horri heldu parte-hartze kulturala modu monolitikoa ulertuta, praktika horiek askotarikoak baitira. Hori horrela izanda, hiru praktika motak bereizi ohi ditugu: hartzailea, sortzailea eta digitala. Eta hiruretan jarri behar dugu arreta, gazteen praktika kulturalari itxura hartuko badiogu, bakoitzak bere logika eta barne dinamika propioak dituelako.

Errepaso azkar bat emanda, pandemiaren aurreko neurketek zera esaten ziguten gazteen praktikei buruz: kultur praktika hartzaileetan gazteak nabarmentzen ziren kontzertuetara eta zinemara joaten, grabaturiko musika entzuten, bideo-jokoetan aritzen eta liburutegiak erabiltzen. Praktika horietan beste adin tarteetan baino gorago kokatzen ziren gazteen parte-hartzeak. Praktika sortzaileetan gorago zeuden gazteak marrazkigintzan, musika tresnak jotzen eta, oro har, arte eta kulturarekin erlazionaturiko trebakuntza-ekintzetan. Azkenik, praktika digitaletan gailentzen ziren oro har Interneten eta sare sozialak erabiltzen, kultura foroetan parte hartzen, norberaren material artistiko partekatzen, blogak idazten...

Horiek ziren gazteen artean praktika ez bakarrik baina zabalduenak. Eta pandemiak sortutako egoera berrian

zer bilakaera antzematen da gazteen kultur kontsumoetan? Kultur eskaintzara heltzeko zailtasunak, elkartzeko oztopoak non-nahi izateak, konfinamendu zorrotzek, distantzia soziala mantendu beharrak, etxeratze-aginduak eta, oro har, osasun-neurri guztiek ezinbestean ekarri behar zuten kultura kontsumoan eragin erabakigarria. Parte-hartze kulturalaren molde kaltetuena zalantzarik gabe parte-hartze hartzailea izan da. Kultura eskaintza eskuratzeko bideak momentu askotan moztuta –konfinamendu betea- edo beste askotan murriztuta –eskaintza falta edo eskasagoa-. Hala eta guztiz ere, azpimarratu beharra dago gazteak praktika hartzaileetan beste adin tarteetara baino aktiboagoak mantendu egin direla, kontzertuetara eta zinemara joaten esaterako. Liburutegietara hurbiltzen, aldiz, jaitsieraren joera konfirmatu egin da. Praktika sortzaileetan zera esan beharra dago, praktika artistiko amateurrak biziki indartu egin direla. Etxean egon beharra, denbora libre gehiago izatea eta beste bide asko itxita egotea baldintza determinanteak izan dira adin tarte guztietan praktika amateurrak tinko indartzeko. Pozgarria da, zinez, parentesi honetan gazte zein heldu, baina bereziki gazteak sormena landu izatea. Eta ez bakarrik orain gazte gehiago sartu direlako arrasto horretan, baizik eta bi jarduera edo gehiago ere egiten dutenak gero eta gehiago direlako. Honek gaztearen kulturarekiko engaiamendua argiro erakusten digu. Azkenik praktika digitalak aipatuko ditugu. Aurreikustekoa zenez, praktika hauek irmotu egin dira –eduki kulturaletako plataformak, adibidez, gizartearen maila guztietara zabaltzeko dira-. Pandemia gurera etorri bezain laster eta, batez ere, konfinamendu zorrotza ezarri zenez geroztik, kulturaren indargune bilakatu ziren praktika

hauek, izan ere, ez da soilik lehengoa indartu egin dela baizik eta berrikuntza handienak praktika hauetatik etorri eta etorriko direlako. Gazteen artean pandemia agertu baino lehenagoko joera bazen ere, pandemiaren egoera honek gaztearen grina digitala azeleratu egin du. Esan liteke beharra aukera bihurtzen asmatu dutela. Lehen oso ohikoak ez ziren praktika batzuk eguneroko ogia bilakatzen ari dira, hala nola, zuzeneko ikuskizunak, musika kontzertuak eta erakusketak modu telematikoa bizitzea. Hortaz, eduki kulturalak eskuratzeko bide berriak jorratzen ari dira, doitzen eta fintzen, hala nola streamingarena. Esan dezakegu gero eta gazte gehiago inplikatzeko ari direla jarduera digitaletan eta, hori bai, ikusteke dago ea kultura berrikuntza hauek guztiak kontsolidatzen diren ala pandemia gaindituta bazterrean geratzen diren.

Esandakoa **laburbilduz** zera azpimarratu beharra dago: COVID-19ak parte-hartze kultural hartzailean oro har eragin benetan negatiboa izan duela baina neurri batean lagungarria izan dela jarduera sortzaile eta digitalentzat. Bi horietan gazteek oztopo guztien gainetik krisi hau aukera eremua bilakatzeko tenorea izango ahal dute... bide berritzaileak esperimentatzen eta probatzen, gazte jendea baita itxaropena ataka honetatik abilagoak eta zintzoagoak ateratzeko.

Normalitate berrira hurbiltzen ari garen une honetan galdera aproposa da: praktika eta molde berriak iraunkorrak izango dira etorkizunean? Zer geratuko

den eta zer ez jakiteke dago. Zalantza eta ziurgabetasun alorrean sartuta gaudenez, ezin ziurtasunez esan zer bide egingo duten praktika indartuek normalitate berrian. Dinamika berriak indarrean daude gaur egun eta horietako batzuk -ikuskizunen hibridismoa kasu-, pentsatzeko denez, geratuko dira gazteen praktika kulturaletan. Batez ere eta arestian esan bezala, jarraitzeko izango da zer etorriko den sormenezko jardueretatik eta jarduera digitaletatik, zer bide berriak irekiko diren eta horietatik zeintzuk geratu eta zeintzuk alboratuko diren hemendik urte batzuetara. Ziurrenera geratuko direnen artean kontuan hartu beharko dira: Internet irakasbide formal eta informaletarako zentrala bihurtzea, eduki kulturalen plataformen erabat zabaltzea eta eraldaketa digitateko praktika batzuk gazteak kulturara hurbilazteko moldatzea (zuzeneko antzezpenak, museoetara, erakusketetara eta ondare-guneetara egindako bisitak...).


Gazteek, ziurgabetasuna jaun eta jabe den garai hauetan, bide berriak markatzeko lehen mailako papela jokatu behar dutela sinistuta gaude. Hau da, krisi honetatik ateratzeko abangoardia izateko aukera baliatu behar dutela, aitzindari izan baitaitezke kultura praktikatzeko molde berriak ezartzeko, sendotzeko eta bizirauteko. Inoiz baino zalantza gehiago dauden une honetan eta datorrenari itxura hartzeko zailtasun nabarmenak ditugunean gazteei begiratu beharko genieke haiek dira-eta paradigma aldaketa honetan haize berria ekarriko dituztenak.

STEM LANBIDEEN ZUHAITZA ETA PANDEMIA

ION ETXEBERRIA OTADUI

IKERLANen zuzendari orokorra





Ziurrenez, goizegi da ziurtasunez esateko pandemiak zer-nolako eragina izango duen gizartean, bai epe ertainean eta luzean zein laburrean ere. Datu eta azterlan xeherik ez dagoenez, gure bizipen pertsonalek eta ikusi izan ditugunek sortutako pertzepzioen eta dedukzioen alorrean mugitzen gara, batez ere.

Sentsazio horien guztien artean, eta gazteak eta ikerketa-mundua ardatz hartuta, nire ustez, hainbat urtez geroztik ikusten ari ginen joera nabarmendu dezake pandemiak, hau da, STEM (*Science, Technology, Engineering and Maths*) profesionalen gabezia eta talentuaren aldeko borroka.

Irudipena dut gizarteak, orokorrean, eta batez ere gazteek iraganean baino ikuspegi praktikoago eta arrazionalago batetik ikusten dutela bizitza, eta bakoitzak egin nahi duena lehenesten duela, eta ez *“hala behar duelako edo beti horrela egin izan delako”*. Gero eta sarriago, honelako galderak

entzuten dira: *“eta egiten ari naizen honek zertarako balio du, zer ekarpen egiten dit?”*. Epe laburrean emaitzak izan beharra, pazientziarik eza edo asperduraren aurrean tolerantziarik ez izatea gaur egungo gizartearen ezaugarri gero eta ohikoagoak dira.

Nik neuk, unibertsitateko karrera bat egin behar ote nuen erabaki behar izan nuenean, egia esan, neure buruari ez nion ezta galdetu ere egin unibertsitatera joateak zentzurik ba ote zuen edo ez, aspergarria izango ote zen edo ingeniarietza bat ikasteak eskatzen zuen ahaleginak eta denborak bat egingo ote zuen ondoren unibertsitate-titulu bat izateagatik lortuko nuen etekinarekin. Nik unibertsitate-karrera egiteko arrazoiak hauek izan ziren: gaitasuna nuela ikusten nuen, nire familiak baliabideak zituen, eta, ziurrenez, hala egitea agintzen zuten eta nitaz hori espero zuten.

Pandemiak, pertsonengan sortutako sufrimenduak eta eragindako bakartze

sozialak, ez bakarrik konfinamenduan, baizik eta baita ondorengo hilabete guztietan ere, bai eremu pertsonalean eta familia artekoan zein lan-eremuan ere (non harreman sozialak ere asko ahuldu diren), denbora gehiago eman digu ordainean, eta nahi eta nahi ez, tarte bat hartu behar izan dugu gelditzeko, hausnartzeko eta galdera transzendentalak egiteko. *Denborarik ematen al dut nire bizitzan benetan garrantzitsuak diren gauzak egiteko? Zergatik egiten ditut egiten ditudan gauzak? Zein da egiten ditudan gauzen helburua? Merezki al du nire bizitza ematen jarraitzea ematen dudan gauzengatik?*

Horrek, nire ustez, epe laburraren, arrazionaltasunaren eta praktikotasunaren aldeko joera nabarmendu eta areagotu egiten du, eta gainera, eragina izan dezake ikerketarako biziki erabakigarria den gai batean, alegia: gazteak STEM unibertsitate-karreretara bideratzea. Aspalditik, zailtasunak izaten ari gara gazteak ikasketa mota hauetara erakartzeko, eta nahiz eta arrazoi bakar baten ondorio ez izan, hori justifikatzen duen arrazoi bat zera da, gazteen ustez, karrera horiek zailak direla eta ahalegin handia eskatzen dutela. Izan ere, ikerketarekin lotutako arlo asko ikasketa mota horiekin elikatzen dira. Teknologiaren aldeko bokaziorik ez badago, eta erabakia hartzeko arrazoibidea zera bada soilik, karrera aurrera eramateko egin behar den ahalegina ondoren jaso ahal izango den ordainarekin alderatzea, orduan, ondoriozta daiteke karrera horiek ez direla, izan ere, apustu on bat. Hala ere, nire ustez, beste hainbat parametro ere badaude, eta garrantzitsuak direla esango nuke, esaterako, profesional

horien lan-baldintzak, kontziliaziorako aukera, karrera hauek eskaintzen dituzten lan-aukerak (hori bai, profil batzuetan beste batzuetan baino gehiago), lan-egonkortasuna edo, ikerketak, besteak beste, suposatzen duen erronka eta garapen profesionala. Nire ustez, ikerketan lan egitea lan egite hutsa baino gehiago da, hau da, gizartea hobetzen laguntzea da, bai eta karrera osoan zehar profesionalki haztea eta garatzea ere, teknologiaren bidez gizartean sortzen diren erronkei erantzuteko.

Mezu hau gazteei helarazteko gai ez bagara, edo gazteek ikuspegi honekin bat egiten ez badute, pandemiaren eraginaren ondorioz, STEM lanbideen hainbat adarretan dagoen profesional-gabeziaren arazoa are gehiago nabarmendu eta handitu daiteke, ez bakarrik ikerketaren arloan, baita industriaren arloan ere.

Horren ondorioz, lehia oso handia ari da sortzen enpresen eta ikerketa-zentroen artean, zeinak pertsona berdinegatik lehiatzen baitira, eta, gainerakoekin lehiatu ahal izateko, lan-baldintzak berrikusi eta hobetu behar izaten baitituzte.

Eta horra hor pandemiak utzi digun bigarren funtsezko faktorea: telelana. Konfinamenduan izandako baldintzek behartuta, pertsona askok urrunetik egin behar izan zituzten lan- eta prestakuntza-jarduerak, eta lan-formatu horren abantailak eta desabantailak lehen eskutik bizi ahal izan zituzten, baldintza oso berezietan. Gainera, eta datu zehatzik ez dagoenez, jarduera horiek, dirudienez, eta orokorrean, ondo funtzionatu zuten, eta, beraz, telelana ez litzateke soilik larrialdi-

egoeretan aurre egiteko elementu bat izan behar; aitzitik, pandemia amaitu ondoren, egunero erabiltzeko moduko laneko formula bat gehiago izan beharko litzateke. Telelanaren aldeko eskaria sortu da, argi eta garbi, batez ere telelaneko jarduera profesionalak edo prestakuntzakoak egiten dituzten gazteen aldetik (ikerketa teknologikoaren arloan, horrelako jarduera-mota asko dago); eta lan-elkarrizketetan, profil horietako pertsonak asteko egunen batean telelanean aritzeko aukeraz galdetzen dute, normalean. Eta, nahiz eta ez ezagutu laneko formatu horiek erakundeetan epe ertain eta luzean izango duten eragina, enpresek eta ikastetxeek egokitze eta beren sistemak berrikusteko obligazioa dute, profil mota horietarako lehiakorrak eta erakargarriak izaten jarraitzeko; eta esango nuke, etorkizun ez oso


urrunean, haietako gehienek telelaneko formulak inplementatuko dituztela astean egun batean edo bitan (gehiago inplementatuz gero, formula horrek abantaila baino desabantaila gehiago izango lituzke, nire ustez).

Azken finean, irudipena dut pandemiak zuhaitza mugitu duela, eta mugimendu horrek nabarmendu egin dituela azken urteetan hautematen ari ginen joerak; horren ondorioz, enpresa eta ikastetxe gisa, gehiago ahalegindu beharko gara: alde batetik, STEM profilek gizartean duten garrantzia eta egiten duten ekarpena eta lanbide horiek duten erakargarritasuna gazteei helarazteko gai izan behar dugu; eta bestetik, gazteen nahietara eta premietara ahal den neurrian egokitu behar dugu. Erronka handi bat da, zalantzarik gabe, eta funtsezkoa da gure gizartearen etorkizunerako.

NERABEEN ADIMEN-OSASUNARI BURUZKO TXOSTENA, BASURTUKO UNIBERTSITATE OSPITALEA (BUO) - BILBO-BASURTUKO ESIKO PSIKIATRIA-ZERBITZUAREN IKUSPEGITIK EGINA

ARANTZA FERNÁNDEZ RIVAS (Haur eta Gazteen Psikiatria Ataleko
burua) eta MIGUEL ANGEL GONZÁLEZ TORRES
(Psikiatria Zerbitzuko burua)





Txosten hau egitean gogoan eduki dugu guk aztertzen ditugun gazteak eta nerabeak populazio klinikoaren barruan daudela. Ez ditugu artatzen herritar guztiak. Dena dela, pandemia hasi aurretik hona populazio-talde honetan izugarritzko aldaketak gertatu direnez gero, uste dugu txostenean ongi islatzen dela adingabeak COVID-19aren pandemiaren eraginez jasaten ari diren ondoez emozionala.

Gogoan eduki behar dugu BUOn dagoela nerabeen ospitaleratze psikiatrikoetarako Bizkaiko unitate bakarra eta, gainera, bertan dagoela lurralde osoan kasu gehien hartzen dituen psikiatriako larrialdietarako unitatea.

Aldi honetan ikusi ditugun gertaera kezkagarrienak:

1. Asko gehitu da larrialdiko arreta psikiatrikoa jasotzeko ospitaleratzten diren nerabeen kopurua.

2. Nabarmen handitu da BUOko haurrak eta gazteak ospitaleratzeko unitatean arreta psikiatrikoa jaso duten nerabeen kopurua: ia % 50 gehiago, 2019ko eta 2021eko lehen bost hilabeteak erreferentziazat hartuta.
3. Elikadura-jokabidearen nahasmenduren bat (batez ere anorexia nerbiosoa) duten nerabeen kopurua handitzea: horixe izan da pandemia hasiz gero jazo den lehen gertaera klinikoa; hala, 2020ko martxoan hasi zen gorakada, eta gehikuntza-kurba pandemia-uhinen arabera joan da garatzen. 2021. urtean ere egoera larria da oraindik. Gehikuntza hau Mendebalde osoan gertatu da. Hala, pandemia kolateral bilakatu da argi eta garbi.

Bizkaira etorrita, 2020an aurreko urtean baino % 153,33 gehiago izan dira anorexia nerbiosoareen ondorioz arreta psikiatrikoa jasotzeko ospitaleratu behar izan diren nerabeak.

4. Gainera, paziente horien egoera oso txarra izaten ari da: desnutrizio larria izaten dute, eta luzaroan egon behar izaten dute arreta psikiatrikoan. Horren ondorioz, gainezka daude nerabeen ospitaleratze psikiatrikorako unitateak.
5. Nerabe gehiago ospitaleratzten dira arreta psikiatrikoa jasotzera ideia edo jokabide suizida edo autolitikoengatik. 2020ko udazkenean hasi ginen gorakada hori hautematen, eta, geroztik, ziztuan doa gora. Gorakada hori ere Mendebalde osoan gertatu da, beste pandemia kolateral bat osatuta.

Gogoan eduki behar da gure herrialdean eta Mendebaldeko herrialdeetan suizidioa dela bigarren heriotza-kausa nerabeen artean. Espero izatekoa da, orain, jasan ditugun mugitzeko mugak direla-eta, suizidioa izatea lehen heriotza-kausa nerabeen artean.
6. Nerabe gehiago ospitaleratzten dira arreta psikiatrikoa jasotzera trauma osteko antsietate-sintomak larrituta (trauma osteko estresaren nahasmendua): 2020an aurreko urtean baino % 100 kasu gehiago egon dira.
7. Neskak mutilak baino gehiago dira: neskak izan dira azken urtean arreta psikiatrikoa jasotzeko ospitaleratu behar izan diren nerabe gehienak. Anorexia nerbiosoa sarriago agertzen da nesken artean, trauma osteko sintomak dituzten neskak mutilak baino gehiago dira eta neska gehiago ospitaleratzten dira

ideia suizidengatik edota jokabide autolitikoengatik.

Zergatik jasaten dute hain oinaze emozional handia nerabeek?

Gure iritziz zenbait faktorek izan dute eragina egoera larri honetan.

Batetik, nerabeez ari gara. Nerabezaroan pertsonen nortasuna bilakatzen ari da helduarorako bidean. Aldi honetan honelako galderak egiten dizkiote beren buruari: nor naiz? nor izango naiz? Galdera horien erantzunak beren kabuz landu behar dituzte, eta horretarako ezinbestekoa dute harremanak izatea, bai beste nerabe batzuekin (batez ere), bai zaintza-aginteko figurekin. Harreman horien bidez eta eguneroko jardunean eraikitzen dute beren autoestimua eta finkatzen dute beren izaera-nortasuna.

Pandemiak ekarri zien lehen gauza (2020ko martxoan) bakartze orokorra izan zen: konfinamendua. Errotik eten ziren kideekiko harreman sozialak (aurrez aurrekoak, osasungarriak direnak), eta, ondorioz, bertan behera gelditu zen heltze-prozesuaren ardatz nagusia. Eskolako errendimenduak garrantzia galdu zuen, eta, horrekin batera, eskola-arrakastaren balioa murriztu, eta balio hori, hain zuzen, autoestimua garatzeko bitartekoa izaten da nerabe askorentzat.

Pandemiaren konfinamenduak etorkizunaren aurreko zalantzak areagotu zituen herritar gehienek artean (zalantzak norberaren eta ahaideen osasunaz, laneko eta eskolako egoeraz), eta ziurgabetasun horrek antsietate larria eragin zien adingabeei, baita pertsona heldu askori ere.

Horrez gainera, pandemiak larritasuna ere ekarri zigun: gaixotzeko beldurra, batetik, eta beldurra, halaber, ez genekielako zer ondorio ekarriko zituen gaixotasunak familian eta gizartean.

Eta galerak ere izan ziren: ahaideren bat hil edo gaixotu zelako, adiskideak edo ahaideak ezin genitzakeelako ez ikusi, ez bisitatu... Errotik aldatu zen bizimodua, eta nerabe askori begitandu zitzairen hori ez zela bizimodua, eta egoera hori ez zela inoiz amaituko (mugarik gabeko estresa: kronikoa eta iraunkorra).

Gurasoak ere oinazea jasaten ari ziren seme-alabekin batera edo ez ziren ohartzen haien ondoezaz. Horregatik, ondoez emozionalari ezin izan zitzaion arreta eman familien barruan, denak ere gainez eginda zeudelako edo noraezean zebiltzalako pandemiaren ondorioz. Batzuek ez zuten adimen osasuneko laguntza eskatu ere egin, edo prozesu klinikoa erabat aurreratuta zegoela eskatu zuten, ez baitzekiten zer ari zitzairen gertatzen seme-alabei.

Geroago, 2020ko irailean, irakaskuntza presentzialari ekin zitzaion berri ere, baina murrizketak bere hartan mantendu ziren (harreman sozialak, hurbiltasun fisikoa, jarduera sozialak), eskolan kutsatzeko beldurra areagotu zen (ikasturtean zehar eskola-talde batzuk bakartu behar izan ziren); nerabeek autokontrolari eusteko ahalegin handia egin behar izan dute, eta makaldu egin ditu horrek.

Gainera, gizarteak eragina izan du, eta askotan kalterako. Konfinamendua hasi zenetik (2020ko martxoa) komunikabideetan eta sare sozialetan mezu-zaparrada handia izan zen pisua gehitzeko arriskuaren berri zabaltzeko

(nerabeen larritasuna areagotu zen) eta dieten eta ariketa fisikoaren alde egiteko, eta nerabe hauskorrenen (eta egoeraren ondorioz galduta zebiltzan familiek) erabaki zuten horixe zela ondoeza bideratzeko modurik onena: antsietatea kontrolatzea, nola? beren esku zegoen gauza bakarra eginez; alegia, elikadura zorrotzegi kontrolatuz eta etxean ariketa fisikoa eginez.

Halaber, gizarteak 2020ko udazkenean eta neguan (eta gaur egun ere bai) nerabeei okerreko mezuak ematen jarraitu zuen: nerabeei egotzi zaie gaixotasun hilgarria kutsatu dietela ahaideei (batez ere adinekoei eta ahulei). Lehen ere nerabeek beren buruaz duten irudia hauskorra eta zalantzatia bazen, horri guztiari erruduntasun "instituzional" orokorra gehitu zaio. Gizarteko komunikabideetan nerabeei ez zaie behin ere adierazi eskerronik pandemia-garai honetan izan duten portaera bikainarengatik: oso gaizki jokatu dugu nerabeekin eta oraindik ere hala ari gara!

Pandemia osoan osasuna ez da izan gauza herritarren adimen-osasuneko eskaria asetzeko. Hasieran, bertan behera utzi ziren kontsulta presentzialak; arreta murriztu zen eta telefonoz baino ezin zen hitz egin medikuekin. Hori oso kaltegarria da oinaze emozionalari arreta emateko eta horri buruzko kontsultak egiteko, eta are kaltegarriagoa nerabeen kasuan, zuzeneko eta aurrez aurreko harremanak behar baitituzte medikuekin konfiantza-lotura ezartzeko. Geroago, arreta eskatzen zuten nerabeen kopuruak gora egitea batera (2020ko udazkenetik aurrera, batik bat), gainezka ibili dira adimen osasuneko zentroak, larrialdi psikiatrikoetako


zerbitzuak eta nerabeen ospitaleratze psikiatrikoetarako unitateak.

Badakigu nolako arriskua eragiten duten antsietateak, estres kroniko eta iraunkorrak, ziurgabetasunak, galerek, erruduntasunak eta baztertzeko/bakartzeak, depresioa izateko eta konpondu gabeko iraganeko traumak berpizteko. Horregatik, gaur egun asko dira arreta klinikoa behar duten nerabeak antsietatearen, depresioaren edo trauma osteko estresaren ondorioz. Gainera, nerabe batzuek kontrolera jo dute ondoez emozionalari aurre egiteko (hiper-auto-kontrola): gorputzaren eta elikaduraren kontrola. Elikaduraren murrizketak eta ariketa fisiko gogorrak anorexia nerbiosoa larriak eragin dituzte, eta bigarren mailako ondorio gisa desnutrizio larria, eta kasu batzuetan are pisu kritikora iristea ere. Beste pertsona batzuek, inpultsiboenek, ezin izan dute jasan ondoez emozionala, eta bere buruari min eginez edo indarkeriaz jokatzaz baretu dute, eta kasu batzuetan (geroago eta sarriago) suizidiora jo dute.

Kolpatuenak neskak izan dira, faktore horiek gogorrago eragiten baitiete, bai alderdi biologikotik, bai psikologikotik.

Ondorioak eta gomendioak:

- Egungo egoera oso arriskutsua da haurren eta gazteen adimen-osasunerako.
- Ahalik eta arreta psikologiko eta psikiatrikorik onena eta intentsiboena eman behar diegu, honako helburu hauek lortzeko:
 - Ahal bezain azkar eta ondo suspertzeko.
 - Adingabeen adimen-osasunean ondoriorik/mugarik ez izateko.
- Egiteko honetan arrakasta izango badugu, lankidetzan jardun behar dugu gizartearekin eta hezkuntza-eragileekin.




PANDEMIA. KRISIA. LANGABEZIA. AUKERA

JAVIER GARCINUÑO ZABALA

BILBAO EKINTZA udal sozietatearen zuzendaria





Pandemia. Krisia. Langabezia. Aukera. Aldaketa iraultzaileak. Ziurgabetasuna. Hasteko gogoia, emantzipatzeko gogoia. Mutil-lagunarekin edo neska-lagunarekin bizitzeko gogoia. Bidaiaitzeko gogoia. Dirua edukitzeko gogoia. Lan egiteko gogoia. Gauza asko ez ditugu hautatzen; berez datozkigu. Horietako bat da lan-merkatura jauzi egitea, norberaren borondatez edo bultzatuta. Horretarako ez da inoiz tenore egokia. Aldagarri berriak azaltzen zaizkigu nonahi, eta gero eta zalantza gehiago dauzkagu kontratazio-aukerez. Kontratua ez da izaten nahi bezain egonkorra eta ordainsaria ez da izaten nahi bestekoa, baina ezinbestekoa dugu, proiektu pertsonala eraikitzeari ekiteko.

Denok gaude adimen-zurrumbilo eta anabasa ekonomiko eta sozial horretan. Baita zu ere. Luze daramazu kontratu baten zain edo elkarrizketa baten ondoren dei baten zain, eta ideiaz beterik duzu burua, etengabe aztertzen ea gauza izango ote zaren zeure kabuz negozio edo enpresa txiki bat abiarazteko, zeure kontura aurrera egiteko.

Lerro hauek idatzi dizkizut, egoera horretan bazeunde ere, erabilgarriak izan litezkeelakoan. Pozik hartuko nituzkeen nik honelako hitzak, zu orain zauden atakan egon nintzenean. Hau idaztean gogoan eduki dut bizi izan dudana.

Ekintzaile, ezinbestean. Baliteke. Ez dut aurkitzen besteren konturako lanik eta neure kabuz hasiko naiz. Irtenbide alternatiboa. Dena dela, nire ustez hobe bokazio apur bat baduzu. Barruko bultzada bat, egin beharrekoak egitera eramango zaituena. Ez dadila izan beste irtenbiderik ez daukazulako.

Nolanahi ere, argi eduki behar duzu non sartuko zaren. Enpresa-porrotak ondorio ekonomikoak eta ondorio pertsonalak ekar litzake. Komenigarriak dira oreka pertsonala eta heldutasuna, eta norberaren indarguneak eta ahulguneak ezagutzea ere bai. Batzuetan bakarrik egongo zara eta noraezean, eta, orduan, asmo eta nortasun sendoak beharko dituzu.

Ideaia. Baliteke ideia ona edukitzea produktuak, zerbitzuak edo are merkatu-soluzioak garatzeko. Baina ideia bat ez da berez nahiko enpresa-proiektu bat abian jartzeko. Ideia bati esker produktu bat erabat garatu daiteke, prototipoa sortu, patentea edo erabilera-lizentzia lortu, fabrikazioari ekin, produktua salmenta-kanalean kokatu eta abar... baina enpresak ezin dira eratu produktu bakar batez.

Lehiarako abantaila. Zertan zaren ona. Zer eskaintzen diezun bezeroei eta erabiltzaileei zuk, ekintzaile gisa, eta zure enpresak, beste lehiakideek eta antzeko beste produktu batzuek ematen ez dutenik. Jasangarria da lehiarako abantaila hori? Are gehiago, eraiki zenitzake hesiak, zeure merkatuan lehiakiderik ez sartzeko?

Inbertsioa. Aztertu dituzu merkatua, bezero potentzialak, zeure produktuen/zerbitzuen prezioa, marjinak, egitura-gastuak eta salmenta-kanala. Eta emaitzak onak dira. Badago negozio-aukera. Itxura ona hartzen diozu etorkizunari. Hasieran gauzak motel joango dira; aldi batez ez duzu eskaerarik jasoko. Denbora beharko duzu kobratzen hasteko. Baliteke batzuetan ezin kobratu izatea ere. Hala ere, aurrera.

Enpresa-eredua faseka garatu behar duzu. Mugarriz mugarri egingo duzu aurrera, merkatuko aurreikuspenak betez gero. Etapa bat gainditutakoan, hurrengorako inbertsioak egingo dituzu. Hasieran, inbertsioak ahalik txikiena izan behar du. Eduki duzun ideia merkatuan kontrastatu behar duzu. Bezeroek finantzatu behar dute zure garapena, zure merkataritza-marjinaren bidez. Hazkunde organikoa ez bada aski

enpresa nahi duzun beste garatzeko, lehen faseko errentagarritasuna berme nahikoa izango da kanpoko finantzabideak lortzeko. Ez dituzu egin behar inbertsio guztiak hasieran. Horrek ez du ziurtatzen arrakasta; gainera, zerbait okertzen bada eta ez baduzu lortzen espero zenuena, baliteke inbertsioa ezin berreskuratu izatea.

Bakarrrik edo lagunekin. Seguruenik haxe da ezbairik zailena. Izan ere, bakoitzaren kasua berezia da. Proiektua bazkideren batekin abiatuz gero, argi gelditu behar da zer egin behar duen bakoitzak eta zer jasoko duen ordainean. Zehaztu behar da zein diren bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak eta egitekoak, eta nolakoa den hierarkia. Sarritan, ez dugu jakiten bereizten jabetza eta kudeaketa. Kasu batzuetan jabeek ez dute parte hartzen kudeaketan, eta beste batzuetan kudeatzaileek ez dute parterik jabetzan. Jabeek (akziodunek) inbertsioaren itzulkina jasotzen dute dibidenduen bitartez, mozkinik egonez gero eta batzar nagusian dibidenduak banatzea erabakiz gero. Kudeatzaileek lanaren itzulkina jasotzen dute soldataren bidez. Pertsona bat jabea eta kudeatzailea izan daiteke aldi berean, edo ez.

Enpresa gobernatzeko eredua argi eduki behar da hasieratik beretik. Nork hartzen dituen erabaki estrategikoak enpresan eta nolakoa den erabakiak hartzeko ahalen oreka.

Aholkularia. Norbait behar duzu erabakiak hartzen laguntzeko. Ahal dela, enpresatik kanpoko; hau da, zuzeneko interesik ez daukan pertsona. Hala, zure erabakiak aztertu ahal izango dituzu haren eskarmentuarekin eta aholkuekin. Egia esango dizu, bere

iritziaren arabera, azaltzen dizkiozun gaiei buruz. Ekintzaileek hurbilegi bizi dute beren enpresa-ideia (batzuetan ametsa izaten dena), eta ez dituzte erraz onartzen ideia kritikoak. Hurbileko pertsona bat, gauzak zalantzan jartzen dituen, oso onuragarria izan daiteke ekintzaileentzat.

Elkarteak. Ideia edo proiektua zaindu behar dugu. Legez, patente bidez, banaketa-kontratua sinatuz edo ahal den moduan... baina, aldi berean, proposamenaren berri eman behar dugu, are hasierako garapen-fasean ere. Proiektuaren jakitun diren pertsonen produktua edo zerbitzua ondo zehazten lagunduko digute.

Helburua. Argi eduki behar ditugu helburuak. Zer gerta litekeen jakin behar dugu. Baina, azken finean, merkatuak taxutuko du proposamena. Merkatua da nagusi; berak esango digu bai ala ez. Eta merkatuaren (bezeroen) iritziei kasu egiten badiegu, eskaintza aldatu ahal izango dugu.

Ekintzailletza-prozesu baten bidez enpresa bat sortzeko, produktu bat sortzeko edo zerbitzu bat egiteko prozesu osoa zehaztuta, aukerak aztertu

behar dira, ondoren proposamena prestatu eta gero gauzatu; horrek guztiak akidura izugarria sortzen du norberarengan. Nork bere burua hobeto ezagutzeko aukera ere bada. Baina erabaki hori ez dugu hartu geure burua ezagutzeko, arrakasta izateko baizik, ongi irteteko. Hala izango ahal da! Dena ongi aterako ahal zaizu! Hala ere, egon prest, eduki gogoia gertu, ongi aterako ez balitz ere. Gerta bailiteke arrakasta komertzialik ez izatea. Eta enpresa itxi behar izatea. Eta, hala ere, merezi izango du. Prestatu zeure merkataritza-harremanak, lan-harremanak eta finantza-harremanak ekintzaile modura arrakasta lortzeko, enpresak porrot eginik ere, balantzea aldekoa izango duzu eta. Enpresa-ekimen batek huts egin arren, ezagutza, kontaktuak eta esperientzia ekarriko dizkizu, eta ezinezkoa zatekeen horiek lortzea, proiektua abian ipini izan ez bazenu. Batzuetan, arrakasta izateko, aurretik kale egin behar da.


Laguntza teknikoa behar baduzu enpresa-proiektu bat abian jartzeko eta Bilbon bizi bazara edo proiektua Bilbon ezarri nahi baduzu, gertu gaituzu, gura duzun guztirako:
www.bilbaoekintza.eus. Animo!

GAZTEAK ETA EUSKARA PANDEMIA GARAIAN

JONE GOIRIGOLZARRI GARAIZAR

Deustuko Unibertsitateko irakaslea. Gizarte Zientzietan doktorea eta Soziologian eta Gizarte eta Kultura Antropologian lizentziatua





COVID19ak eragindako egoerak bizitzako esparru guztiei eragin die, baita hizkuntzen kudeaketa eta erabilerari ere. Alarma-egoera ezarri eta lasterrera hasi ziren ardurak. Mundu mailan gaitz kutsakorrari aurre egin eta informazio oker eta engainagarria ekiditeko osasun publikoaren gaineko informazioa herritarrek ulertzen dituzten hizkuntzetan helarazteko beharra aldarrikatu zuten aditu ugari. Gurean, krisiaren kudeaketan euskara bigarren plano batean geratu izana ohartarazi zuten euskalgintzako eragile eta herritar askok; eta itxialdian zehar ardura berezia sortu zuen aurrez aurreko eskolarik gabe geratu ziren ume eta gazteen kasuak. Itxialdi-osteko pandemia testuinguruak ere izan du eraginik gazte askoren euskara erabileran. Idatzi honetan hizkuntza gutxituaren erabileraren aldeko mudantza prozesuetan murgilduta dauden herri giro erdaldunetako gazteen bizipen eta esperientziak izango ditugu hizpide, pandemiak prozesuotan zernolako eragina izan duen hausnartzeko. Horretarako, azken hilabeteotan Equiling ikerketa

proiektuaren baitan egindako hainbat elkarrikketa eta aurretik metatutako ezagutza izango ditugu oinarri.

Euskalgintzan diharduten agenteen artean adostasuna zabala da: euskararen biziberritze-prozesuaren egungo erronka nagusia erabileran dago; alegia, euskara ikasi eta ezagutzen dutenak “hiztun aktibo” bilakatzeko hautua burutzean. Aktibazioa baina ez da egiteko erraza. Euskararen erabileraren aldeko mudantza prozesuak oso prozesu malkartsuak izan ohi dira berez, hizkuntzaren presentzia soziala murrizta den testuinguruetan, behinik behin. Hala, euskara erabiltzeko hautu kontzientea burutzea prozesu luze eta gorabeheratsu baten lehen urratsa izan ohi da, non “arrakasta” ez dagoen ziurtatuta. Gaztelania hizkuntza nagusi den herrietako gazte askoren sentipena da euskararen erabilera ez dutela inoiz bermatua: garai batzuetan euskara agertuko da, indartsuago ala motelago, beraien bizitzetan, eta beste batzuetan berriz lozorroan sartuko da, ahalik eta

denbora batera atzera ere loratzen hasi arte. Pandemia lozorro luzea izan da gazteotako askorentzat, beraien euskararen aldeko ibilbideak zeharo kolpatuz.

Osasun krisiari aurre egiteko neurri aldakorrek -udalerrien itxiera perimetrala, etxeratze-agindua, elkarretaratzeko mugak, tabernen ordutegi murrizketak, etab.-, gazteen bizitza hankaz gora jarri dute. Hala, etxeak eta ikasketa eremuak inoiz eta protagonismo handiena bereganatu dute gazte askoren bizitzetan. Unibertsitateko ikasle batek adierazi bezala, pandemia garaian unibertsitatea izan da berarentzat adinkideekin sozializatzeko ia espazio bakarra. Hala, gazteak beraien garapenerako horren garrantzitsua duten aisialdi edo, zehatzago esateko, aisia-gune gabe gelditu dira. Gaua desagertu zaie, aktibismoa murriztu, kultur eta kirol jarduerak gutxitu. Eta horrek denak harreman sarea aldi baterako zeharo murriztu die. Lagun intimoenez harago, hilabetez egon dira ezagun asko ikusi eta jende berria ezagutu gabe.

Deskribatutako egoerak euskararekiko kontaktuan ere nabarmen eragin die gazteei, baita modu ezberdinean eragin ere. Sare intimoetan, zeinetan pandemiak gutxien eragin dituen, euskara erabiltzeko aukeraren bat duten gazteek zelan edo halan euskararekiko lotura mantentzea lortu dute; berriz, erabilera aukerak esparru eta harreman sozial zabalago eta noizbehinkakoagotan dituztenek, hala nola, euskararekin identifikatzen dituzten jarduera eta guneetan -Bilboko Kafe Antzokian, herri eta auzoetako txosna giroan, aktibismoan, etab.- euskara erabiltzeko aukerak erabat

murriztuta ikusi dituzte. Aldi berean, berriz, pandemiak inposatutako egoera aukera moduan bizi izan dutenak ere izan dira, erabilera esparru berriei tartea eginez. Esaterako, itxialdian eta teknologiek eskainitako baliabideak probestuz praktika komunitate birtual ezberdinetara batu direnak, umeeekin mintza-praktika saioetan konprometitu direnak, literatura euskaraz irakurtzeari ekin diotenak, etab. Edonola ere, pentsa daiteke euskararen hiltun aktibo izateko ahaleginean diharduten testuinguru oztopotzaileetako gazte askoren bizipenean pandemiak etenetik aukeratik baino gehiago izan duela.

Euskara erabileraren aldeko mudantza prozesuetan baina hizkuntza erabiltzeko aukerak izan edota aukerak hautematea ez da elementu giltzarri bakarra. Prozesuotan elementu emozionala ere gako garrantzitsua da. Emozioak hizkuntza gutxituekin lotutako esperientzia guztietan daude presente: hiltun aktibo bihurtzeko motibazioan, unean-unean hizkuntza bat ala beste aukeratzeko gogo-aldartean, elkarrekintza jakinetan zein luzera begira hizkuntzari eusteko irmotasun eta pertseberantzian, lortutako emaitzaren pertzepzioan, etab. Lotsa, tristezia, frustrazioa, poztasuna, ilusioa, harrotasuna zein beldurra oso sentipen orokortuak dira mudantza prozesuetan, eta euskararen erabilerari begira elementu indartzaile ala mugatzaile moduan jokatu dezakete. Pandemiaren bigarren olatuan Gazteen Euskal Behatokiak egindako inkestak erakutsi du gazteek *amorrua*, *kezka*, *asperdura*, *tristura*, *antsietatea* nabarmen sentitu dituztela azken hilabeteotan. Motibazio falta eta apatia ere normalean baino barreiatuago egon dira gazteen sentipenetan. Pentsatzekoa

da aldarte orokortu horrek ere izan duela eraginik euskararen erabileran. Horrela zioen euskararekin erabat konprometituta dagoen Bilbotar gazte batek Euskaraldiaren bigarren edizioan parte hartuko zuen galdetuta:

Orain, niri gertatu zaidana da, desmotibatuta nagoenez, agian konfinatuko gaituztelako edo mila gauza egin nahi dituzu, nik ere ez ditut ilusioak egin nahi. Esan nahi dudana da, o sea, azkeneko urte honetan bizi izan ditut hainbeste frustrazio, nagoela une batean ez dakit... ilusioa badut, baina ez dut topera joan nahi ezerrekin, zeren ilusioa hartu eta frustratuko naiz, eta Euskaraldiarekin berdin. [...] Lehen arazoak bagenituen orain arazo gehiago. Indarrak neurtu behar dira, eta nik inkluso, pentsatu dut ez parte hartzea. Orain dela bi urte izango zen, bueno, bueno, bueno... ez nioke nire buruari inoiz barkatuko. Orain ba, beitu, ariketa bat da... nik neure burua zaindu behar dut, ez da kasua baina adibide bat da, igual ez da momentua, eta igual ez dut esfortzu hau egin nahi. Igual da: utz nazazue bakean!

Aipu honek euskararen aldeko mudantza prozesuen funtsa ulertzeko gako asko eskaintzen dizkigu. Hasteko eta behin, bere dimentsio emozionala eta izaera gorabeheratsua. Zentzu horretan, ezin dezakegu ahaztu hizkuntzak gazteen bizitza alderdi bat gehiago direla eta, nahiz eta garrantzia handikoa izan, askotan bestelako elementu batzuk aurrea hartzen

diotela. Hala, esan daiteke, euskararen erabileraren aldeko hautua oso zirkunstantziala dela askotan, euskaraz mintzatuko diren harreman sareak egonkortu arte, behinik behin.

Amaitzeko, pandemiaren testuinguruan hainbat gazterekin egindako elkarrizketek agerian utzi dute erabilera hizpide dugunean aurrez-aurreko elkarrekintzek duten nagusitasuna. Nahiz eta azken hilabeteetan sare sozialen erabilera nabarmen ugartu, egun oraindino komunitatea *offline* irudikatzen dugu, gure egunerokoan teknologiek duten indarra bigarren plano batean jarriz.


Pandemia gure eguneroko "normaltasunaren" eten edo parentesi moduan ikusteko nahia agertu dute komunikabide zein jendartearen parte esanguratsu batek, ezagunak lasaitasuna ematen omen digulako eta segurtasuna eskaini. Beste batzuentzako esperimentu erraldoia izan da gehiago. Ezin ukatu daiteke pandemian zehar gauza asko eta eremu askotan gertatu direla. Horietako zenbaitek garatzen jarraituko dute eta beste batzuk lehengora bueltatuko dira. Momentu honetan ikerlarion egitekoa hilabeteotan gertatutakoa arretaz dokumentatzea da, joera berriak identifikatzea eta aurrera begira jartzea. Euskalgintzari egokituko zaio, beste behin, euskal komunitatearen lidergoa hartuta, berritzaile izatea eta euskara erabiltzeko aukera berriak berasmatzea.

PARTE-HARTZEA, GAZTERIA, PANDEMIA, ETAB.

JOSU GRANDIBAL MAGUREGI

Kiribil Sarea-ko sustatzaile soziala





Gazteek parte hartzea beren komunitateetan konpromiso aktibo bat hartzea da, parte hartzen duten arloa edozein delarik ere: politika, hezkuntza, kirola, aisia, hirigintza, kultura, etab.

Nork ez du noizbait esaldi hauetako bat entzun? Edo agian guk geuk esan ditugu? *Gazteek ez dute parte hartzen! Gazteek ez dakite parte hartzen! Non dago gazteria!*

Galdera eta esaldi horiek aspalditik entzun izan dira, ez da Covid-19a agertu behar izan horretarako.

Gazteen parte-hartzearen argazki bat egiten dugunean, helduen ikuspegitik egiten dugu, gogoratzen ditugun gauzetatik, eta ez dugu onartzen gaurko gazteak eta garai batean gazte izan ginenok ez garela berdinak: beste premia batzuk daude, testuingurua ezberdina da.

Gure esperientziaren bidez ikasi ahal izan dugunaren arabera, gazteak beren artean oso ezberdinak dira, ez dago gazteria bakar bat, baizik eta gazteria asko, eta gazteen gogoak eta desioak sakontasunez ezagutzeko benetako aukerak izateko, gazteekin bizi behar da eta haiek entzun behar dira.

2020ko martxoan hasitako pandemia mugarri bat izan da gure bizitzako arlo askotan. Izan ere, kontua ez da ez garela berriz ere biziko lehen bizi ginen moduan; kontua da esperientzia eta bizipen honek oso kalteberak izan gaitzkeela erakutsi digula.

Gazteek, pandemia aurretik egiten zuten moduan, parte hartzen, mobilizatzen, proiektuak sortzen eta dinamizatzen jarraitu dute, bai auzoetan, zein herrietan, komunitateetan, etab. ere, eta bai online zein aurrez aurre ere (murriztapenekin edo gabe), beren interesak eta premia kolektiboak oinarri hartuz.

Hilabete hauetan zehar, beste hainbat egoera eta premia sortu dira, horietako asko funtsezkoak izan direnak.

Komunitateek erantzun egin dute eta gazteak, herritarren parte-hartze honetan, funtsezkoak izan dira eta protagonista bihurtu dira, kolektiborik kalteberenetan lan egin baitute.

Funtsezkoak izan dira pertsonen laguntza eta zaintza emateko:

- hainbat hezitzailek esku-hartze soziala eta heziketakoa egin dute adingabeekin pantailaren bidez, alderdi emozionalarekin lagundu diete, zaintza afektiboak eman dizkiete, topaketarako eta aisialdirako aukerak erraztu dizkiete, etab.;
- beste gazte batzuek pertsona kalteberei (adinekoak, bakarrik bizi diren pertsonak, dibertsitate funtzionalen bat duten pertsonak, etab.) lagundu diete bizitzako jarduera funtsezkoetan, oinarritzekoetan eta instrumentaletan.

Haietako askori aurrez aurre lagundu diete, baina ezin izan da beti ere hala egin. Online formatua erantsi da. Hasieran, formatu hotza eta urrunekoa zen, baina azkenean, tresna oso baliagarria izan da: IKTak, parte-hartzea, pertsonen laguntzea, etab. elkarrekin loturik egon dira garai hauetan.

Pertsona gazteentzat ez da izan hain gauza berria; izan ere, urteak daramatzate astialdian gailu digitalen erabilera eta pertsonekin egotea uztartzen.

Pandemia hau oso konplikatua ari da izaten gizarte guztiarentzat. Baina

gazteria da eragin gehien jasaten ari den kolektiboetako bat:

- alderdi emozionalari dagokionez, ehuneko handi batek osasun mentalarekin lotutako zailtasunak izan ditu konfinamenduaren ondoren: umore-aldaketak, tristezia, asperdura, ziurgabetasuna, etab.;
- alderdi ekonomikoko eraginak;
- aldaketak izan dituzte erabakiak hartzeko eta arazoak konpontzeko gaitasunean;
- kontzentrazioarako zailtasuna, ikasketa-orduak gehitzea;
- ziurgabetasuna etorkizunaren aurrean.

Horrek guztiak gogo-aldarteari, motibazioari eta bizitzako beste hainbat alderdiri eragiten die, esaterako, parte-hartzeari eta komunitatearekiko konpromisoari.

Helduok, entzun al diegu? Galdetu al diegu? Ulertu al ditugu?

Gainera, sarritan, gazteei arduragabeak izatea leporatzen zaie, batzuetan estereotipoetan oso oinarrituta, eta ez dute nabaritu pandemiari erantzuteko unean beren premiak eta baldintzak kontuan hartu direnik, nahiz eta gazteen belaunaldia eragin handia jasaten ari den. Horren ondorioz, belaunaldi honek marjinazio-sentsazioa du nabari.

Gizarte honek gazteei beren espazioa emateko erronka du, merezi duten espazioa. Protagonistak izan daitezela, besteok ere protagonista garen

heinean. Aldaketaren eragileak dira, aldaketa-sortzaileak.

Gizarte gisa, hauek ahalbidetu behar dizkiogu gazterari:

- behar duten autonomia, beren premia eta interes propioei modu autogestionatuan erantzuteko gaitasunei dagokienez;
- beren errealitatea oinarri harturik talde-lana, alegia, lan kolektiboa egiteko gaitasuna, aldaketarako ekimenak sor ditzaten;
- parte-hartzea, beren premiak eta eragiten dieten gaiak oinarri hartuz;
- lankidetzako ikaskuntza eta balioak sustatzen laguntzea;
- sarean lan egitea, lanerako modu horizontala eta aberasgarria den heinean;
- inklusibitatea eta askotariko iritzi, ikuspuntu, ideologia eta bizimoduei errespetu handiena zor izatea, pertsonen artean errespetuzko loturak izateko ahalegin bat eginez eta pertsonen arteko elkarrizketa sustatuz;
- ikaskuntza- eta esperientzia-prozesuak;
- sormena; intereseko gaien gaitasuna izan daitezkeen ikuspegi ezberdinak sortzea eta azaltzea; ikuspuntu ezberdinetatik eta

irekietatik begiratzen ikastea; ikuspuntu ezberdinei aurre egiteko beharrezko tresnak edo prozedurak izatea pentsamendu dibergentea esnatzeko; emozioak adieraztea eta praktikara eramatea askotariko diziplinen bidez.

Gure gizarteak erronka hauek ditu:

- gazteei dagokien espazioa ematea;
- izan behar duten protagonismoa ahalbidetzea;
- haiek entzutea, beren premiak, beldurrak eta ezinegonak azal ditzaten;
- ahalduntzea;
- haiekin elkarlanean aritzea;
- prozesuetan laguntzea;
- erabakiak hartzeko gaitasuna ematea.

Pandemia hemen dago, eta geratu edo joan egingo da. Lan egiteko, lankidetzan jarduteko eta parte hartzeko modu berriak sortu dira. Pertsonak eta gazteek premiak izaten jarraitzen dituzte, motibazioak gora edo behera egiten du; baina lan egiten jarraitu behar da, talde edo komunitate mailan eraikitzeko.


Gazteak onbideratzen, birstortzen, sareak sortzen ari dira, eta hori guztia eraikitzen jarraitzeko aukera moduan bizi behar dugu.

PANDEMIA ETA PANDEMIAK GAZTEENGAN ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN DITUEN ERAGINAK

IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria





Krisi ezeinek ez die berdin eragiten pertsona guztiei. Beti sortzen die eragin negatibo sakonagoa lehendik kalteberatasun handiagoko egoeran zeudenei, hau da: lan prekarioak dituzten edo enplegurik ez duten pertsonai; etxerik gabeko pertsonai; desgaitasunen bat edo gaixotasun kronikoak dituzten pertsonai; pertsona nagusiei; migratuei, etab. Krisiek, orokorrean, eta, bereziki, COVID-19ak sortutako pandemiak, aurrez existitzen ziren desberdintasunak argi eta garbi ikusarazteko eta handiesteko boterea dute. Era berean, gure gizartean oraindik ere irauten duen emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren ondorioz, emakumeek eta neskatoek, kalteberatasun handiagoko talde horien barruan, arrisku gehiago jasan dituzte krisi honetan, diskriminazio, indarkeria eta eskubide-urraketari dagokionez.

Pandemiak modu ezberdinean eragin die emakumeei eta gizonei, ez soilik gaixotasunaren prebalentziari dagokionez, baizik eta baita ongizate emozionalaren, familiarteko

harremanen, zaintza-arduren, enpleguaren, gizarte-bazterkeria mailen eta abarren ondorioei dagokionez ere. Izan ere, eragin diferentzial horrek ondorioak sortu ditu gazteengan, orokorrean, eta, bereziki, emakume gazteengan, bai lan-eremuan, zein harreman afektiboen eta sozialen eremuan ere, besteak beste.

Lehenik eta behin, COVID-19ak gazteengan izan duen eragina aztertzeko, kontuan izan behar da gazteen taldea ez dela homogeneoa; aitzitik, talde anitza eta heterogeneoa da, bizi-eredu eta -proiektu ezberdinak planteatzen dituen, eta nahiz eta aniztasun hori beren indargunea izan, aniztasuna bera ere erronka handi bat da beren premiei erantzuteko neurriak planteatzeko unean.

Ez dugu ahaztu behar gazteek, orokorrean, zailtasunak izaten dituztela kalitatezko lan bat lortzeko edo etxebizitza bat eskuratzeko orduan, eta horrek, azken finean,

zailtasunak sortzen dituela bizi-proiektu independenteei ekiteko; zailtasun horiek, gainera, areagotu egin dira pandemiak sortutako krisiaren ondorioz.

Era berean, kontuan izan behar dugu emakume gazteek zailtasun gehiago izaten dituztela, emakumeak izateaz gain, gazteak izateagatik ere jasaten baitute diskriminazioa, eta diskriminazio hori areagotu egin daitekeela diskriminazio anizkoitza jasaten dutenen kasuan, esaterako: emakume gazte nekazariak, emakume migratuak, emakume arrazatuak, desgaitasunak dituztenak, etab.

Enplegua ardatz hartuz gero, gazteek oztopo handiak izaten dituzte, esaterako, kalitatezko lanaren gabezia, aldi baterako lan-kontratuak, lan-baldintza okerrak, etab. Pandemiak bortizki murriztu ditu lan-munduan txertatzeko aukerak, eta ondorioz, etorkizun bat irudikatzeko aukera. Gazteentzat eskuragarri zeuden lan gehienek behin-behinekotasun eta prekaritate ezaugarriak zituzten dagoeneko pandemia aurretik; beraz, krisi honek ondorio oso larriak izan ditu soldata duin bat irabazteko, eta, hortaz, bizitza autonomo bat izateko orduan. Emakume gazteen kasuan, egoera hori areagotu egiten da, kasu askotan enplegu prekario feminizatuak betetzen baitituzte.

Egoera honek ziurgabetasun izugarri handia eta lan-eremuko etorkizun zalantzarik sortu ditu, eta horrez gain, gazteei harreman sozialak izateko aukera kendu die, sasoi horretan hain garrantzitsua izaten dena. Gainera, gazteek, konfinamenduan, intimitate-espazio ia guztiak galdu zituzten. Kontu horiek modu erabakigarrian eragin diote

nerabe eta gazteen osasun mentalari, are gehiago neska eta emakume gazteei, denbora gehiago eman baitute online-jardueretan, eta horrek arrisku handia sortzen baitu jazarpen- eta indarkeria-egoeren aurrean.

Espazio birtualek lehendik zutena baino protagonismo handiagoa izan dute online harremanetan, eta horrez gain, kasu askotan, genero-rolak indartu dira espazio horietan, esaterako: neska gazteek hainbat iruzkin jasan behar izan dituzte sareetan, gorputzen lehia sortu da, gorputzak gehiago hipersexualizatu dira edo inguruneke presioa izan da. Era berean, neska gazte askok bakartzea jasan behar izan dute, bikoteek sare sozialen bidez kontrolatu dituztelako.

Bestetik, azterlan hau argitaratu dugu eta gure webgunean eskuragarri jarri: “Berdintasuna pandemia-garaian. COVID-19aren eragina genero-ikuspegitik”. Azterlan horretan, pandemiak emakumeengan, orokorrean, sortutako hainbat ondorio jaso dira, honako hauekin lotzen direnak, besteak beste: zaintza-lanen gainkarga (pertsonek nagusiak zaintzeko edo haurren eskolaz kanpoko zerbitzuak eten egin dira); zaintzarekin lotutako lan-jarduerak; gehienbat emakumeen presentzia duten eremuak, esaterako, osasun-arreta, farmaziak, zaharren egoitzak, etxez etxeko laguntza-zerbitzua, garbiketa-zerbitzuak, elikadura-merkataritza, etab.

Kopuruek ere adierazten dutenaren arabera, emakumeek bete dituzte pandemiari aurre egiteko lan gehienak, ez soilik etxeetan, baita arlo sanitarioarekin eta soziosanitarioarekin zuzenago lotutako lanpostuetan ere. Eta, era berean, feminizatutako eremu

askoren prekarietate-baldintzen (soldata txikiak, gainkarga, behin-behinekotasuna, etab.) ondorioz, enplegu-suntsiketak ondorio larriagoak izan ditu emakumeen artean.

Zalantzarik gabe, pandemiak gehiago ikusarazi ditu gure gizartearen gabezia eta desberdintasun asko. Horren ondorioz, krisi honetatik ateratzen garenean, aukera bat izan dezakegu egoera horien aurrean aldaketa bat sustatzeko, gizartea desberdintasuna sortzen duen egitura izan ez dadin. Horretarako, bai genero-ikuspegia bai ikuspegi interseksionala izan behar dira kontuan, pertsona bakoitzak bizi dituen errealitateak ezberdinak direlako eta denak izan behar direlako kontuan.

Eztabaida feministak presentzia handia izan du pandemian zehar, eta nabarmen utzi du genero-ikuspegia txertatu egin behar dela osasun-krisi global honen ondorio sozial eta ekonomiko larriei eta emakume eta gizonengan izan dituen eragin ezberdinei erantzuna emateko.

Hala azaldu dute baita ere, argi eta garbi, Nazio Batuek, Europar Batasunak edo Lanaren Nazioarteko Erakundeak, besteak beste, zeinek emakumeen eta gizonen premia ezberdinak zein abiapuntu-egoera ezberdinak ere

kontuan izateko eskatzen baitigute. Izan ere, genero-ikuspegia txertatzeak baldintzatu egingo du, neurri handi batean, krisi honetatik nola aterako garen.

Beraz, azterketa zehatza egin behar da, eta azterketa horrek errealitatearekin bat egin beharko du, ahal den heinean, COVID-19aren askotariko dimentsioek neska eta mutil gazteengan izan duten eragin diferentziala ezagutu ahal izateko, eta honako hauei bide emateko: batetik, neska eta mutil gazteen arteko kontratazioan eta batzuen eta besteen arteko emantzipazioan gaur egun dagoen arrakala saihesteko, eta, bestetik, COVID-19ak neska eta mutil gazteen osasun mentalean izan duen eraginean genero-ikuspegia txertatzeko.

Erronka izugarri handia da. Gogoratu behar dugu belaunaldi batek bi krisi jasan dituela jarraian, eta ondorioz, sektoreanitzeko itunak beharko direla modu zehatzean eta berritzailean erantzun ahal izateko.


Gaitasun eta konpromiso handiko gazteria dugu. Ziur nago aukera bat ematen badiugu, gizarte honek behar dituen berrikuntzak eta eraldaketak bultzatuko dituztela. Haiek dira gure etorkizuna eta itxaropena.

GAZTEAK PANDEMIAN: GANORABAKO, AXOLAGABE, ERRUDUN?

LARRAITZ MENDIZABAL USABIAGA

Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteko teknikaria





Iazko azaroan, CISEk egindako inkesta batean galdetu zuten Espainiako gizarteko zein sektore ari zen Covidaren aurkako prebentzio neurriak diziplina gutxienez errespetatzen. Horrela, inolako erantzunik iradoki gabe. Pentsa genezake batzuek erantzungo zutela “herri txikietako biztanleak”, beste batzuek “negazionistak”, edo nik zer dakit, “telebistako aurkezleak”, “erretzaileak”, “futbolariak”, “politikariak”, edo sarri arazo sozial askoren errudun jotzen diren “immigranteak”. Baina ez, Espainiako estatuko hamar herritarretik seik esan zuten “gazteak” zirela diziplina gutxien erakusten ari zirenak. Eta ez dut uste EAEn iritzia oso desberdina izango zenik. Benetan hala al da? Gazteak hain ardura gutxiarekin aritu al dira pandemiaren hedapena oztopatzeko neurriak betetzean?

Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak iazko urrian egindako inkesta batean herritarrei galdetu zien zenbateraino betetzen zituzten Covid-19aren aurkako zenbait neurri, eta aipatzekoa da 18 eta 29 urte bitarteko gazteek gainerako adin

taldeetakoek baino neurri txikiagoan adierazi zutela zuzeneko harreman kopurua gutxitu zutela, harreman horien maiztasuna txikiagotu zutela, jendearekiko distantzia mantentzen zutela eta musukoa erabiltzen zutela egoera zehatz batzuetan. Gazte gehienek neurri horiek betetzen dituztela diote, baina ez nagusiagoek adina. Beraz, inkestatuek beren jokabideari buruz emandako informazioari kasu egiten badiogu, badirudi neurri batean behintzat, gazteek diziplina gutxiagorekin betetzen dituztela prebentzio-neurriak.

Egia esateko, badituzte horretarako arrazoiak. Ezarri diren neurrien eraginkortasunari buruzko iritziek, neurriak ez betetzeak lituzkeen ondorioek eta egiturazko hainbat faktorek baldintzatuko zuten jokaera hori, baina hona hemen, nire ustez bi nagusiak: alde batetik, gaixotzeko eta are, hiltzeko beldurra arauak betetzeko oso eragile indartsua izan daiteke, benetan uste badugu arau

horiek betetzeak arriskua murrizten duela. Baina gazteek ez dute arrazoirik ikusi beren osasunagatik beldurtzeko, pandemiaren hasieratik argi egon da ez zutela arrisku berezirik kutsatuta ere. Beren adinkide asko ikusi dituzte Covid-19a sintomarik gabe edo oso sintoma arinekin pasatzen. Bestetik, prebentzio neurriek gazteen bizitzaren erdigunea diren harreman sozialei erasotzen die bete-betean. Gazteen garapen psiko-sozialerako ezinbesteko mekanismoak gogor kaltetzen ditu eta itzuliko ez diren aukera eta egoerak betiko galtzeko sentimendua eragiten die. Horrek esan nahi du neurri horiek zorrotz betetzeak gazteei eskatzen dien ahalegina sekulakoa dela; eskatzen diegun sakrifizioaren tamaina eta, eginez gero, beren osasunerako lortuko duten onura ez datozela inolaz ere bat.

Bere osasuna ez badute arriskuan ikusi, zerk bultzatu ditu gazteak arauak betetzera, beste adin-talde batzuetakoek baino neurri txikiagoan bada ere? Isun gogorrek jasotzeko arriskuak izango zuen eragina, baina esango nuke beste bat izan dela prebentzio neurriak betetzeko eragile nagusia: besteekiko ardura edo elkartasuna. Gazteek ez dute larri gaixotzeko beldurrik izan eta ahalegin izugarria eginez, oro har, prebentzio neurriak bete badituzte, ingurukoekiko arduragatik izan da, beraien jokabideagatik beste inor gaixotzea ekiditeko. Hori behintzat baloratu beharko diegu, ezta? Hain gazte ez garenok prest al geundeke elkartasunagatik bakarrik hainbesteri uko egiteko?

Gazteek pandemian zehar izaten ari diren jokabideari buruz jaso ditugun mezu nagusiek ez dute, ordea,

elkartasun edo ardura horretan jarri arreta. Hedabide eta sare sozialetan ikusi ditugun irudi askok, gehien zabaldu diren albisteek eta zenbait agintariren aipamenek gazteak arau hauste arriskutsuekin, jende pilaketa handiekin, kale-zurrutarekin eta festa giroko gehiegikeriekin lotu dituzte batez ere. Osasun arduradunek arriskutsutzat hartzen dituzten zenbait jarduera justifikaezinak dira, baina horiek gazteekin bakarrik identifikatzea ez da onargarria. Hilabete hauetan, jada gazteak ez direnek ere osasunarentzat arriskua dakarten gauza asko egin dituzte (Gabonetako familia elkarretaratze handiak, kuadrilla edo lankideen bazkari edo afariak, tabernetako terrazetan musukorik gabe egotea, bigarren etxebizitzara joatea mugikortasun arauak hautsiz, eta abar); horiek ez dira hainbeste zabaldu eta talde jakin batekin identifikatu.

Gazteak ez dira kale-zurrutean eta arauen kontrako festetan ikusi ditugun horiek bakarrik. Gazteak ere badira gure osasuna zaintzeko lan-zama ikaragarria eta sekulako tentsioa jasan dituzten osasun-langileetako asko; guztiok etxean sartuta seguru geundenean beren osasuna arriskuan jarritz lanean aritu ziren supermerkatuetako langile pila bat; ikasleen formazioan pandemiak izango duen eraginagatik kezkatuta, aparteko baliabideak asmatzen aritu diren irakasleetako batzuk; zaharren egoitzetan Covid-19aren erasana gogorrean gure zaharrak zaintzeaz arduratu zirenetako asko; oso baldintza kaxkarretan, online eskolak jasoz eta ikasturte osoan hainbat aldiz konfinatuta egonda ere ikasketak aurrera atera dituzten ikasleak; pandemiaren hasieran bakarrik zeuden pertsona edadetuei laguntzeko antolatuta

zirenetako gehienak; konfinamendua eramangarriago egin ziguten musikari eta arte munduko jende asko...

Gazteria eta jokaera arduragabeak lotzen dituen mezu horrek badu beste buelta bat ere: jokaera horiek identifikatzea pandemiaren hedapenaren eragile nagusitzat. Albisteetan, inkestetan, gure gertukoekin ditugun elkarriketetan, fokua jokaera indibidualetan jartzen badugu, arriskua dugu bistaz galtzeko pandemiaren bilakaeran erabakigarriak diren neurriak, osasun, lan, mugikortasun, gizarte ongizate eta beste hainbat arlotakoak. Horiei duten garrantzia eman gabe, herritar bakoitzak egiten duen horretan zentratzen bagara, erraza da herritarren jokaera zuhurra edo axolagabea jotzea pandemiaren bilakaeraren arrazoi nagusi.

Ez da egia, eta bidegabea ere bada, gu guztiok arriskuan jarri gaituzten jokaerak gazteriarekin identifikatzea eta gazteak pandemiaren ondorioen errudun nagusitzat aurkeztea. Identifikazio horrek, gainera, etorkizunera begira ez du ezer onik ekarriko. Covid-19ak ez ditu gazteak

larri gaixotu, baina pandemiaren ondorio latzak bizi eta biziko dituzte. Caixabank Research-ek egindako ikerketa baten arabera, pandemiak askoz gogorrago eragin die gazteen diru-sarrerei gainerako herritarrenei baino, lau aldiz gehiago murriztu zaizkie diru-sarrerak helduei baino. Datozen urteotan ikusiko dugu pandemiak utzitako krisi ekonomikoak zenbat eragingo dien lehendik ere prekarietatearen zama handia jasaten duten gazteei.

Horri gehitzen ari zaizkio, gainera, buru osasunaren arloko hainbat arazo, gazteen artean bereziki zabaltzen ari direnak, pandemiak ekarritako isolamenduak, harreman faltak, bizimodu autonomoa eraikitzeko zailtasunek bultzatuta. Horri gehitu nahi diogu hondamendiaren errudun izatearen sentimendua?


Gazteria arduragabearen irudi eta mezua desaktibatzeak on egingo liguke gizarte bezala, bai pandemia honek ekarri dizkigun ondorioak gainditzeko, baita etorkizunean izango ditugun larrialdi eta krisialdietan nola jokatu ikasteko ere.

PANDEMIA GARAIKO KONTSUMOA

CHARO MORÁN CUADRADO

Ekologistak Martxan taldearen kontsumo-arloa





Pandemiak gure bizitzak aldatu ditu, lan egiteko eta mugitzeko modua aldatu digu, eta, horrenbestez, baita kontsumitzeko ohiturak ere. Komuneko papera edo etxeko pastelgintzarako irina agortu zelako apalategiak hutsik ikustetik haratago –datu horiek izan ziren supermerkatuetako kontsumoaren ezaugarri konfinamendu garaian–, beste aldaketa garrantzitsu batzuk ere izan dira gure kontsumoan.

lkaragarri sendotu dira aurretik ere goranzko joera erakusten ari ziren zenbait portaera, hala nola sareko erosketak, Interneten erabilera edo entretenimenduko plataforma digitalak. Hala, sareko erosketak goieneko mailara eramanez pandemiak, non Amazon multinazionala nabarmentzen den. Multinazionalak izandako diru-sarrerek munduko aberatsen bihurtu zuten Jeff Bezos 2020an. 112.000 milioi dolarreko irabaziaz izan ditu mundu osoan; 2017an baino % 53,8 gehiago. Planetako enpresa-markarik baliotsuenak tokiko merkataritza irentsi du, laneko

esplotazioan eta zerga-sistema ezin barregarriagoan¹ oinarritutako negozio-eredu bati esker eta ingurumen-gastu gero eta handiagoen kontura². Bazar digital handi bat jartzen digu esku-eskura plataformak, non guztia klik-kolpeka saltzen den. Haren baliokide txinatar Alibabak baino ezin du lehiatu erraldoiarekin salmenta-zifretan.

Interneten erabilerari lotutako sektorea izan da pandemiak mesede egin dion beste sektore bat, izugarri hazi baitira kultura-deskargak (serieak, filmak, telebista, bideo-jokoak...) eta areagotu asko, Netflix eta Amazon bezalako plataformen erabilera. Eta, halaber, sare sozialen erabilera ere % 27 handitu da³.

1 4.700 milioi euroko irabaziaz ditu Espainian, baina ehun eurotik 0,1 zentimo besterik ez ditu ordaintzen zergetan.

2 Morán, C. (2020). Amazon: a costa de ti, a costa del planeta. Ecologista aldizkaria.

3 Juste, M. (2021). La pandemia dispara el uso de las redes sociales, un 27% más que hace un año. <https://www.expansion.com/economia-digital/innovacion/2021/02/10/6022c89de5fdea-59448b459b.html>

WhatsApp-en erabilera kontuan hartuta bakarrik, hamar aldiz gehiago erabili da konfinamenduan.

Ikaragarri sendotu dira aurretik ere goranzko joera erakusten ari ziren zenbait portaera, hala nola sareko erosketak, Interneten erabilera edo entretenimenduko plataforma digitalak. Hala, sareko erosketak goieneko mailara eramanez, pandemiak, non Amazon multinazionala nabarmentzen den. Multinazionalak izandako diru-sarrerek munduko aberatsen bihurtu zuten Jeff Bezos 2020an. 112.000 milioi dolarreko irabaziak izan ditu mundu osoan; 2017an baino % 53,8 gehiago. Planetako enpresa-markarik baliotsuenak tokiko merkataritza irentsi du, laneko esplotazioan eta zerga-sistema ezin barregarriagoan oinarritutako negozio-eredu bati esker eta ingurumen-gastu gero eta handiagoen kontura. Bazar digital handi bat jartzen digu esku-eskura plataformak, non guztia klik-kolpeka saltzen den. Haren baliokide txinatar Alibabak baino ezin du lehiatu erraldoiarekin salmenta-zifretan.

Interneten erabilerari lotutako sektorea izan da pandemiak mesede egin dion beste sektore bat, izugarri hazi baitira kultura-deskargak (serieak, filmak, telebista, bideo-jokoak...) eta areagotu asko, Netflix eta Amazon bezalako plataformen erabilera. Eta, halaber, sare sozialen erabilera ere % 27 handitu da. WhatsApp-en erabilera kontuan hartuta bakarrik, hamar aldiz gehiago erabili da konfinamenduan.

Gaur egun Internet menderatzen duten bost konpainiak indartu egin dira krisiaren ondorioz, bai aisialdiko orduengatik, bai sare sozialen erabilerarengatik, bai telelanarengatik,

bai bilera birtualek izan zuten gorakada itzelarengatik. Konpainia horiek ia monopolio-moduan funtzionatzen dute: hor daude Google bilaketa-motorra, Apple-produktuen softwareak, Microsoften ikurra den Windows sistema-eragilea, Facebook-en bidez burutzen diren gizarte-harremanak eta Amazonek eskaintzen digun kontsumo lasterraren garaiko logistika, entretenimendua eta banaketa. Hala, GAFAM da Internet kontrolatzeko borroka irabazi dutenak izendatzeko erabiltzen den akronimoa, zeinei nabarmen lagundu baitie pandemiak eragin duen krisiak.

Elikadurari buruzko datuek diote elikadura osasungarriagoaren alde egin dela, eta fruta eta etxean prestatzeko lekale eta barazki gehiago kontsumitu dela, prozesatutako produktuen kalterako. Horrela bada, janaria prestatzeko ohiturarik ez zutenen % 14 kozinatzen hasi zen egunero pandemia⁴ garaian, etxeetan denbora gehiago igaro beharra zegoelako. Espero dezagun joera hori finkatzea eta elikadura prozesatua eta janari lasterra kontsumitzeko joera aldatzea; izan ere, elikadura mota horrek ondorio kaltegarriak ditu biztanleen osasunean eta planetan.

Elikagaiak erosten ditugun lekuari dagokionez, supermerkatuen aukera ezarri zen auzoko denden eta elikagai-merkatuen aldean. Hala ere, azken horiek dira produktu freskoak kontsumitzeko gehien aukeratzen diren

4 Pérez-Rodrigo, C. et al. (2020). Cambios en los hábitos alimentarios durante el periodo de confinamiento por la pandemia COVID-19 en España. Revista Española de Nutrición Comunitaria. https://www.renc.es/imagenes/auxiliar/files/RENC_2020_2_06_Cambios_habitos_alimentarios_estilos_vida_confinamiento_Covid-19.pdf

lekuak, eta tokiko ekonomia eta auzoko bizitza sendotzearen aldeko apustua egiten duten pertsonak aukeratzen dituzten lekuak. Alde horretatik, Lidl eta Amazon, berriz ere Amazon, izan ziren pandemia-urtean Espainiako banaketaren irabazle nagusiak, Mercadonaren eta Carrefourren atzetik⁵.

Garraioari dagokionez, pandemiak izugarri igo zuen bizikleten⁶ salmenta 2020an, 1,5 milioi unitate baino gehiago saldu baitziren, automobilen bikoitza. Horren arrazoia da bizikletaren erabilera handiagotu egin zela, batetik, kirol- eta aisialdi-jardueretarako, eta, bestetik, hirietako mugikortasunaren alternatiba izateko, garraio publikoaren kalterako, baina ez, ordea, hainbeste autoaren erabileraren kalterako. Garraio kolektiboetan kutsatzeko beldurak areagotu egin zuen bizikleta bidezko mugikortasuna, eta hori izan daiteke pandemiaren garaiko kontsumoaren berri onenetako bat, batez ere hurbileko mugikortasunerako finkatzen bada motordunen zirkulazioa arintzeko beste ekimen batzuekin eta hirietan ezartzen ari diren emisio gutxiko guneekin batera.

Turismoa, berriz, nabarmen kaltetu den sektoreetako bat izan da, eta, horrekin batera, baita enpleguaren zati handi bat ere, non, eta Espainiako Estatukoa bezalako ekonomia batean, sektore horren oso mendekoa baita. Airbnb nabarmen hazten ari den konpainia da,

5 Plaza, A. (2021). Los supermercados que más crecieron en España en 2020 fueron Lidl... y Amazon. https://www.eldiario.es/economia/supermercados-crecieron-espana-lidl-amazon_1_7223157.html

6 Plaza, A. (2021). La pandemia dispara la venta de bicicletas en España: más de 1,5 millones en un año. https://www.eldiario.es/economia/pandemia-dispara-venta-bicicletas-espana-1-5-millones-ano_1_7977044.html


eta irabazi handiak izan ditu pandemia iritsi aurretik, baina 2020ko lehen hilabeteetan burtsan balioa gutxitu eta 322 milioi galdu zituen. Ez da bakarra izan, sektoreko beste enpresa handi batzuetara ere zabaldu baita egoera hori, hala nola Expedia, Hilton eta Bookingera. Espainiako estatuan, Meliá, Riu eta NH taldeek galera handiak eta kaleratze masiboak izan dituzte. Hala ere, igoera izan zuen barneko tokiko turismoak, ahal izan zuen neurrian. Askoz ere jasangarriagoa da turismo mota hori eta eragin handiagoa du landa-ekonomian.

Pandemia garaiko kontsumo-jarraibideei buruzko datu batzuk baino ez dira horiek. Ikuspegi ekosoziala duen azterketa batek alde onak eta txarrak ditu. Alde onak elikadura osasungarriagoaren, irakurketari denbora gehiago eskaintzearen, landa-turismoaren eta bizikletaren erabilera sustatzearen aldeko joera ikusten delako. Baina, baita alde txarrak ere; izan ere, ziurgabetasun-garai hauetan nabarmen garaile izan diren Amazon bezalako multinazional handiak sendotzeak kontsumo akritiko, indibidualizatu eta bidegabeaz elikatzen den eredu bati laguntzen diote, zeinak aberastasuna pertsona gutxirengan pilatzen baitu eta Lurra planetako baliabide eta hustubide amaikorrei bizkar emanda garatzen baita.

Egokia litzateke konfinamenduan genituen sentsazioak berreskuratzea, eta gogoratzea gure esker ona adierazten geniola zaintzen gintuzten eta gelditu ere egin ezin ziren pertsonen (osasun-langileak, zaintzaileak, apal-hornitzaileak, supermerkatuko kutxazainak...), faltan sentitzen genituela gertuenekoak, eta

bizilagunen arteko laguntza-sareak eta elkartasunezko janaritegiak osatu genituela, pertsona kalteberenei laguntzeko. Gogora dezagun gorputza mugitu edo parke edo zelai batean paseatzeko beharra sentitu genuela. Berreskura ditzagun bizitako ikasketak eta ohar gaitzen ez genuela

merkataritza-zentroa faltan sumatzen, bizitza soziala baizik. Azken finean, behar duguna eta garrantzitsua besteekin dugun harremana da, ondasun materialen gainetik. Taldean eta planetarekin harmonian hobeto bizi gaitzen.




UNIBERTSITATEA COVID GARAIETAN

GORKA MORENO MÁRQUEZ

EHUko Bizkaiko campuseko errektoreordea





Immanuel Kantek zioenez, *gizabanako baten adimena jasan dezakeen ziurgabetasun-kopuruaren arabera neurtzen da*. Esaldi hori egokia da gure bizitzako une eta egoera bakoitzerako, baina azken hilabeteotan are indar eta garrantzi handiagoa hartu du. Horri dagokionez, uste dut gure gizarteak, oro har, adimena erakutsi duela eta zentzuz erantzun diela Covid-19a gure bizitzetan sartzearen ondoriozko osasun- eta gizarte-krisiak mahai gainean jarri dituen erronka handiei.

Unibertsitatea ez da gizartetik kanpo dagoen erakundea, eta, beraz, erronka eta arazo handiei erantzun behar izan die, batzuk orokorrak; beste batzuk, ordea, partikularrak eta goi-mailako hezkuntza-erakunde baten berezko ezaugarrietara mugatuak.

Konfinamenduaren ondorioz, gauetik goizera aldatu behar izan zen, aldezturik prestatu gabe, ohiko irakaskuntza, metodologiak eta ordura arte erabilitako baliabideak.

Iraultza digital txiki bat izan da. Goi-mailako hezkuntzan beste hezkuntza-maila batzuetan baino hobeto egon gintezkeen arren, eta irakaskuntzarako plataforma birtualak bagenituen ere; konplexua eta konplikatu da mota horretako modalitateak orokorki zabaltzea eta unibertsitatean ematen den ia irakaskuntza guztirako zabaltzea. Eraitza ona izan zela uste dugu, eta gerora sortutako salbuespen-egoera bati erantzun ahal izan zitzaioala.


Atzera begiratuz gero, ondorio batzuk atera ditzakegu epe labur eta ertainera begira. Argi dago irakaskuntza birtuala geratzeko etorri dela, eta etengabeko prestakuntzan edo graduondoko ikasketetan tresna oso erabilgarria izan daitekeela, sustatu eta bultzatu beharko duguna. Baina, paradoxikoa dirudien arren, irakaskuntzan eta prestakuntza birtualean izandako aurrerapenak are gehiago azpimarratu du irakaskuntza presentzialaren beharra. Irakasleek eta ikasleek azpimarratu dute presentzialtasuna oso garrantzitsua

dela irakaskuntzan, eta ikasgelan sortzen den magia ezin da beste inola ere lortu. Eta horixe izan da, hain zuzen ere, amaitu den ikasturte honetako erronka handienetako bat.

Irakaskuntzaren presentzialtasuna bultzatu dugu testuinguru konplexu batean, non EHU osatzen dugun pertsona guztien osasuna eta segurtasuna bermatu behar genuen. Ezin bestela izan, une zailak bizi izan dira; baina emaitza benetan ona da zailtasunetatik eta akats logikoetatik harago. Irakaskuntza presentzialak, bimodalitatearekin –presentziala eta birtuala– konbinatuta, ikasturtearen hasieran planteatzen genituen helburuak bateratu ahal izan ditu. 2021-2022 ikasturtearen hasierarako, antzeko egoera bat planteatzen dugu: presentzialtasunaren % 75 bermatuko da, eta osasun-egoerak aurrera egin ahala, beste agertoki batzuk baloratuko dira.

Ezin dugu artikulu txiki hau amaitu EHUKo ikasleek testuinguru horretan izan duten papera aipatu gabe. Kolektiboa gaztea da batez ere, eta soziabilitate-espazioak eta -eremuak zorrotz murriztu zaizkio. Testuinguru horretan, unibertsitatea bera sozializaziorako gune seguru eskas horietako bat izan da. Gazte horien jarrera eredugarria izan da egoera ia guztietan, eta uste dut merezi duela lerro hauetatik eskerrak ematea unibertsitatea eta gizarte osoa osatzen dugun gainerako pertsonetikiko erakutsi duten konpromisoagatik eta elkartasunagatik.

Covidaren garaiak oraindik ez dira amaitu, eta oraindik nolabaiteko ziurgabetasuna daukagu kudeatzeko eta jasateko. Ibiltako bideak itzalak baino argi gehiago laga ditu gure ikuspuntutik, eta espero dugu datorren ikasturtean denok irrikatzen dugun normaltasun berri horretarantzko trantsizioa izatea.




PANDEMIA ETA EMANTZIPAZIOA

MAIALEN OLABE AGUIRRE

EGK-ko presidentea (Euskadiko Gazteriaren Kontseilua)





Topikoak dionaren arabera, Covid-19aren birusak ez du ez norbanakoen, ez klaseen, ez lurraldeen artean bereizten; aldiz, badakigu, ziur, Covid-19aren ondoriozko krisia ez dela berdina izango denontzat. Horregatik, pandemiak gazteen emantzipazioari nola eragin dien hitz egiten hasteko, atzera begiratu eta egoera nola zegoen aztertu behar da.

2008ko krisiak atzerapena sortu zuen nazioarte mailan, Estatu mailako ekonomiaren iraganeko eta geroko mugarriak ezarri zituen, eta gizarte osoak garai larria bizi izan zuen. Krisi horren ondorioak suntsitzaileak izan ziren, kaleratze masiboak ikusi genituen, langabezia-datu oso altuak, muturreko pobrezia-egoerak, etxegabetzeak, etab. Beraz, garrantzitsua da krisi hori gogoan izatea, hamaika urte geroago, gazteok ondorioak pairatzen jarraitzen baititugu.

Pandemia iritsi baino lehen, dagoeneko ikusten genuen kalitatezko enplegu bat izatea galarazten zuten lan-arloko hainbat formula errepikatzen zirela.

Praktikaldiko beken eta kontratuen formulek egiazko lanpostu asko ordeztu zituzten; era berean, elkarren atzetik behin-behineko kontratuak izatea gazteek lan-merkatuan sartzean jasan behar izaten zituzten lan-dinamika kaltegarrietako bat besterik ez zen. Gainera, emakumeok jasan behar izan genuen egoera horren alderdirik okerreana. Ondorioz, eta prestakuntza maila handiagoa izateak enplegu hobe eskuratzeko aukera eskaintzen duen irudipenarekin, gazteok prestakuntza-aldia luzatzen dugu, eta ondorioz, belaunaldi ginkualifikatu bat sortu dugu, enplegua baldintza duinetan aurkitzea erronka handi bat den mundu honetan.

Lehen azaldutako lan-prekarietateak soldata baxuak eta lan-ezegonkortasuna ekarri ditu, eta ondorioz, etxebizitza-merkatua ia eskurazina bilakatu da. Alde horretatik, bi oztopo nagusi ditugu: alde batetik, alokairuko prezioak altuak dira, eta bestetik, gaur egungo lan-egoera honekin ezin da etxebizitzarik

erosi, nahiz eta, kasu askotan, hipoteka bat ordaintzea alokairu bat ordaintzea baino merkeagoa izan.

Egoera horrek ondorio zuzena izan du gazteek bizitza-proiektu bat garatzeko orduan. Euskadin 23 eta 25 urte bitarteko gazte askok etxetik joan nahi dute; hala ere, datuen arabera, gogo hori ez da betetzen, emantzipatzeko batez besteko adina 30 urte ingurukoa izaten baita.

Hori guztia kontuan hartuta, 2020an bigarren krisialdi bat hasi zen, gizarte osoari, eta, bereziki, kolektibo kalteberenei, alegia, gazteei astinaldia eman diona. Covid-19aren krisia geldialdi bat izan da; etxe barruan sartu eta itxialdia egin behar izan genuen, eta urtebete pasatxo igaro den arren, oraindik ez dugu egiazko normaltasunik berreskuratu.

Krisi honek atzera urratsak ematera behartu gaitu alderdi askotan. Pandemiak ekarri zuen geldialdiaren ondorioz, enpresa askok aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak (ABEEE) ireki behar izan dituzte, kaleratzeak egin, eta kasu batzuetan, kontratazioak mugatu edo eten dituzte. Horren ondorioz, dagoeneko egindako aurrerapen askotan atzerantz egin behar izan dugu, esaterako, azkeneko bosturtekoan kontratazio-adierazleetan sortzen ari ziren hobekuntzetan. Beste behin ere, enplegu-faltaren gaineko kezka mahaigaineratu behar izan dugu, batez ere kalitatezko enpleguen gainekoa.

Bizi dugun lan-egoera honek zuzeneko ondorio hau sortu du: Espainiako Estatuan, 16 eta 35 urte bitarteko 228.600 pertsona gurasoekin

bizitzera bueltatu behar izan ziren joan den urtean, ElNek (Estatistikako Institutu Nazionala) egiten duen Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) hiruhilekoen batez bestekoaren arabera; ElNeren arabera, kopuru hori sei milioitik gora iritsi da hamarkada bat igaro ondoren.

Hortaz, erronka batzuk eraman behar dira lehen lerrora, pandemiaren ondorioak ahalik eta gehien arindu ahal izan ditzagun. Bizitza-proiektu duin bat garatzen lagunduko duten neurrien aldeko apustua egin behar da. Hau da, gazteen bizitza ikuspegi zabal batetik garatzen lagunduko duten neurrien aldeko apustua egin behar da, eta ez soilik laguntza paternalistak eman. Familia bat sortzeko aukeratik harago joan behar da, eta ulertu behar da gazteek, norbanako gisa, baliabideak behar dituztela garapen pertsonala eta bizitza osatua izateko.

Kalitatezko enpleguaren aldeko apustu irmo bat egin behar da, eta praktikaldiei mugak ezarri behar zaizkie. Izan ere, praktikaldiek, gazteen garapen profesionala sustatu ordez, haien egoeraz baliatzen dira, kontratatzailearen irabaziak hobetsiz, eta ondorioz, gazteen bizitza-proiektuak garatzea ezinezko bihurtzen da. Horrek praktikaldi neurrigabe eta bidegabekoekin amaitzea esan nahiko luke, esaterako, bekadun lanekin, praktikaldiko kontratuekin eta aldi baterako kontratuekin. Horretarako, lan-ikuskaritza gehiago egin beharko litzateke, bete behar diren araudiak betetzen direla egiaztatzeko.

Era berean, zaintzak erdigunean jarri behar dira, nahitaez, eta gogoratu behar dugu lan-prekariatateak laneko

gaixotasunak izateko arriskua sortzen digula. Aurreikuspenen arabera, pandemiak osasun mentalarekin lotutako ondorio asko utziko ditu, eta, beraz, lan-prekarietatea ez da zama mental gehigarri bat izan behar.

Alde horretatik, etxebizitzaren parke publikoa handituko duten neurriak hartu behar direla irizten dugu, gazteen egiazko diru-sarrerei erantzuna eman eta etxebizitza ordaintzeko gehienez ere soldataren % 30a erabiliz bizi ahal izan daitezen. Era berean, etxebizitza hutsen erregistro bat ere eraman behar da nahitaez, eta etxebizitza horiek merkatura ateratzeko prezioak kontrolatu behar dira, lehenengo etxebizitza alokairuan hartzeko eskaria gero eta handiagoa baita eta erantzuna eman behar baitaio.

Azkenik, etxebizitza-eredu eta tipologia arkitektoniko berrien lerroa jarraitzen

duten etxebizitzak sustatu behar dira, eredu tradizionala jarraitzen ez duen biztanleriaren gehiengo bati erantzuna eman ahal izateko, batez ere, beste bizikidetza-eredu batzuk bilatzen dituzten pertsona gazteei. Etxebizitza-eredu berriei hitz egiten denean, aukerako ereduak aipatzen dira, esaterako, belaunaldien arteko etxebizitzak, zuzkidura-etxebizitzak, cohousing, etab., hau da, bizitza partekatu ahal izateko moduko erdi bideko espazioak planteatzen dituzten etxebizitzak.


Azken finean, apustu handi bat egin behar da gazteen alde, ez bakarrik haien etorkizuneko proiektuak oinarri hartuta, baizik eta baita beren gaur egungo bizitza-proiektuak ere. Pertsona guztiok merezi dugu bizi-proiektu duin bat egiaz garatzeko aukera bat.

EUSKADIKO GAZTEAK ETA COVID 19A

JOSÉ ANTONIO OLEAGA PÁRAMO

Soziologia eta Zientzia Politikoko Euskal Elkarteko lehendakaria





Oso zaila da garai honetan originala den Covid19ari buruzko hausnarketa egitea. Esan eta idatzi da horri buruz esan zitekeen guztia. Bere jatorri polemizatuez, bere paralelismo historikoez, organismoan dituen ondorioez, bere emaitza katastrofikoez hilkortasunari dagokionez, bere portaera epidemiologikoaz, pertsonengan dituen ondorio psikologikoez, bere kudeaketa politikoaz... Dena dago esanda.

Izan ere, eragin psikosozialei buruz ere hitz egin da, baina agian horretaz gutxiago hitz egin dugu. Zer ondorio eta kostu psikosozial ditu EAEko euskal gizarte osoarentzat? Egoera antzekoa da kategoria sozial guztietan? Ba al dago osasun-krisiarekin gehiago sufritzen ari den biztanle-segmenturik?

EAEko biztanleak adinaren arabera segmentatzeak hausnarketa interesgarria egitera eramán gaitzake. Haurtzaroari, nerabezaroaren aurrekoari, nerabezaroari, gaztaroari, helduaroari eta zahartzaroari buruz

hitz egiten badugu, eta ez badugu sakon aztertzeak asmorik, eta ez badugu etapa horiei buruz katedrarik ezarri nahi, agian ikusiko dugu gizarte-kategoria guztiek ez dutela modu berean jasan pandemia hori.

Dagoeneko asko hitz egin dugu pandemiak zaharrengan, kalteberenengan eta komunitate-guneetan bizi direnengan izan duen eragin ikaragarriari buruz. Heriotza handia, bakardade handia, antsietate handia, zalantza handia.

Eta gazteei buruz ere dezente hitz egin da, baina oso bestelako terminoetan: tratamendu azalekoagoa izan dute, eta, askotan, birusaren aliatu inkontzientea direla adierazi da. Euskal gazteei ez zaie gutxitan kritikatu kutsatzeak aurrera egin ahala izan duten konpromiso eta erantzukizun falta, eta gainera, gaixotasunak gazteei kalte gutxi eragiten ziela aurpegiratu zaie.

Uste dut bidegabeak izan garela, euskal gizarteak enpatia gutxi erakutsi duela euskal gazteriarekin. Nahikoa da memoria pixka bat egitea konturatzeko, zaharren ondoren, euskal gazteek sufritu dutela gehien osasun-krisiarekin.

35 eta 65 urte bitartean ditugunok pentsatu behar dugu gure bizitzako fasean sozializatzea biziki gustatzen zaigula eta ingurune psikosozial sendoagoa dugula pandemia bati eta berorren ondorioei aurre egiteko: bileren mugak, mugikortasun-mugak, gizarte-harremanetarako espazioen mugak.

Euskal gazteak, 14 eta 30 urte bitartekoak, mugaren bat jartzeagatik, gazte guztiak bezala, euren berdinekin erlazionatzen dira, batez ere, espazio publikoetan, gaixotasunak muturreraino mugatu eta hertsatu dituen horietan. Guk, pertsona helduok, gure bizi-espazioa gure etxean dugu, aukeratutako afektuak hurbil ditugu, gure etxean, eta gure harreman-sare pertsonala zabaltzeko premia txikiagoa dugu.

Gaztaroa irekitasun handiko etapa da, mentala eta soziala, sozializatze, beste pertsona batzuk, burbuila pertsonalaz haraindiko beste errealitate batzuk, beste leku batzuk, beste pentsamolde batzuk... ezagutzeko premia handikoa. Gainera, kontaktu eta hurbiltasun fisiko handia behar da. Espazio publikoa eta espazio komunitarioa, tabernak eta txokoak ez ezik, kaleak, plazak, leku ezkutuak eta igarobide eta bidaialekuak dira gazterien jolasleku naturala. Gurasoen etxeak ere bai, baina agora sozialean mugitzen dira gazteak arrainak uretan bezala. Bizi-esperientzia hori behar

dute. Eta horixe kendu die pandemiak hilabete hauetan guztietan.

Hondamendi horri euskal gazteek eman dioten erantzuna, oro har, oso-oso ona izan da, alde batera uzten badugu gutxiengoa, hedabideek kontzienteki edo inkontzienteki handitua, egoera kaskarrari ganoraz aurre egiten jakin ez duena. Euskadiko gazte gehienek jakin dute erantzukizunei ondo eusten, gainerako biztanleek ere izan dituzten hanka-sartze txikiak izan ezik: biztanleriaren % 1ek gizarte-arazoan % 99 sortzen ditu. Eta Covid19aren eta gazteen kasua ez da salbuespena izan.

Badirudi osasun-krisiaren azken txanpan gaudela eta ekonomia-krisia datorkigula; beraz, adi, hondamendi horrek euskal gazteengan ondorio latzak lagako baititu. Onartzen dut hemendik aurrera hipotesiaren eremuan sartzen garela. Nola erreakzionatuko dute euskal gazteek? Ondorio psikosozialik geratuko zaie? Zer espero dezakete epe motzera begira?

Burura datorkidan lehenengo gauza da gaztaroa dela bizi-etapa inkontziente eta malgugarriena, haurtzarora kenduta, beraz, krisi osteko garaiari aurre egiteko armarik onenak dituen. Ez dut uste pandemiak arrasto psikosozial iraunkorrak utziko dituenik euskal gazteengan. Uste dut azkar eta malgutasunez erantzungo diotela agertoki berriari, edozein dela ere. Gazteen ezaugarriak dira egokitze gaitasuna, malgutasun mentala eta psikosoziala, hibridazioa eta bizi-etapa horretan hain ohikoak diren etengabeko aldaketei aurre egiteko erraztasuna. Ikaskuntza pertsonalerako eta sozialerako erraztasun handiko etapa da. Jakina, pandemia ez zaie ahaztuko,

baina etorkizunari hobeto aurre egiten lagunduko diete ezaugarriok.

Epe motzera begira, igurikapenak ez dira bereziki onak izan, batez ere lan-merkatuari dagokionez. Baina hori pandemiaren aurretik ere gertatzen zen: ile urdinekook edo ilerik ez dugunok esperientziaz dakigu gaztea izatea ez dela inoiz ona izan lan-merkatuarentzat. Orain ere ez. Baina badakigu, baita ere, euskal gizartearen etorkizuna hondamendi sozial hau pairatu eta


bizi izan duen belaunaldi gaztearen eskuetan dagoela. Indartsuagoak izango dira, eskarmentu handiagokoak, hobeto jabetuko dira daukatenaz eta gal dezaketenez etorkizuneko euskal gizartea ondo kudeatzen ez badute. Agian euskal gazteek ez dute jakingo, baina ni pertsonalki oso harro nago haietaz, eta konfiantza osoa dut duten erresilientzia-gaitasunean eta talde gisa duen ahalmenean. Euren eskuetan gaude. Esku onetan.

GAZTEAK, POST-KONFINAMENDUA ETA SARE SOZIALAK: PANTAILEN GEHIEGIZKO ERABILERARI BURUZKO EZTABAIDA ITZULI DA?

NAIARA PEREZ DE VILLARREAL AMILBURU

Komunikazio eta marketing arduraduna Digitalden.
Aholkularia eta trebatzailea





Asko idatzi da duela urtebetez geroztik, Covid-19aren pandemiak mundu digitalean pertsonen portaeran izandako eraginari buruz. Nahitaezko eraldaketa digitalaz, hiperkonexioaz eta are gehiago harremanak izateko modu berriez hitz egin da.

Prozesu horren inpakturik larriena jasan duten kolektiboetako bat gazteena izan da. 2020ko konfinamendua iraganaren eta geroaren arteko mugarri bihurtu zen etxeetako pantailen erabilerari dagokionez, eta bertan behera utzi zuen gazteek pantailen gehiegizko erabilera egiten ote zuten argitzeko eztabaida. Bat-batean, pantailak ezinbestekoak bihurtu ziren, batez ere bi helburu betetzeko: gizarte-harremanak mantentzeko eta ikasketekin jarraitzeko.

Teknologiak abantaila asko ekarri zituen bi helburu horiek betetzeko orduan. Testuinguru horretan, gazte gehienak aparteko egoera batean zeudela ulertzeko gai izan ziren, eta egunero ikasgelako lagunekin eta ikaskideekin

kontaktu fisikorik ez izatera egokitu behar izan zuten. Gazteek eskolak online hartu zituzten, tutoretzak bideokonferentzia bidez, eta azterketak ere ordenagailuaren aurrean egin behar izan zituzten. Luzaz ez zuten kalera irteterik izan, ez dibertitzeko, ez kirola taldean egiteko, ezta bikotekideekin kontaktu fisikoa izateko ere. Egia da egoera horrek guztioi eragin digula, baina gazteen kasuan meritu handikoa izan da.

Internet eta, zehazkiago esanda, sare sozialak ezinbesteko zubia izan ziren lagunengandik hurbil sentitu eta harreman sozialei eusteko. Gazteei ohiko mundu soziala aktibo mantentzen lagundu zieten, eta kasu askotan, itxialdia espazio atseginago bihurtzen lagundu zien. Pandemiaren aurretik ere, Internet eta sare sozialak erabiltzen zituzten harremanetan jartzeko, entretenitzeko eta ikasteko ere, baina konfinamenduak berealdiko jauzi kuantitatiboa ekarri zuen pantailen erabilerari dagokionez. Sare sozialetan,

nabarmen areagotu zen erabilera-denbora; Zoom, ClubHouse eta antzeko plataformen bitartez egindako bideo-deiak modu esponontzialean ugaritu ziren; denbora gehiago eman zuten sareko jokoetan, eta lehendik nabaritzen hasiak ziren joera batzuk bizkortu ziren, hala nola, streaming bidezko edukiak dituzten plataformen eztanda (Twitch, Netflix).

Argi dago gazteak ikus-entzunezko formatuak nagusi dituzten sare sozialak aukeratzen hasi zirela, Instagram edo TIK TOK kasu. Azken hau izan da bereziki adingabe eta nerabeen artean egundoko fenomeno soziala bihurtu zena, konfinamenduaren hilabeteetan eta geroztik ere sare honen erabiltzaile-kopurua izugarri handitu delarik. Arrazoia oso sinplea da: sare sozial honek entretenimendu erraz eta azkarra eskaintzen du, begi-kliskada batean kontsumitu eta atzamarraren mugimendu bakar batez banan-banan irents daitezkeen 15 segundo eskaseko bideoen bitartez, eta jarraian ikusiko dugun ikus-entzunezko pieza gure ordeztatu aukeratzen duen algoritmo ikusgarri baten laguntzaz. Honi gehitu behar zaio erabiltzaileek sortutako #Etxeangeratu edo #Etxeangeratuko gisako erronkek eta hashtagek eragin zuten dei-efektuaren balio erantsia.

Gainera, Internet eta gailu elektronikoak ezinbestekoak bihurtu ziren denbora horretan ikasturtearekin jarraitzeko, online eskola eta ariketen bitartez zein irakasleekin harremanetan jarritz. Eten digitala dexente nabarmenagoa izan zen pandemiaren hasieran, izan ere, familia guztiek ez zituzten beharrezko baliabideak eta ikastetxe batzuei gehiago kostatu zitzaizen egoerara moldatzea, baina azkenean, teknologiar

esker, ikasturtea aurrera atera ahal izan zuten. Zoom, Google Meet eta bestelako plataformetan, erabileraren hazkundea ikusgarria izan zen, baita hezkuntza-munduari dagozkion beste plataforma batzuetan ere, Google Classroom kasu.

Egia da gazteak seguraski helduak baino hobeto egokitu zirela egoera berri horretara, baina ezin da ahaztu gainditu beharreko zailtasunak eta arriskuak ere izan zituztela.

Alde horretarik, kontuan izan behar da familiak, oro har, malguagoak izan zirela itxialdi horietan Internet, sare sozialak eta bideo-jokoak erabiltzen uzteko orduan, bai bizikidetzat errazteko, baita seme-alaben entretenimendua sustatzeko, etxetik ateratzerik ez zuten bitartean. Gainera, egoera larriagotu egiten zen gurasoek telelana egin behar zutenean. Etxe askotan, biziraupen kontu hutsa izan zen, eta pantailen erabilerari buruzko eztabaida bigarren mailara igaro zen.

Gazteen esposizio hori handitu ahala, izaera fisiko, psikologiko eta emozionaleko arazoak areagotu ziren. Lorik eza, elikaduraren arloko nahasmenduak, estresaren igoera, antsietatea, hiperaktibitatea eta, nola ez, mendekotasunak (bideo-jokoekiko, mugikorrarekiko, sare sozialekiko, apustuekiko, etab.) izan ziren asalduarik garrantzitsuenak. Horrekin batera, delitu zibernetikoak ere areagotu ziren: ziber-jazarpena, groominga edo sextinga, baita sareko iruzurrak ere.

Badirudi txertaketak aurrera egin ahala pandemiaren amaieratik gertuago gaudela, baina teknologiaren erabilerari dagokionez, ez gara inoiz itzuliko konfinamenduaren aurreko egoerara.

Gazteok eta hain gazte ez garenok hilabete gutxi batzuetan egin genuen urteetan egin beharreko aurrerakada, digitalizazioari dagokionez. Orduan hartutako zenbait ohitura (bilera birtualak, online eskolak edota senide eta lagunekin pantailaren aurrean elkartzea) gure eguneroko jardunean itsatsita geldituko dira. kontaktu fisikoa murriztu den arren, orain konektatuago gaude sare sozialen bitartez. Beharbada, pantailen gehiegizko


erabilerari buruzko eztabaida itzuliko da, edo agian, hobeto konturatuko gara Internet zer den eta zer ez den. Baina argi dago ez diogula bizkarra eman behar "normaltasun berri" honi, eta eskura ditugun bitartekoak baliatu behar ditugula plataforma bakoitzaren zentzuzko erabilera egiteko, gure beharrak asetzen dituztenak bakarrik aukeratuz eta nolako ekarpenak eta nolako arriskuak eragin ahal dizkiguten ondo ezagutuz.

SEXUAK, GORTEATZEA ETA MAITASUNAK PANDEMIA- GARIAIAN

ANA RAMÍREZ DE OCÁRIZ SOROLLA

EMAIZE Sexologia Zentroa-Centro Sexológico





Jakina da gaur egungo egoera pandemikoa gure bizitzetan ondorioak izaten ari dela. Zein diren eta nola eragingo diguten aurki eta luzera begira irudikatu baino ezin dugu egin. Nolanahi ere, artikulu honetan, egoerak neskei eta mutilei, euren erotikiei eta sexualitateei nola eragiten dien azalduko dugu. Euren kontakizunak, kontatzen dutena eta isiltzen dutena irakurritz egingo dugu.

Gure lan sexologikoan abantaila bat dugu: gazteen **bizitza intimoetara** hurbildu gaitzke eremu terapeutikoan eta aholkularitzan, eta ez bakarrik ikasgelan sexu-hezkuntzako programekin esku hartzen dugunean jasotzen ditugun **adierazpen kolektiboetara**. Bi agertokiotan gertatzen denak errealitatetik hurbilago dagoen irudia ematen digulako esaten dugu hori.

Begi-bistakoa bada ere, nabarmendu nahi dugun lehen egitatea da neska-mutil gisa izateko, bizitzeko eta adierazteko moduen

heterogeneotasuna pandemiak eta horri heltzeko neurriek gazteen sexu-bizipenei eta adierazpen erotikoei eragiten dieten moduan ere gertatzen dela. Aniztasun horri, beraz, ondorioak poliedrikoak direla erantsiko genioke, alde **negatiboekin** eta **positiboekin**.

Konfinamendu-aldiari dagokionez, logela bera bihurtu zen norberarekin esploratzeko eta harremanetan jartzeko babesleku; bakardadean nerabezaroa deskubritzeko setatzen den ni horrekin konektatu ahal izan zen: ordura arte argitutako **sexu-identitateek** forma hartzen dute; **desiraren orientazio** ukatuak adierazten dira. Barruranzko begirada horri esker, sentitzen zenari hitzak jarri ahal izan zaizkio. Kontua ez da orain gazte gehiago daudela transexualitate-egoeran edo arauz kanpoko desio erotikoak dituztela; aitzitik, kanpoko zaratatik deskonektatzeko eta barneko musika entzuteko aukera handiagoa izan da.

Ziurgabetasun-egoera eta gizarte-isolamenduko egoera horren beste alde bat ez da hain pozgarria: **antsietatea areagotzea** eta, horrekin batera, kudeaketa emozionalaren eta jokabide autoerotikoen kontrolaren zailtasuna, mutilen artean nabarmenagoa dena. Geroago aipatuko dugun bezala, jokabide horiek pornografiaz – kontsumoa areagotu egin da– eta sare sozialen bidezko harremanez elikatu dira.

Konfinamenduaren ondoren, topaketa- eta mugikortasun-murrizketak iritsi dira, eta bizitzako etapa batean –gaztaroa– **harreman sozialak eta fisikoak** mugatu dituzte: Etapa horretan, horiek ezinbestekoak dira banakako hazkunderako: etxera iristeko orduari buruz familiarekin negoziatzeko beharra (liskarrak barne) ez da izan. Alarma-egoeraren muga exogenoa izan da, negoziatzekoa, gazte-inkonformismoa eragotzi duena, helduarora iristeko hain garrantzitsua dena.

Murrizketa horiek “irteteko prestatzeko” gogoia ere mugatu dute: ispilura begiratzea, “Zer geratzen zait hobeto?”. **Norberaren zaintzarako eta mimorako** akuilua murriztu egin da, gorteatze-jokorako agertokirik ez dagoelako. Egoera horren beste alde bat da **maskara erabiltzeak** begiradaren garrantzia sustatu duela ligatzeko garaian, eta ezkutuko aurpegiak irudimen erotikoa duen pisua. Izan ere, fantasia eta iruditeria erotikoa ikusten ez dugunetik elikatzen dira batez ere.

Gorputzaren irudia onartzeko zailtasunak dituzten gazteek maskara abantaila gisa bizi dezakete. Hala ere, noizbait (berandu baino lehen espero

dugu) aurpegiaren biluztasunari aurre egin beharko diote. Maskara-aldian garatu al dituzte horretarako behar adina gaitasun?

Horri TikTok fenomenoan **exhibizionismoaren** hazkundera kontrajartzen zaio, batez ere emakumeena. Jabetzen al dira euren buruaz ematen duten irudiaz? Irudi hori eman nahi dute?

Zuzeneko gorteatzearen zailtasunak (tabernako barraren bidezko begiradak, hurbiltzeko mugimendu erritmikoak...), non harremanetarako trebetasun sozialak hedatu behar diren, eragin positiboa izan du zeharkakoan. Sedukzio-jokoak, garai aurre-pandemikoetan Tinder edo Grindr bezalako **ligatze-sare sozialen** erabilerarekin laburtuz joan zenak, gorakada esponetziala izan du, bai kuantitatiboki bai kualitatiboki. Sareen euren datuen arabera, jendea irudimentsuagoa izan da teleproposamen erotikoa egiterakoan, konfinamenduan behintzat, non kontaktu fisikorako aukerak hutsaren hurrengoak ziren. Gertaera horren alde iluna: eskatu ez duenari “zakil-argazkiak” direlakoak bidaltzearen ugaritzea. Irudi intimoen bidalketa horrek –nahikoa zabaldua dago ligatzeko gay sare sozialetan–, onartzen ez direnean, argi eta garbi erakusten du trebetasun sozialen falta –indarkeriaz ez hitz egiteagatik– jasotzen duenarekiko.

Erotika teknologikoa (edo “zibersexua”) **areagotzea** kualitatiboki positiboa izan daiteke: sextingak norberaren nahiei buruzko ikaskuntza, fantasietan eta proposamen erotikotik sormena eta bikotekidearengan

konfiantza izatea ekar dezake. Litekeena da emakumeen erotikan eragin positiboa izatea, autonomoagoa bihurtuz, baita jostailu erotikoen ugaritzearekin ere. Nolanahi ere, ezin dugu ahaztu erotika horrek ez duela asetzen gizakiok elkar lotzeko dugun beharra. Zer gertatuko da etorkizun hurbilean? Behera egingo dute praktika erotiko partekatuek? Horixe adierazten dute azkenaldiko azterketek. Eta hala bada, nola lotuko dugu elkar?

Horrela, **larruazala larruazalarekin** kontaktatzeko behar hori nola aseko dute gazteek? Gaueko aisialdirako guneak ixtean, gazteenen sozializazio-espazioak institutueta mugatu dira. Espazio horretan gerta litezkeen topaketa erotikoak azkarrak eta isilpekoak izango dira. Eta, beraz, kalitate eskasekoak, plazererako, ikaskuntza propiorako eta partekaturako, zer egin nahi dugun eta nola negoziatu ahal izateko behar den intimitaterik gabe. Horrek, nerabezaroari lotutako bortxaezintasunaren kontzientziarekin batera, **arrisku-praktika erotikoak** areagotzea dakar ezinbestean. Baina Covidaren aurreko jokabide arriskutsuak ere badakartza: ez diogu elkarri maskaraz musu ematen eta ez diogu elkarri laztanik egiten gel hidroalkoholikoa emanda.

Intimitaterako espazioak dituzten gazteek, edo elkarrekin bizi diren bikoteek, ordea, euren topaketa

erotikoak urritu direla diote. Ikusten ari gara antsietatea eta ziurgabetasuna desioan, kitzikagarritasunean eta zailtasun erotikoen eta bikote-zailtasunen gorakadan eragiten ari direla. Elkarrekin bizi diren bikote gazteetan, sinergiarako aukerak ez ezik, gatazkak kudeatzeko zailtasun handiagoak eta tratu txarrak ere gertatzen ari dira. Bikote heterosexualen kasuan, emakumeek galtzen jarraitzen dute.

Beste gertakari ukaezin bat adin guztietan **pornografiaren kontsumoa handitzea** da, baita oraindik errealitatea eta fikzioa bereizteko irizpiderik ez dutenen artean. Handitze kuantitatibo horrek, mezuen “nolakotasunarekin” batera (zakila, koitoa, emoziorik eta sentimendurik gabeko jokaerak... ardatz duen erotika), eta **sexu-hezkuntza** planifikatu eta kalitatezkorik **ez izatearekin** batera –sexologiako profesionalek ematen dute hezkuntza kalitatezkoa, subjektu sexuatueta zentratua, eta ez jokabideetan–, benetako erronka batera garamatza.


Amaitzeko, pandemiaren aurreko **sexu-eta ugalketa-osasuneko baliabideak** eskuratzeko zailtasunak aipatu nahi ditut, pandemiak agerian utzi baititu. Noizko gazteen beharretara egokitzen diren zerbitzu integralak? Espero dugu Gazteriaren Euskal Lege berriak jasotzea eta eskura jartzea.

PANDEMIAK NAZIOARTEKO MUGIKORTASUNEAN ETA EUSKADIKO GAZTEEK EUROPAKO PROIEKTUETAN IZAN DUTEN PARTE-HARTZEAN IZANDAKO ERAGINA

JORGE SÁEZ MARTÍNEZ

Donostiako Eurodesk eta Europe Direct zentroko teknikaria eta
KAEBNAIko nazioarteko mugikortasuneko prestatzailea





Mugikortasunaren arloan pandemiak Euskadiko gazteei nola eragin dien edo eragiten ari zaien hausnartuz, errealitatea anitza dela ikus dezakegu. Azken urtean eta hilabeteetan atzera begiratzen badugu, taldeen harrerari eta nazioarteko harrera-proiektuei dagokienez, motel eta mantso itzuli da normaltasunera.

Kontuan izan behar da alarma-egoerak mugikortasunerako aukerak mugatu dituela, bai eta horrelako proiektuetan gazte-instalazioak eta aterpetxeak erabiltzeko aukerak ere. Logikoa denez, osasun-egoera dela-eta, batzuetan, azpiegiturak gaixoak artatzeko erabili behar izan dira edo hotzetik babesteko eraikin edo harrera-etxe bihurtu dira, herri bakoitzaren errealitatearen arabera. Horri lotuta, perimetroaren mugek ez dute horrelako ekintzarik erraztu.

Beste herrialde batzuetara mugitzeko beharra duten proiektuei dagokienez, egoerak oso desberdinak izan dira. Azken urtean, egia da, herrialdeen

arteko mugak direla eta, taldeko mugikortasun-proiektu ia guztiak atzeratu dira, hala nola gazteen trukeak edo gazte-langileen prestakuntzak, horietako batzuk aukera birtualera birmoldatu dira. Azken hori egokiagoa da gazteen profesionalen arteko prestakuntza eta topaketa birtualei dagokienez, baina ez hainbeste gazteen truke-proiektu eskasei dagokienez. Ildo horretan, truke-proiektuak oso gutxi direla ikusi da.

Beharbada, 2021eko udan hasiko dira berriro aurrez aurre garatzen joan den udan egin behar ziren ekintzak. Deialdiak berriz eta geldo ari omen dira egiten. Oraindik ere ziurgabetasun handia badago ere eta egoerak oso aldakorra izaten jarraitzen badu ere, zenbait proiektu-deialdi sortu dira, aurtengo uztaileko eta abuzturako taldeen segurtasun- eta babes-neurriak gordez garatzeko. Espero dezagun egoera pixkanaka normaltasunera itzultzea; 2019ko proiektu asko zain daude, eta aurtengoa egin beharko dira


beranduenez, gehienez ere datorren urtean.

Bestalde, azken urte eta erdiko atzera begira, Europako Elkartasun Kidegoaren boluntariotza-proiektuetan; banakako mugikortasunak direnez, proiektu batzuk murriztu egin dira, hala ere, beste batzuk mantendu egin dira, noski, Europako Batzordeak programa horietan ezarritako parte-hartzaileen jardueren kalitate- eta segurtasun-neurriak bermatzen zituztenak, baita covid19a iritsi aurretik ere.

Nabarmentzekoa da eko-herrixketako, baserri-eskoletako edo bestelako programetako ingurumen- edo hezkuntza-arloko proiektuen egoera normalizatu egin dela landa-inguruneetan, burbuiletan eta mugikortasun urrikoetan, zeinetan

pandemiak eragin txikia izan duen, eta aukera eman du proiektuen ohiko dinamikari eusteko eta beste herrialde batzuetako boluntarioak proiektu horietan sartzeko.

Oraingoz, etorkizuna nahiko oparoa da. Urte anitzeko esparru berri bat estreinatuko dugu. Aurrekontuak nabarmen handitzen dira ekintza guztietan, eta, ahal bada, aukera gehiago eskaintzen zaizkie ekintza horietan parte har dezaketen gazteei. Garatzeke dauden proiektuez gain, deialdi berriak irekiko dira aurtengo maiatzean, datozen hilabete eta urteetan proiektuak garatzeko. Egoera pixkanaka normaltasunera itzuliko delakoan, eta Batzordeak ezarritako kalitate- eta segurtasun-estandarrekin bat etorritz garatu ahal izango direlakoan.




ZENBAT ETA GAZTEAGO, ORDUAN ETA TALENTU GEHIAGO

ROBERTO SAN SALVADOR DEL VALLE DOISTUA

Deusto Cities zuzendaria. Deustuko Unibertsitatea





Covid-19a amore ematen ari da txertaketa-prozesuaren etengabeko bultzadari esker, hainbat hilabetetan heriotza, gaixotasuna, hondamena, krisia eta ziurgabetasuna izan ondoren. Baina pandemiak ez ditu desagerrarazi gure planeta dagoeneko erasotzen zuten beste hainbat *globaldemia*: klima-aldaketa, trantsizio demografiko desorekatua, desberdintasunak eta xenofobiak. Horiek denak gure ingurune hurbilenean daude, hein handiagoan edo txikiagoan. Horien guztien artean, trantsizio demografikoa ekarri nahiko nuke, baina ez gure lurraldeko biztanleriaren zahartzea oinarri hartuta, baizik eta gizartearen gaztetzeak dakarren egoera.

Nire ustez, gizarte batek bizi-itzaropen tasa handia izatea beti da positiboa, horrek ezaugarri hauek daudela adierazten baitigu: edateko ura eta saneamendua eskuratzea bermatuta daude; hondakinen bilketa egokia da; infraetxea desagertze-prozesuan dago; elikadura orekatua da; higie-ne pertsonaleko ohiturak orokortuta

daude; osasun-sistema unibertsa da; gizarte-zerbitzuak eskuragarri daude pertsonentzat, etab. Beraz, urte gehiago bizi delako biztanleria bat zahartzen ari dela ikustea, ezin da inoiz ere arazo bat izan. Hobeto esanda, herrialde moduan harro sentitzeko moduko zerbait da.

Arazoa zera da, 65 urtetik gorako biztanleria horrek gutxienez bi hamarkada gehiago bizitzeko asmoa duela, eta kopuru hori ez dela berdintzen pertsona heldu aktiboen bolumen handiago batekin, eta ondorioz, etorkizuna ziurgabea dela, haiek ordezteko gazte nahikorik ez dagoelako.

Nire ustez, gai hori erabakigarria da gure etorkizun demografikoaren iraunkortasunerako, bai eta ongizate eta *ongiegote* gizarte-eredua zein zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoaren bideragarritasuna gauzatzeko ere. Izan ere, atentzioa ematen dit gai hori agenda publikoen erdigunean oraintsu arte egon ez izanak, baina ez, egin izan ohi den

bezala, jaiotza-tasen gaineko eztabaida demografikoak egiteko, baizik eta izaera ekonomikoko, sozialeko, kultureko eta ekologikoko politika integral eta integratuak planteatzeko, gai hori bideratze aldera.

Hortaz, lau gai hauez hausnartu nahiko nuke, banaka eta elkarrekiko menpekotasunean azter daitezen: tokiko talentua zaintzea; erbestera joan zaigun talentua berreskuratzea; dagoeneko bizikide dugun migrazio talentuduna balioan jartzea; eta kanpoko talentua erakartzea.

Herrialdea gaztetzearekin lotutako lehenengo hausnarketa-gaia gure **tokiko talentua** zaintzean datza. Nire ustez, gaur egun dugun jarduteko modua ez da zentzuzkoena. Gure pertsona nagusiak Gerra Zibilaren eta gerraostearen seme-alabak izan ziren, eta eginahalak egin zituzten hurrengo belaunaldia formakuntza eta prestakuntza maila gorenera iritsi zedin. Hortaz, buru-belarri lan egin zuten beren lanpostuetan, bai etxetik kanpo zein etxe barruan ere, bizi-baldintza hobeak bermatuko zizkigun prestakuntza sendo bat izan genezan. Baina helburu hori bete ondoren, guk, babyboomerrok, nahiz eta ikasketa-mota asko eskaini gure seme-alabei, ez gara gai izan haiei beren bizi-proiektua garatzeko baldintza minimoak eskaintzeko, hau da: lan-baldintza duineko enplegu bat lortzea, etxebizitza eskuratzeko egiazko aukera izatea eta haien ekimenak jasotzeko espazio publiko behar bezainbesteko irekiak izatea.

Bigarrenik, **erbestera joan zaigun talentua berreskuratzea** nabarmendu dut. Izan ere, joan diren pertsona horiei zaintza, baliabideak eta denbora

eskaini dizkiegu; baina sortu dugun herrialde-ereduak ez die bizi-proiektu bat lantzeko aukerarik eman, ezin izan baitute lortu haiekin bat egiten duen enplegurik, ez eta etxebizitza eskuratzeko aukerarik ere. Ez dugu lortu gure hiriak eta udalerrak behar duten besteko erakargarriak izatea, non haien proiektuek hazi eta helduko diren ekosistema bat izango duten. Hala ere, aurreko hori guztia, batetik, eta atzerrira joateak ematen duen esperientzia osasuntsua eta aberasgarria, bestetik, ez dira bateraezinak, esperientzia horri esker, ikusi, behatu eta esperimentatu egin baitezakete. Baina haiek itzultzea behar dugu, haien ekarpena behar dugu kopuru aldetik, haien ekarpen intelektualak, eta, batez ere, haien berrikuntzarako eta ekintzailatzarako gaitasuna behar ditugu. Munduko beste hiri batzuetan bidaiatzean bizi eta ikasi duten guztia beren sustraiek eman dizkietenaren onenarekin bat egiten ikasi dute: arragoak dira.

Hirugarrenik, dagoeneko gure artean bizi den **migrazio talentuduna** nahi dut nabarmendu. Pertsona migratzaile gehienek bizi-ibilbide latzak metatu behar izan dituzte, eta horiei esker, pertsona erresilienteak bihurtu dira, muturreko egoerei aurre egiteko gai. Harrera humanitarioa eta solidarioa egitea nahitaezkoa izateaz gain, prestakuntzarako eta ahalduzko laguntza ere eman egin behar diegu, beren bizi-proiektu autonomoa ahalik eta azkarren gara dezaten, beste edozein herritarrek moduan. Ekoizpen-sisteman langile moduan sar daitezen behar dugu. Izan ere, enpleguak dira dagoeneko, nahiz eta baldintza duinetan beti ez izan: gure pertsona nagusiak eta adingabeak zaintzeko nahitaezko lanak egiten dituzte, bestela

inola ere egin ahalko ez genituzkeenak. Herrialde jakintsu bat herritarren bizi-proiektua ahalbidetzeko gai izan behar da, gure komunitatearen garapen jasangarriaren eta orekatuaren eragile aktiboak izan daitezen. Horrez gain, elkarrizketa transkultural baten alde egiten badugu, gure hiriak, lurraldeak eta komunitateak sormen, inspirazio eta berrikuntza handiagoko errealitate bihur daitezke.

Laugarrenik, **talentu globala** erakartzea planteatu dut. Dagoeneko gu ezagutzeroa etorri direnekin has gaitezke, lanbide- edo unibertsitate-heziketako mugikortasun-programen bidez etorri direnekin, hau da, graduoko, graduondoko edo doktoretzako programetan matrikulatu diren ikasleekin; arretaz jarraitu ditzakegu eta gure herrialdeko etorkizunaren konplize egin. Era berean, gure hiri erakargarrien tenkadari jarraitzen diotenak ere

kontuan har ditzakegu, haien sormena, gaitasunak, ekintzailetzarako interesa eta bizitzeko gogoak gure hirietan gara ditzaten. Gaztetatik gure errealitaterantz hurbil daitezen lan egin dezakegu, eskola arteko trukeak eta familia-turismoa zainduz, eta motxiladun gazteen turismoa gaitzetsi gabe. Gure ikusgaitasuna eta presentzia areagotu ditzakegu munduan existitzen diren hainbat sareren bidez: trukerakoak, presentzialak eta digitalak.


Normalizazioak berriz ere *globaldemia* zaharrak ekartzerik nahi ez badugu, **herrialdearen eraldaketaren** alde egin behar dugu, baita **berroreka demografikoari** dagokionez ere, hau da: gure gazteak zaindu, erbesteratuak berreskuratu, migranteak balioetsi eta talentu globalak erakarri behar ditugu, herrialde gazteago eta talentudunago bat lortzeko

GARAI BATEKO GAZTERIATIK BESTE GARAI BATEKO GAZTERIARA

LUIS SANZO GONZÁLEZ

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako saileko
Estatistika Organo Berezia





Euskadiko gazteen bizi-baldintzek baldintzatuta jarraitzen dute, oraindik ere, hainbat aldaketaren ondorioz, eta aldaketa horien jatorria azken mende laurdenean gertatu diren ondoz ondoko krisi ekonomikoak dira. Krisi ekonomiko horien arteko sakonena izan zenaren ondorioz, 1980ko eta 1990eko hamarkadetan industria arloko ehunka mila enplegu galdu ziren. 1977 eta 1996 artean, eta Europako industria-birmoldaketaren ondorioz, 157.000 lanpostu galdu ziren Euskadin; gainera, kopuru hori ia 200.000ra iritsi zen, lehen sektoreko eta eraikuntzako lanpostuen galerak gehitu ondoren.

Industriaren krisialdiaren ondorioz, Euskadi, hamarkada askoan, estutasunez ibili behar izan zen gizarte postindustrialean sartzeko. Nahiz eta zerbitzuen sektoreak bultzada eman –ongizatearen gizarte berriarekin gehien lotzen ziren adarrek eman zuten bultzada barne–, 1996 erdialdera, ekonomia hirugarren sektorerantz bideratzeak ekonomiaren gainerako

arloetan galdutako lanpostuen hiru laurden konpentsatzen lagundu zuen soilik.

Desfase hori, gainera, eraldaketa sozial eta ekonomiko sakon baten esparruan gertatu zen. Izan ere, joan den mende amaieran, emakumea lan-merkatuan sartu zen: 1976an, biztanleria aktiboaren % 27 baino gutxiago ziren emakumeak, baina 1990eko erdialdean, proportzio hori, 16 eta 34 urte bitarteko biztanleen artean, % 45 baino handiagoa zen; kolektibo hori, gainera, 1950. urtetik 1980. urtera arteko baby boomeko belaunaldi ugariak osatzen zuten.

Industria birmoldaketa, emakumea lan-merkatuan pixkanaka sartzen joan izana eta 16 eta 34 urte bitarteko populazioaren hazkundea dira Euskadin garai horretan langabezia-tasa hain altuak izatea azaltzen duten arrazoiak. Industria birmoldaketaren unerik gogorrenean, 1985eko amaieran, langabezia-tasa orokorra % 24ra iritsi zen. Baina 1990eko hamarkadako lehen

erdiko krisiaren ondorioz, langabezia-tasa maximoa % 26 ingurura iritsi zen 1994. urte hasieran.

Gazteria izan zen aldaketa horien ondorioak pairatzen lehena Euskadin. 1990eko hamarkada erdian, 16 eta 34 urte bitarteko biztanleriaren % 43,5 langabezia zegoen, edo aldi baterako lan-kontratu batekin edo kontraturik gabe lan egiten zuen; eta langabezia-kasu guztien % 70 inguru gazteen talde horrek osatzen zuen. Maila sozialean, ikasle ez ziren 18 eta 34 urte bitarteko biztanleen bosten bat inguruk baino ezin zuen etxe propio bat mantendu. Hala egiten zutenen, eta, batez ere, ongizate-egoeran bizi zirenen proportzioa are txikiagoa zen: guztizkoaren % 18ra heltzen zen soilik.

Hala eta guztiz ere, gizartean ez zen ia nabaritu ere egiten pobrezia eta ongizate-gabezia hori. 1990eko hamarkada erdialdean, kasu horien % 72 ezkutuan geratu zen gizartearentzat, aitaren edo amaren etxe barruan sartuta. Ezkutuko pobrezia edo prekaritatea zen, batez ere.

Krisi sozial horren ondorio nagusi bat gizartearen ugalketa-prozesu normalak gelditzea izan zen. Izan ere, ugalkortasun-adierazleak beherakada nabarmen eta bortitza izan zuen: 2,65 seme-alaba emakumeko 1977an, baina 0,90 1994an eta 1995ean. Bilakaera horrek ez zuen lotura handirik izan iraultza kultural mota ezeinekin. Batez ere, pobrezia- eta gizarte-bazterketaren ondorio bat izan zen.

Gazte haiek eta Euskadiko gaurko 16 eta 34 urte bitarteko biztanleriak bizi duen errealitateak antzekotasun asko dute (Atzeraldia Handiak eta

COVID-19 pandemiak enpleguan sortu dituzten ondorioak gehien pairatu dutenen artekoak dira gaurko gazteak). Euskadiko gaurko gazteen diagnostikoa lehen aipatu denaren oso antzekoa da. Alde horretatik, gazteak, oraindik ere, gure ekonomiaren aldizkako krisien biktima nagusiak izaten jarraitzen dute.

Hala ere, ez litzateke zuzena izango bakarrik diagnostiko hori egitea eta gertakari nabarmen batzuk alde batera uztea, etorkizunean zer-nolako ondorioak izan ditzaketen aurreikusi gabe.

Lehenik eta behin, 2021 hasieran, orokorrean, 62.000 lanpostu inguru galdu ziren, hau da, % 6,2ko beherakada izan zen 2008an erregistratutako lanpostu-kopuru maximoaren aldean. Hala ere, kopuru hori oso urruti geratzen da 1977 eta 1985 artean Euskadin galdu ziren 140.000 lanpostu baino gehiago haietatik; izan ere, garai hartan, % 18,6ko beherakada izan zen.

Horren ondorioz, 16 eta 34 urte bitarteko biztanleriaren gaur egungo langabezia-tasak eragin txikiagoa izan du beste krisialdi batzuen aldean. Izan ere, nahiz eta langabezia-tasa oraindik ere oso handia izan, 2021eko % 18,8ak ez du zerikusirik 1995eko % 35,8arekin. Horrez gain, 16 eta 34 urte bitarteko biztanleen pisua langabezia-tasaren guztizkoan honako hau izan da: % 70ekoa 1993tik 1995era; % 50 ingurukoa 2008an, eta % 38,6koa 2021ean.

Bigarrenik, gaur egungo eta datozen urteetako Euskadiko gazteek etorkizunerako duten aurreikuspena oso bestelakoa da 1980ko eta 1990eko gazteek izan zutenaren aldean.

Oraindik ez da bete lan-baldintzetan erabateko berdintasuna lortzeko erronka; baina emakumea lan-merkatuan erabat integratuta duen gizarte bateranzko trantsizio-prozesua ia amaitutzat eman daiteke, biztanleria aktibo osoaren ia % 48 emakumeak izan baitira 2021ean.

Era berean, immigrazioa izan arren, gaur egungo gazteek askoz ere lehia-presio txikiagoa dute lan-merkatuan. Alde horretatik, nabarmendu behar da gazteen pisu demografikoa mugatua dela; aldiz, lana duten eta erretiroa hartzeaz dauden 55 urtetik gorakoen kopurua oso handia da. 1995ean, 16 eta 34 urte bitarteko biztanleria bederatzi aldiz handiagoa zen lana zuten 55 urtetik gorakoen biztanleria baino. 2021ean, bi aldiz handiagoa da soilik.

Beraz, gaur 35 urte baino gutxiago dituen biztanleriak enplegu-aukera gehiago ditu iraganeko gazteen belaunaldiek baino. Gaurko gazteen heziketa mailak ere enplegu-aukera handiagoak eskaintzen ditu; izan ere, ikasketa kualifikatuak dituzten pertsonak 1990eko hamarkada erdian baino % 20 gehiago dira.

Gaur egungo emantzipazio-datuek adierazten dutenaren arabera, etorkizunak zer bide har dezakeen ikus daiteke. 1996an, bizitza erabat independentea zuten 16 eta 34 urte bitarteko gazte ez ikasleak ia % 30 ziren; gaur, aldiz, % 45 baino gehiago dira. Ildo beretik, gaurko ezkutuko pobrezia-aren inpaktua eta 1980ko eta 1990eko hamarkadetan ezagutu zena oso bestelakoak dira, baita XXI. mende hasierako urteetan ezagutu zenaren aldean ere.

Kontua ez da gaurko Euskadiko gazteen arazoei garrantzia kentzea. Baina nabarmendu behar da datozen hamabost urteetako egoera ez dela etorkizunik gabekoa. Aitzitik, bizitza normalago bat izateko aukerak dituen etorkizuna da, hau da, enplegu egonkorra, etxebizitza egokia eta soldata duina eskuratzeko arrazoizko aukerak dituen.

Horrek ez du esan nahi gizarte erabat egonkor baterantz goazenik. Enplegu-gaietan, Euskadiko gizarteak aurre egin beharko dion erronka nagusia zera da, modernizazio teknologikoa zerbitzuetara hedatuko dela. COVID-19aren krisiak aurreikusten uzten duen etorkizunean, lan-indarraren premia gutxitu egingo da zerbitzuen modernizazio teknologikoaren alde.


Eta enplegua eta eskuragarri dauden baliabideak modu bidezkoan banatzera behartuko duten prozesuen ondorioei aurre egin behar zaienean –desberdinkeria hazkor bat izateko arriskua gelditu nahi bada, behintzat–, orduan, egiazko erronkak agertuko dira, argi eta garbi, belaunaldi berriek aurre egin beharko dietenak.

Baina belaunaldi berriek ez dute beren etorkizuna zalantzan jarriko erronka horiei era batera edo bestera aurre egiteagatik, ez gara horretaz ari. Izan ere, kualifikazio handiagoa dutenez eta ekonomia digital berrira egokitzeko gaitasun handiagoa dutenez, gazteek, ziurrenez, desenpleguaren arriskuaren ondorioak gero eta gutxiago pairatuko dituzte, nahiz eta gaur egungo zerbitzuak digitalizaziora eta beste garapen teknologiko mota batzuetara egokitu beharko diren, eta kontuan izanda, baita ere, garapen teknologikoek,

iraganean, nekazaritza- edo industria-
arloko enplegu maila erortzea ekarri
zutela.

Kontua da, gaurko gazteek politika,
gizarte eta enpresa mailako lidergoko
lanpostuak eskuratzen dituzten
heinean, etorkizuneko gizarte-
ereduaren gainean hartzen dituzten
erabakiak beren jarrera ideologikoaren
araberakoak izango direla neurri handi
batean. Eta zalantza nagusia, batez
ere, zera da: kontuan izanda gure

gizartean indibidualizazioa geroz eta
handiagoa dela, ea horrek Stirner-
en indibidualismoan inspiratutako
antolaketa politikoak sortuko ote
dituen, “Ni bakar bat, eta nire jabetza”
printzipio ekonomiko eta soziala
printzipio goren bihurtuz; edo, aldiz,
Marx-etik Feuerbach-era arteko gazte
hegeliarren eztabaida inspiratu zuen
gizaki (gizon eta emakume) sozialaren
ikuspegiak nola edo hala biziraungo ote
duen.




AUKERAK, GAZTEEK BEREN BIZI-ERRONKAK BETE DITZATEN

NORA SARASOLA IRIZAR

BBK-ko Gizarte Ekintzako zuzendaria





COVID-19a, pandemia, antigorputzak, PCRRak... Duela urte eta erdi ezagutzen ez genituen hitz horiek ohikoak bihurtu dira gure eguneroko bizitzan. Gauzak aldatu egin dira. Asko, gainera, azkenaldian. Une zailak dira pertsona guztientzat, baina oraingo honetan gehien sufritu duen taldeetako bati buruz hitz egin nahiko nuke: gazteei buruz.

Kalbario bat bizi dute gazteek lan-arloan, eta larriagotu egin zaie bi krisi kateatu zaizkielako: finantza-krisia, lehenik, eta osasun-krisia, gero. BBK-ren diagnostikoa bat dator aditu gehienen diagnostikoarekin. Historiako belaunaldirik prestatuenak zailtasun ugari ditu lan-merkatuan sartzeko.

Badira aurreikusteko zailak diren elementu koiuntural batzuk, gure gazteei zorrozki eragiten dietenak, baina badira egiturazkoak diren beste batzuk ere, gazteak enplegu prekarioen, soldata apalen, lan-ezegonkortasunaren, aldi baterako kontratuen... aurkako

etengabeko borrokara bultzatzen dituztenak. Zabala da larritasunen zerrenda, eta bi gauza egin daitezke: beste alde batera begiratu edo arazoari ausardiaz aurre egin eta mahai gainean konponbide berriak jarri, aurreko errezetek ez baitute balio.

Momentuz, BBK-n, gazteak eta enplegua jartzea erabaki dugu lehenetsun bagoi-buru. Azken urteotan, ahalegin handiagoa egin dugu Bizkaiko gazteek bizi dituzten lan-merkatuko desoreketan eragin zuzena izango duten enplegu-programak eta -politikak garatzeko. Gazteak dira gure gizartearen etorkizuna, eta haiengana bideratu behar ditugu enplegu-estrategiak, gure gizarteak aurrera egin dezan. Haientzat proiektu sorta zabala daukagu BBK fundazioaren ildo estrategiko bakoitzaren barruan. Izan ere, estatuko lehen Gizarte Ekintza da gurea, duen eragin ekonomikoagatik.

Baina haur izanda iristen da gazte izatera. "Biltzeko erein". Hori izan liteke

BBK aspalditik txikienekin garatzen ari denaren goiburua. Besteekiko errespetuarekin, talde-lanarekin, ingurumenarekin, kulturarekin... zerikusia duten hezkuntza-proiektuak lantzen ditugu haiekin, probetxuzko esperientziak eta ezagutzak bereganatzen dituzten inguruneetan, hala nola Urdaibai Zentroan. Besteekiko eta ingurumenarekiko errespetuan eragina duen prestakuntza-ibilbidea garatzen dugu zentro horretan, Jagon edo Klima programen bitartez.

Eta gazte izatetik heldu izatera igarotzen gara eta errealtatearekin egiten dugu topo. Gazteek lan egin nahi dute eta kalitatezko enpleguak aurkitu, eta kultura ekintzailea sustatzea da hori lortzeko aukera bat. Izan ere, eremu horretan, atzean geratu gara Europako beste eskualde batzuekin alderatuta. Horixe dio Euskadiko 2020rako Erakundearteko Ekintzailatza Planak, erkidegoan ekintzailatzak duen egoeraren diagnostikoa egiten duenean, eta ohartarazten du hobetzekoak direla ideien eta proiektuen masa kritikoa, haien tamaina, hazteko anbizioa eta nazioarteko orientazioa.

Ekintzailatzak une gozoa bizi du mundu mailan. Badirudi ez dagoela ekintzailatzaren aldeko apustu gutxi-asko esplizitua egiten ari ez den herrialde edo eskualderik, garapen ekonomiko eta sozialerako palanka izan dadin. Joera horrek arazo bat sortzen digu. Guztiek erakarri nahi dituzte ekintzaileak eta *startup*-ak.

Eta egoera horretan dago gure lurraldea. Ekintzailatza modu integralean bultzatzea da gure erakundeen helburuetako bat, proiektu, enpresa eta enplegu lehiakor eta iraunkor

berriak sor eta haz daitezen, bereziki etorkizuneko sektoreetan, zeinarekin bat egiten baitugu. Izan ere, uste dugu lankidetzak publiko-pribatua dela Bizkaia ekintzailatzarako leku egoki gisa kokatzeko bideetako bat.

Alde horretatik, BBK-k arreta berezia eskaintzen die Bizkaiko beste erakunde batzuekin eta Europan erreferentzia diren irabazi-asmorik gabeko erakundeekin garatzen diren ekintzailatza-programei.

BBK Kunan edo GJHren Etxean (Garapen Jasangarriaren Helburuak) proiektuak abian jartzen hasi gara duela gutxi, non gizarte-ekintzailatzako ekosistema bat sortzen ari garen, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuei jarraiki.

BBK Ekin programa da gure beste apustu bat. Ekintzailatza bultzatzeko programa integrala da, eta oso baliagarria gertatzen ari da gure lurraldean kokatutako gazteek garatzen dituzten etorkizuneko ideiak haztea lortzeko. Hautatutako proiektuek babes-eta laguntza-programa indartsu bat dute eskura; horrela, ekintzaileak bere enpresa garatzen jar baitezake arreta.

Baina jo dezagun ikuspegitik adibide zehatzetara. BBK Ekin programak ideia berritzaile eta ausartak babesten ditu une honetan, hala nola Bizkaiko lehen sektoreko lehengaiekin kalitate goreneko km0-ko elikagaiak egiten dituen enpresa bat edo hondakinei berriz balioa emateko prozesu termokimikoak garatzeko teknologia propioa duen beste enpresa bat. Era berean, sendagaiak elektronikoki banatzeko gailu bat diseinatzen laguntzen ari gara, bai eta hiriko haize-

sorkuntzako sistema bat garatzen laguntzen ere. Gure gazteei ematen diegun bultzadaren eta BBK-k talentua erakartzeko egiten duen ahaleginaren lau adibide besterik ez dira horiek: gizarte ikuspegia duten, epe luzerakoak diren eta lurraldeari lotutakoak diren ideia berritzaileen aldeko lau adibide.

BBK-k beste alor askotan ere bultzatzen du gazteen lana, eta haien proiektuek dimentsio sozial handia hartzen dute. Gizarteratze-politiketan, adibidez, Kutxabankekin adostu dugu interes-tasa berezia izango duen finantzaketa-lerro bat gaitzea Bizkaian kalteberatasun egoeran dauden pertsonen eta kolektiboen gizarteratzea eta laneratzea sustatzeko proiektuak garatzera bideratutako hirugarren sektoreko erakundeentzat eta gizarte-ekonomiako enpresentzat.

Kultura da gazteek protagonismoa hartzea gustatuko litzaigukeen beste sektore bat. Gure azken apustuetakoa bat BBK Salako Soinu Berriak lehiaketaren bidez sortzen ari diren bakarlariei edo taldeei laguntzea da. Edo gune bat irekitzea, sortzaile gazteek publikoarekin komunikatzeko aukera izan dezaten. Duela gutxi Eskaparte aurkeztu dugu, talentu gazteen artea zabaltzeko gunea.

Nabaria da gazteak sufritzen ari direla pandemiarekin. Gizarte-osasunari buruzko azken barometroak adierazi digu pandemiak eragin "nabarmena" izan duela hamar gaztetik seitan. Hala ere, baikorrak dira etorkizunari begira, eta hori berri ona da, gizarte-konfiantzaren indizea 10etik 7 puntutan kokatu baitute.

Gazteak berak dira lehenak nabaritzen lan-merkatuan sartzea inbutu moduko

pasabide estu bat zeharkatzea bezala dela. Askok dira enplegu-eskatzailak bi krisialdi –finantza-krisia eta osasun-krisia– kateatzeak mugatutako eskaintzan. Aukera falta horrengatik nolabaiteko motibazio-galtzea ari da gertatzen, gazteek uste baitute haien emantzipazioa arriskuan jarri dela belaunaldi horretan, baita prestatzen jarraitzen dutenentzat ere.

Etxean konektibitate-arazoak dituzten gazteak lekuz kanpo geratu izana da muturreko beste egoera bat. Konfinamenduak iraun zuen bitartean modu gordinen azaleratu zen arrakala digitalaren arazoa, zeina uste izan baikenuen adinekoen artean baino ez zela gertatzen.

Beren familiak ere kolokan ikusi dituzte gazte askok pandemiaren ondorioz. Maite dituzten pertsonak galtzea, langabeziak familian eragindako zailtasun ekonomikoak... Ez dira konfinamenduak haien bizitzetan eragin dituen ondorioekin bakarrik bizi izan, haien erreferenteak diren pertsonen eragindako kalteekin ere bizi behar izan dute.


Askatasun-murrizketa handiak bizitzea tokatu zaie sistema estankoa gutxien ulertzen dituzten eta sistema hierarkiko eta autoritarioetara egokitzea zaila egiten zaien bizitzako etapan. Gogoeta asko sorraraziko zien horrek haietako askori, edo oldartzea eta aurre egitea eragingo.

Baina dena ez da oztopo izan. Pandemiak elkartasuna ere piztu die gazteei, adineko pertsonen edo mendekotasuna duten laguntzeko programa edo ekimen boluntario edo komunitarioen bidez. Gainera,

erresilientzia, malgutasuna eta hezkuntza-sistematik egokitzapen azkarra dutela erakutsi dute.

2021. urtean, aukerarako leiho bat zabaltzeko beharko litzateke. Europako funtsak borroka-fronte nagusietako

batean erabiltzea ere hartu beharko litzateke aintzat: gazteen langabeziaren aurkako borrokan. 25 urtetik beherakoak izan ziren aurreko krisi ekonomikoak gehien kolpatu zituenak. Eta orain, pandemia batean, haien alde egin behar dugu, eta ez bazterrean utzi.




COVID-19AREN ERAGINA EUSKADIN BIZI DIREN ETA JATORRIZ ATZERRITARRAK DIREN GAZTEENGAN

JULIA SHERSHNEVA ZASTAVNAIA

UPV/EHU; Ikuspegi-Immigrazioaren Euskal Behatokia





COVID-19aren pandemiak munduko biztanleria osoari eragin dio, argi eta garbi, eta, hainbat txostenetan eta azterlanetan hauteman ahal izan den moduan, ez du soilik osasunaren eremuan eragina izan. Horrela, birusaren hedapena leuntzeko hartutako neurriak ondorioak ari dira izaten bizitzako ia maila guztietan: hezkuntza, enplegua, gizarte-ongizatea eta ongizate psikologikoa, pertsonen mugikortasuna, etab. Munduko Bankuaren aurreikuspenen arabera, pobrezia maila, munduan, muturreko pobrezia-egoeran bizi diren 88 milioi pertsona baino gehiagora iritsi da lehen aldiz azken 20 urteetan (World Bank, 2021).

Egia esan, nahiz eta pandemiak biztanleria osoari eragin, talde batzuk bereziki kalteberak dira pandemiak sortutako eraginen aurrean. Talde kalteberen artean, egiturazko krisien ondoriozko ondore ekonomikoak eta sozialak jasateko arrisku gehien duten kolektiboetako bat migratzaileak dira, eta COVID-19a egiturazko krisi bat da.

EAEn jatorriz atzerritarrak diren gazteak ardatz hartuta, 15 eta 29 urte bitarteko gazte atzerritarrak jatorriz bertan jaioetakoak halako bi dira biztanleria osoa oinarri hartuta (% 24,6 eta % 12,6 hurrenez hurren). Beraz, horrek esan nahi du EAEn finkatu eta jatorriz atzerritarrak diren biztanleriaren laurden bat gazteak direla. Hainbat azterlanek azaldu duten moduan (Injuve, 2020; Amalgama7, 2020; Mahía, 2020), COVID-19aren pandemiak, oro har, eragin nabarmenak sortu ditu gazteengan. Horrela, alde batetik, biztanleriaren segmentu horren lan-prekarietatea handitu egin da, zeina pandemiaren aurretik okupazio-adierazle kezkagarriak izateagatik nabarmentzen baitzen dagoeneko, hau da, langabezia-tasa altuak eta gaitz kualifikazioa izateagatik. Bestetik, gazteen hezkuntzak eragin nabarmena jasan du, batez ere ikastetxeak itxi direlako edo ikasteko moduak aldatu direlako. Azkenik, hainbat ondorio hauteman dira maila psikologikoan eta emozionalean, besteak beste,

antsietate, estres eta depresio gehiago, bai eta jokabide gatazkatsu gehiago ere, bereziki nerabeen artean (Amalgama7, 2020).

Ondorio horiek guztiek jatorriz atzerritarrak diren biztanle gazteei ere eragin diete, eta kasu horretan, eraginak are larriagoak izan dira, gazteak izateaz gain, immigranteak ere baitira, eta bi kolektibo horiek askotariko desberdintasun sozial eta ekonomikoen zeharkako eragina jasaten baitute. Horrela, 2018ko azkeneko Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkestaren (PGDI) arabera, benetako pobrezia-egoeran dauden eta atzerriko nazionalitatea duten etheen tasa % 30,7ra arte igo da; aitzitik, jatorriz bertan jaiotakoen pobrezia-egoerako etheen tasa % 4,2koa da (2018ko PGDI, Eusko Jaurlaritza). Errealitate horrek bizitzaren hainbat alderdiri eragiten die. Era berean, pandemia garaian urruneko ikaskuntza martxan jarri denez geroztik, eten digitala nabarmendu da; izan ere, eten digitalak nabarmen eragin die biztanleriaren alderdirik kalteberenei, baita jatorriz atzerritarrak direnei ere, sarritan ez baitute izaten beharrezkoak diren teknologia digitaletarako sarbiderik (OIM, 2020). Horregatik, pandemiaren aurretik ikasle immigranteek hezkuntza-arloko kalteberatasun-adierazleak bazituzten –esaterako, eskola-errendimendua edo ikasketak behar baino lehen uztea–, gaur egungo egoera honetan, lehendik existitzen ziren desberdintasunak are gehiago larriagotu daitezke.

Konfinamenduko hilabeteak, berez, oso gogorrak izan dira biztanleria osoarentzat, baina are gogorrago izan dira etxebizitza- edo pilaketa-arazoak bizi dituzten pertsonentzat

edo familientzat. Alde horretatik, arazo hori gehiago izaten dute jatorriz atzerritarrak diren biztanleek berton jaioak direnek baino. Horrela, Etorkin Atzeritarrei buruzko Inkestaren azkeneko datuen arabera (2018ko EABI, Eusko Jaurlaritza), jatorriz atzerritarrak direnen % 34,2 pertsonako 20 metro karratu baino azalera txikiagoa duten etxebizitzetan bizi dira. Horien artean, % 18k 15 eta 29 urte bitartekoak dira.

Bestetik, jatorriz atzerritarra den biztanleria gazte aktiboari dagokionez, pandemiaren ondorio negatiboak eta pandemiaren ondoriozko krisi ekonomikoa hauteman ditu. Izan ere, lan-merkatuan desabantaila bikoitza jasaten dute: alde batetik, gazteak direlako, eta bestetik, jatorriz atzerritarrak direlako; horren ondorioz, bereziki kalteberak dira egiturazko aldaketa ekonomikoen aurrean. Sarritan, lan-esparru prekarizatuagoak betetzen dituztenez –bai ekonomia informalean edo behin-behinekotasun edo lan-ezegonkortasun handia izaten duten sektoreetan–, enplegua galtzeari edo lan-baldintzak okertzeari gehiago egin behar izaten diote aurre.

Azkenik, jatorriz atzerritarrak diren gazteen beste segmentu batez ere hitz egin behar da, hau da, harrera-herrian familia-erreferenterik ez duten adingabe eta gazte migranteak. Kopuru aldetik ez dira asko; hala ere, pertsona horiek kalteberatasun-egoera jasan behar izaten dute hainbat arrazoiengatik (Ararteko, 2021), eta egoera hori, pertsona horientzat, pandemia aurrean ere kezagarria zen jada. Arartekoaren txostenaren arabera, osasun-krisian eta konfinamenduan zehar programa bereziak eta larrialdietako udal zerbitzuak martxan jarri ziren arren

–batez ere etxerik gabeko gazteei laguntzeko–, kolektibo honek, oraindik ere, zailtasun handiak izaten ditu harrera-herrialdean laneratzeko eta gizarteratzeko, eta orain, pandemia dela-eta, zailtasun horiek areagotu besterik ez dira egin.

BIBLIOGRAFIA


- Amalgama7 (2020). *Nerabeak, familiak eta COVID-19: Bizikidetzala biziraupena?* Eskuragarri hemen: https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/doc_sosa_adoles_fam_covid_19/eu_def/adjuntos/estudi_d3.pdf
- Arartekoa (2021). *Familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileak Euskadin: Diagnostikoa eta jarduteko proposamenak*. Eskuragarri hemen: https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_5100_1.pdf
- EABI 2018. EAEko Etorkin Atzeritarrei buruzko Inkesta (2018). Eskuragarri hemen: https://www.euskadi.eus/txostena_ikerketa/eaeko-etorkin-atzeritarrei-buruzko-inkestaren-emaizen-txostenak/web01-a2famil/eu/
- Eusko Jaurlaritza (2020). *Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta (PGDI). Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Berezia*. Eskuragarri hemen: https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/_epds_2018/es_epds2012/data/Informe%20EPDS%202018_FINAL.pdf
- InJuve. Espainiako Gazteriarren Institutua (2020). *Juventud en riesgo: Análisis de las consecuencias socioeconómicas de la COVID-19 sobre la población joven en España*. Eskuragarri hemen: <http://www.cje.org/descargas/cje7620.pdf>
- Mahía, R.: «Los efectos del COVID-19 sobre la inmigración en España: economía, trabajo y condiciones de vida», in *Anuario CIDOB de la Inmigración 2020* (2021eko urtarrila), 68-81. or., 2020. DOI: doi.org/10.24241/AnuarioCIDOBInmi.2020.68
- OIM (2020). *Instantáneas analíticas sobre la COVID-19: Consecuencias para los niños y jóvenes migrantes Comprender las consecuencias de la pandemia para la migración y la movilidad*. Eskuragarri hemen: https://www.iom.int/sites/default/files/documents/instantaneas_analiticas_covid-19_17_consecuencias_para_los_ninos_y_jovenes_migrantes.pdf
- World Bank (2021). *Global Economic Prospects*. Washington, DC: World Bank. DOI: 10.1596/978-1-4648-1612-3

GAZTERIA, PANDEMIA ETA ZIURGABETASUNA

MARÍA SILVESTRE CABRERA

Deustuko Unibertsitateko Soziologia katedraduna.
Deustobarometroko zuzendaria





Pandemiak gure bizitzetara, gure egunerokotasunari eta gure gizarte-harremanei eragin die, baita gure ideia eta balio ideologiko eta politikoei ere. Hasiera batean, pandemiaren ikasgai bat elkartasuna izan behar zela iritzi zen, elkartasuna komunitatea sortzeko printzipio zela ulertuta. Kontuan hartuta kutsapenen mundu mailako irismena eta sortzen ari zen erantzun-mota –batez ere osasun- eta laguntza-esparruaren bidez–, pentsatu genuen gure gizarteak ulertu egin zutela normaltasuna definitzeko modu berrien printzipio eraikitzailea elkartasuna zela. Hala ere, pandemiaren, murrizketen eta kontrolen iraunkortasuna dela-eta, askatasunaren printzipioaren berrespen indibidualista ere agertu zaigu. Madrilgo Autonomia Erkidegoko hauteskundeetan hala egiaztatu ahal izan dugu. Pertsona askok, helduek zein gazteek, norbanako askatasuna aldarrikatu dute, pertsonen osasunaren aldeko babes komunitarioa eta legitimazio sozialean oinarritutako murriztapen kolektiboak alde batera utzita.

Duela gutxi, Ronald Inglehart zendu zen, soziologo iparramerikarra eta Balioen Munduko Inkestaren sortzailea. Inglehart-ek (1997) urteak zehaztasun gure gizarteak aztertzen, eta helburua zuen egiaztatzea ea garapen-ereduetan sozializatuta zeuden eta premiak beteta zituzten belaunaldiak materialismotik urrun eta postmaterialismoa deritzonetik hurbil zeuden balioak lehenesten zituzten, hau da: autoerrealizazioa enpleguan, gizarteak politikan parte hartzea, ekologia lehenestea, etab. Horren arabera, Euskadiko gazteak oparotasun-ereduan sozializatu izan dira; hala ere, ondoz ondoko bi krisi gogor ere jasan behar izan dituzte: 2008ko krisi ekonomikoa eta 2020ko osasun-krisia. Postmodernismoak ez ditu ordeztu lehenetik zeuden kategoriaz ideologikoak: ezkerreko vs. eskuineko. Era berean, “goiko eta beheko jendea”-ren ustezko zeharkako bereizketa ere ez da mantendu, zeinak kastak eta 1978ko erregimena nabarmentzen baitzituen; izan ere, ezkerreko bandera laster

berreskuratu genuen, nahiz eta gero eta zailagoa izan (langileen) klase-kontzientzia berreskuratzea.

Kasu honetan, galdetu beharko genuke norbanakoen askatasun bat aldarrikatzea –alde batera utzita askatasun hori gauzatzeak izan ditzakeen ondorioak– balio postmaterialista ote den edo ez. Hori, jakina, Javier Elzok (Elzo eta Silvestre, 2010) aipatzen zuen “indibidualismo atsegingarri eta babestua”-rekin oso lotuta dago, baina ez dago hain lotuta modernitatearen berezko indibidualizazio-prozesuarekin. Izan ere, Beck eta Beck-ek (2001) edo Halman-ek (1996) definitu zuten moduan, azken prozesu horrek ez lituzke apurtuko elkartasun-loturak; hau da, azken indibidualismo horrek, norbanakoen askatasuna aldarrikatzeaz gain, badaki sektore publiko sendo bat izan behar dela, bat-batean agertzen diren premiei eta babesgabetasun-arriskuari erantzun eta horien aurrean babestu ahal izateko.

Gaurko gazteak, eta, oro har, baita biztanleria ere, askotarikoak dira, eta ikuspuntu intersektzionaletik begiratu behar dugu, baldin eta gazteen deskribapen bat egiten saiatu nahi badugu. Ideologikoki, gaurko gazteak progresistagoak dira eta ez hain kontserbadoreak, bai eta soberanistagoak ere eta ez hain konstituzionalistak. Aldi berean, postmodernismoaren berezko balio berriak gailentzen dira, esaterako, kezka ekologikoa eta aldarrikapen feminista, zeina, kasu honetan, ageriagoa den emakume gazteen artean, gizon gazteen artean baino. 2018az geroztik, mugimendu feminista, bai kaleetan egin diren manifestazioetan, bai sare sozialetan izan duen presentzia,

handitu egin da, batez ere emakume gazteen parte-hartze masiboari esker. Feminismoaren laugarren olatuaz hitz egiten dutenek (Silvestre, López eta Royo, 2021), laugarren olatu hori, hain zuzen ere, honako hauekin lotzen dute: feminismoaren gaztetzea, sare sozialen erabilera, zeharkakotasun ideologikoa eta sexu-indarkeriaren aurkako borroka hartzea feminismoaren agendako lehentasun nagusitzat. Amelia Valcárcel-ek (2019) adierazten duenaren arabera, feminismoa teoria politiko bat, mugimendu sozial bat eta agentzia bat da (aurreikusi gabeko beste hainbat elementu izateaz gain). Aurreikusi gabeko hainbat elementu horietako batzuk hauek dira, besteak beste: batetik, Queer teoriaren garapena, eta bestetik, identitateak birdefinitzen dituen eta horiek errealitate likido, etengabeko eta aldakor batean kokatzen dituen eztabaida teorikoa. Batzuen iritziz, feminismoaren banaketa hori, gainera, belaunaldien arteko banaketa bat da. Emakume gazte feministek Judith Butler-en feminismo identitario baten alde egingo lukete gehiago; feminismo zaharra, aldiz, Nancy Fraser-en feminismoaren subjektu historikoaren aldarrikapenean eta birbanaketa-premian kokatuko litzateke.

Gaurko gazteek ere enplegu-prekariatatea eta epe luzeko bizi-proiektu bat eraikitzeko segurtasun-falta pairatzen dute kolektibo gisa, eta horren ondorioz, kasu askotan, “carpe diem” eta “sapere aude” lehenesten dute, hau da: unean unekoa bizi, eta ausartu zaitez ikasten, ausartu zaitez aske izaten. Zaila da etorkizuna aurreikustea gizarte likidoetan, ia gaseosoetan, non ziurgabetasuna ziurtasun bakar moduan instalatu den. Duela urte batzuk ziurgabetasunak ziurtasun

itxura baino ez zuen; gaur, ziur dakigun gauza bakarra zera da, etorkizunak ekarriko diguna ezezaguna, aldakorra, ziurgabea eta prekarioa izango dela. Nola sortu belaunaldi-kontaketa bat oinarri horiekin? Zaila da hori egitea, ziurgabetasunak indibidualismo handiago baterantz eramaten baikaitu. Hala ere, ziurgabetasunarekin batera, elkartasunaren aldeko apustuak egiten dira, eta austeritatearen, birziklatzearen eta ez kontsumitzearen aldeko diskurtsoak ere sortzen dira, sistema honek, hazkundea bermatzeko, kontsumo arrazoigabea hartzen baitu oinarri.

Esango nuke, gaurko gazteen balioak biharko heldutasunarekin aztertzen ditugunean definitu ahalko ditugula. Ordura arte, balio horiek anitzak, askotarikoak, likidoak eta ziurgabeak izaten jarraituko dute.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK


- Beck, Ulrich and Beck-Gernsheim, Elisabeth (2001) *Individualization. Institutionalized Individualism and its Social and Political Consequences*, Sage Publications.
- Elzo, Javier y Silvestre, María (2010) *Un individualismo placentero y protegido. Cuarta encuesta europea de valores en su aplicación a España*, Publicaciones Universidad de Deusto.
- Halman, Loek (1996) *Individualism in Individualized Society?* *International Journal of Comparative Sociology*, Volume 37: Issue 3-4, pp. 195-214.
- Inglehart, Ronald (1997) *Modernization and Postmodernization: Cultural, Economic, and Political Change in 43 Societies*. Princeton: Princeton University Press.
- Silvestre Cabrera, María; López Belloso, María; Royo Prieto, Raquel (2021) New Feminist Studies in Audiovisual Industries. The Fourth Wave in Audiovisual Content: A True Achievement of Feminism? *International Journal of Communication*, Vol. 15, p. 23.
- Valcárcel, Amelia (2019) *Ahora, Feminismo: Cuestiones candentes y frentes abiertos*, Ediciones Cátedra.

COVID-19A ETA BELAUNALDIEN ARTEKO JUSTIZIA

JOSEBA ZALAKAIN HERNÁNDEZ

SIIS Dokumentazio eta Ierketa Zentroko zuzendaria





Bistakoa da COVID-19aren pandemiak gazteengan duen eragina, eta hainbat ikerketa eta txostenetan aztertu da. Pandemiaren ondorioak gogorrak izan dira hezkuntzarako eta enplegurako sarbidearen, sozializazioaren, osasun mentalaren edo aisialdirako eta kulturarako sarbidearen ikuspegitik. Azterlan bat baino ez aipatzearren, LANEk 2020ko udan adierazi zuen pandemiak gazteengan izan duen eragina «sistematikoa, sakona eta neurritz kanpoko» izan dela.

Eragin handiago horren arrazoiak begi-bistakoak dira: alde batetik, COVID-ak gazteei —eta haur eta nerabeei, bai eta, beharbada, adinekoei ere— eragin die benetan errepikaezinak diren urteetan zehar: Sabinak bertso batean esaten duen bezala «Nork lapurtu dit apirila», eta bertso hori errealtate bihurtu da hainbat hilabetez gazte eta nerabeentzat. Bestalde, pandemiaren aurrean babesteko mekanismo asko —gutxienez esparru sozionalarekin lotutakoak— lan-merkatuan nahiko ondo txertatuta dauden helduentzat daude

pentsatuta, eta askoz neurri txikiagoan lan-ibilbidea hasten ari direnentzat. Lan-merkatuaren dualtasunak —soldatei, ordutegiei, lanaldiei eta beste lan-baldintza batzuei dagokienez— eta lan-merkatu horretatik eratortzen den gizarte-babesaren ereduak berriz ere utzi dituzte alde batera gazteak —aurreko krisian eta hori baino lehenagokoetan gertatu zen bezala—.

Begien bistakoa da, gainera, ez direla epe ertain eta laburrean erraz xurgatzeko moduko ondorioak, eta pandemia horrek gazteen belaunaldiei utzi dizkien orbain batzuek hainbat hamarkadatan iraungo dutela: pobrezia- eta langabezia-tasa handiagoak, prekarietate handiagoa, emantzipazio-tasa txikiagoak, osasun mental okerragoa, etxebizitza eskuratzeko zailtasun handiagoak, ugalkortasun txikiagoa, ziurgabetasun handiagoa eta desberdintasun handiagoa. Egoera leheneratzeko behar diren funtsen zati bat, gainera, gaur egun haur, nerabe eta gazte direnek finantzatzeko dituzte (urte

batzuk barru, helduak direnean): dirua gastatu eta urte batzuetara ordaintzen dira zorrak, nahiz eta interes baxuko kredituak izan.

Nolanahi ere, COVID-19ak gazteengan duen eraginari dagokionez, adierazi behar da eragin hori oso modu desberdinean banatu dela gazteen kolektiboan bertan; gazte guztiek ez dituzte modu berean pairatu pandemiaren ondorioak. Beste hainbat gaitan bezala, generoak, jatorriak, klase sozialak eta, bereziki, pertsona bakoitzari jaiotzean egokitu zaion familiak (zorte ona edo txarra izanda) zehaztuko dute, zalantzarik gabe, COVID-ak eragindako orbainen tamaina eta sakontasuna.

Dena den, pandemiak gazteengan duen ondorio nagusietako bat honako honi dago lotuta: gure gizarte-egituran gero eta nabarmenagoa den belaunaldi-arrakala handitzea. COVID-ak berriz erakutsi du belaunaldi-faktoreak gero eta garrantzi handiagoa duela, elementu bereizle gisa, interesei, posizionamenduei, ikuspegiei eta aukerei dagokienez. Agian gehiegi sinplifikatuz esan dezakegu helduen eta, bereziki, adinekoen osasuna babestea ahalbidetu duten neurri berberak izan dutela eraginik nabarmenena gazteen hezkuntza, lan, harreman, emozio eta, azken batean, bizi esparruetako aukeretan. Interes orokorra dagoela pentsa badaiteke ere, ezin da ezkutatu, belaunaldiz belaunaldi zehaztutako sektore batzuen osasuna babeste aldera, pandemiaren osasun-arriskuen eraginpean dauden beste belaunaldi batzuek zer neurritan sakrifikatu behar izan dituzten beren eskubideak eta interesak. Espazio publikoaren okupazioari buruzko eztabaida da, gazte

askok dituzten ohitura eta jokabide arduragabeen ondorio eta guzti, egoera horren adierazgarririk onena; izan ere, egoera horretan, gazteek beren burua sakrifikatu behar izan dute batez ere adinekoen (gurasoen, osaba-izeben, aitona-amonen eta abarren) osasuna eta bizitza babesteko.

Zaila da ukatzea sakrifizio hori ezinbestekoa izan dela, eta bidezkoa. Ezin zen besterik egin, ez zen besterik egin behar. Baina belaunaldien arteko itunaren haustura nabarmena den testuinguru batean gertatu dira sakrifizio horiek; adina funtsezkoa da pobrezia-, prekarietate-, desabantaila- eta desberdintasun-egoerak azaltzeko. Ez da egoera berria: 80ko hamarkadaz geroztik, Euskadi bezalako lekuetan, helduen gehiengoaren ongizatea lan-politiken, etxebizitza-politiken eta gizarte-babesaren bidez eraiki da, eta politika horiek, gazteak atzeratzeaz gain, prekarietatera eta babesgabetasunera eramane dituzte gehienbat. Gazteen eta adinekoen bizi-baldintzen arteko alde gero eta handiagoak, gizarte-babeseko gastuan belaunaldien artean dagoen asimetria nabarmenak, eragin politiko eta mediatikoari lotuta adinekoek gazteen aurrean duten eragin gero eta handiagoak... pentsarazten dute noizbait gure gizarte funtzionamendua gidatu zuen belaunaldi-itunak nekez funtzionatzen duela eta sakoneko eta premiazko berrikuspenei behar duela. Hori da, ziurrenik, euskal gizartearen erronka nagusietako bat.

Alde horretatik, COVID-19ak euri zaharraren gainean euri berria ekarri du. Horregatik, garrantzitsua da azpimarratzea pandemiaren osteko garaian egin behar den berreraikuntza ekonomiko eta soziala, lehenik eta

behin, belaunaldien arteko ituna berritzean eta eguneratzean oinarritu behar dela, bai eta belaunaldien arteko oinarritzko justizia-mailak bermatzeko premian ere. Lan-merkatua, etxebizitza-merkatua eta gizarte-babeseko eredua eguneroko bizitzaren dimentsioak dira, eta helduen eta adinekoen interesen arabera diseinatzen dira. COVIDak

—ustekabeen, jakina— areagotu egin du eskubideen, interesen eta aukeren arrakala hori. Espero dezagun datozen urteetan egin behar dugun suspertze sozioekonomikoaren oinarritzko helburuen artean arrakala hori ixtea sartuta egotea, eta horretarako, gazteen eskubideak eta interesak ere kontuan hartuko dituzten politikak garatzea.